**ENPLEGU** PLANA
PLAN DE **EMPLEO**
2014-2016

# 2016ko Ekintza Planaren amaierako ebaluazio-txostena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| **1. TESTUINGURUAN KOKATZEA. TXOSTENAREN XEDEA** | **3** |
| **2. ERABILITAKO METODOLOGIA** | **6** |
| **3. 2016KO PLANAREN HELBURUAK** | **10** |
| 3.1- 2016ko planaren ikuspegi orokorra | 11 |
| 3.2- 2016an gauzatuko diren ekimenak | 15 |
| 3.2- 2016rako aurreikusitako baliabide ekonomikoak | 23 |
| 3.3- 2016rako aurreikusitako eragina | 26 |
| **4. 2016ko PLANAREN EGOERAREN LABURPENA** | **32** |
| 4.1- Erabilitako baliabide ekonomikoen eta enpleguan izandako eraginaren ikuspegi orokorra | 33 |
| 4.2- Aurreikusitako ekonomia-baliabideen zehaztapena | 36 |
| 4.3- Enpleguan izandako egiazko eraginaren zehaztapena | 42 |
| 4.4- Ekimenen egoera | 52 |
| **5. 2016AN GAUZATUTAKO EKIMENEN JARRAIPENA ETA DESKRIBAPENA** | **56** |
| ▪ 1. Ekintza-programa- Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea | 57 |
| ▪ 2. Ekintza-programa- Ekintzailetza sustatzea | 81 |
| ▪ 3. Ekintza-programa- Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako bermea | 99 |
| ▪ 4. Ekintza-programa- Enplegurako prestakuntza | 122 |
| ▪ 5. Ekintza-programa- Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna | 132 |
| ▪ 6.Ekintza-programa- RENOVE birgaikuntza | 148 |
| **6. 2014-2016KO ENPLEGU-PLANEKO ADIERAZLEEN EBALUAZIOA** | **155** |
| **1. ERANSKINA: GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUTAKO AZTERKETA** | **169** |

# 1- TESTUINGURUAN KOKATZEA.
# TXOSTENAREN XEDEA

- X. Legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak **Gobernu Plan gisa enplegu-plan bat formulatu eta onartzeko konpromisoa** hartu zuen, oinarritzat hartuta enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren inguruko kezka; era horretan, jarduera horien izaera estrategikoa aitortu zuen, beroriek osatzen baitute, beste plan batzuekin batera, **euskal gizartearen aurrean hartutako konpromisoen** erdigune garrantzizkoena.
- **2014ko urtarrilean 2014 – 2016 Enplegu Plana onartu** zen, honako xede hauetara zuzendutako oinarrizko tresna moduan: Euskadin dauden enpleguak sendotzera bideratutako ekimen publiko egokiak sustatzea, enpresa- eta produkzio-sarearen aldetik lanpostuak sortzea eta populazio aktiboaren enplegagarritasuna areagotzea.
- 2014-2016 Enplegu Planaren **helburuak** honako hauek dira:
    - Egoera **ahulean dauden pertsonek** eta batez ere **gazteek enplegua** lor dezaten eta haiek laneratzea lor dezaten sustatzea.
    - **Ekintzailetza** sustatzea eta **enpresa txiki eta ertainei** laguntzea.
    - Enpleguan eragin zuzena duten lanetan eta proiektuetan **inbertsio pribatua** sustatzea.
    - **Erakundeen arteko lankidetza** eta **lankidetza publiko-pribatua** sustatzea, enplegu-suntsiketa arintze aldera.
- Jarduteko moduari eta plana hedatzeari eta jarraipena egiteari dagokienez, **Urteko Ekintza Planen** bitartez zehazten da plana, ekimen edo ekintza eta helburu kuantitatiboekin eta EAEko aurrekontuetan islatuko diren aurrekontu zehatzekin, planaren egituran definiturik dauden **ekintza-programak** eta **ardatzak mantenduz**.
- Hirugarren eta azken urteko Ekintza Planean, hau da, **2016ko Ekintza Planean**, ekintzen **gutxi gorabeherako kostu ekonomikoa** (erabilitako aurrekontu propioa eta mobilizatutako kanpo-baliabideak) eta **izango duten eragina** ere sartu da. Eragin hori **enplegua sortzea**, **enplegua mantentzea** eta **enplegagarritasuna areagotzea** kontuan hartuta kalkulatu da, baina aintzat hartu dira **enpresekin lotuta dauden beste eragin batzuk** ere. Horrez gain, Ekintza Planean ekintzez arduratu den administrazio-organoa zein den adierazten da. 2016ko aurreikuspen ekonomikoa eta eragina **hiru multzotan** aurkeztu da: **Ekintza Programak, Ardatzak eta Ekintzak edo Ekimenak**.

2016ko Ekintza Plana barne hartzen duen txosten honen **amaierako ebaluazioak** honako helburu hauek ditu:

1. 2016ko Ekintza Planeko egoera globalaren gauzatzea aurkeztu.
2. 2016an zehar garaturiko ekimenak zehaztu.

# 2- ERABILITAKO METODOLOGIA

- Egindako lanen amaierako egoeraren segimendua eta kontrola egiteko, hainbat **segimendu-bilera egin dira banan-banan** kasuan kasuko ekimena abiarazteaz arduratu diren **Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, Sail eta/edo Arloekin**. Bilera horien helburua izan da ekimenen egoera eta aurrerapen-maila egiaztatzea, eta planaren amaierako ebaluazioa egiteko behar den informazio-prestakuntza erraztea.

- 2016ko Ekintza Planaren amaierako ebaluazioa egiteko, **zuzeneko informazio-eskaera** egin zaie aipatutako arduradunei honako eduki hau duten lan-fitxa bat bidaliz (fitxaren zehaztapena hurrengo orrialdean dago jasota):

  - **Ekimena** dagokion ardatzean eta programan **kokatzea**, Sail, Zuzendaritza eta pertsona arduraduna zehaztuta**.**
  - Ekimenaren **plangintza** egitea, mugarri nagusiak eta egutegia zehaztuta eta ekimenaren **egoera adierazita.**
  - **Baliabide ekonomikoak**, kontuan hartuta aipatutako datara arteko aurrekontu-sailak, helburuko aurrekontua, mobilizatutako kanpo-baliabideak**.**
  - Ekimenaren **eragina, enpleguari dagokionez (sorrera, maila mantentzea, enplegagarritasuna areagotzea).**

- Hurrengo orrialdean zehaztu dira 2016ko ekintza-planak jasotako ekintzen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, Sail eta/edo Arlo arduradunak.

| SAILAK/MENDEKO ERAKUNDEAK | ZUZENDARITZAK |
|---|---|
| **Lana eta Justizia** | Gizarte Ekonomia |
| **Lanbide** | Laneratzea Aktibatzea |
| | Prestakuntza |
| **Hezkuntza** | Heziketa eta Ikaskuntza |
| | Baliabide Materialak eta Azpiegiturak |
| **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura** | Industria Garapena |
| | Landaren eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politika |
| | Nekazaritza eta Abeltzaintza |
| | Elikagaien Kalitatea eta Industriak |
| | Ekintzailetza, Berrikuntza eta Gizarte Informazioa |
| | Nazioartekotzea |
| **Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa** | Merkataritza |
| | Turismoa |
| **Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza** | Etxebizitza |
| **SPRI** | SPRI |
| **Ogasuna eta Ekonomia** | Zerga Administrazioa |
| | Finantza Politikak eta Erakunde Baliabideak |
| **Osasuna** | Osakidetzako Ekonomia eta Finantza |
| **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia** | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia |

*Oharra: Sail eta Zuzendaritza arduradunak eguneratu egin dira azken hauteskundeen ondorengo Eusko Jaurlaritzaren egiturarekin bat etorriz (XI. Legealdia).*

| | |
|---|---|
| EKIMENA | |
| SAIL ARDURADUNA | |
| PERTSONA ARDURADUNA | |

| | |
|---|---|
| PROGRAMA | |
| ARDATZA | |

| EKIMENAREN MUGARRI NAGUSIAK, PLANGINTZA ETA EGOERA |
|---|
| |

| BALIABIDE EKONOMIKOAK | Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa | Mobilizatutako kanpoko baliabideak |
|---|---|---|
| HELBURUA | | |
| 2016/12/31n gauzatua | | |

| ENPLEGUAREN ETA ENPRESEN ERAGINA | |
|---|---|
| HELBURUA | |
| 2016/12/31ko EGOERA | |

# 3.- 2016KO PLANAREN HELBURUAK

## 3.1- 2016ko planaren ikuspegi orokorra

**279 M€**

**2016an aurreikusitako baliabide publikoak**

+

**482 M€**

**2016an aurreikusitako baliabide pribatuak**

=

**761 M€**

**2016an, enplegua suspertzeko zerbitzura aurreikusitako baliabide publikoak eta pribatuak, guztira**

**13.249**
**LANPOSTU SUSTATU DIRA**

**3.507** lanpostu sortu dira, eta 1.725 autonomo berri eta mikroenpresa

**4.822** pertsona kontratatu dira, enpleguratzeko zailtasunak zituztenak, pizgarri ekonomikoen bidez

**4.920** pertsona ari dira parte hartzen birgaitze-jarduueretan

Horietatik **2.570** lanpostu tokiko eta eskualdeko planen bidez sustatu dira

**45.969**
**LANPOSTURI EUTSI ZAIE**

**36.059**, 4.519 autonomoren eta ETEen finantzaketa eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen bidez

**1.510**, ondorengotza-prozesuei, belaunaldi-erreleboari edo enpresa ekonomia sozialeko bihurtzeari emandako laguntzen bidez

**8.400**, Enplegu Zentro Berezietan eta Laneratzeko Enpresetan

**LEHEN LAN ESPERIENTZIA 3.439 GAZTERENTZAT**

## Planeko ekintza-programen eta ardatzen taula

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea | 1.1- Enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak finantzatzea.<br>1.2- Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua.<br>1.3- Lehen sektorea eta enplegua garatzea. |
| 2 | Ekintzailetza sustatzea | 2.1- «Euskadi, lurralde ekintzailea». Euskal ekintzailetza-sistema sustatzea eta optimizatzea.<br>2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailetzari laguntzea.<br>2.3- Enpresa berritzaile berriak. |
| 3 | Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako Bermea | 3.1- Gazteen ekintzailetzari laguntzea.<br>3.2- Heziketa duala.<br>3.3- Lehen lan-esperientzia.<br>3.4- Gazte-talentua. |
| 4 | Enplegurako prestakuntza | 4.1- Langabeentzako prestakuntza.<br>4.2- Landunentzako prestakuntza. |
| 5 | Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna | 5.1- Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan.<br>5.2- Bestelako kontratazio-pizgarriak.<br>5.3- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzen laguntzea. |
| 6 | RENOVE Birgaitzea | 6.1- RENOVE Etxebizitza.<br>6.2- RENOVE Hezkuntza.<br>6.3- RENOVE Osasuna. |

## 3.2- 2016an garatuko diren ekimenak

# 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA

## 1.1. ETE-AK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA

- 1.1.1 Inbertsioa Finantzatzeko Laguntza (IFL industria).
- 1.1.2 Bideratu.
- 1.1.3 Luzaro-Europako Inbertsio Bankua.
- 1.1.4 Hitzarmena finantza-erakundeekin, ETEen eta autonomoen finantzaketa sendotzeko.
- 1.1.5 ETEen eta autonomoen zirkulatzailea finantzatzeko funts osagarria.
- 1.1.6 Zailtasunak dituzten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitza.
- 1.1.7 Zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzeko kapital-funtsa, langileen kapital sozialean parte hartuz (Lanpar Funtsa).
- 1.1.8 Aurrezki pribatua bideratzeko zerga-neurriak.

## 1.2 TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA

- 1.2.1 Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak.
- 1.2.2 Merkataritza-saltokiak modernizatzea.
- 1.2.3 EIKTak ETEetan txertatzea
- 1.2.4 Kalitate-ziurtagiriak merkataritzan.
- 1.2.5 Eskualdeko turismo-proiektuetarako laguntzak.
- 1.2.6 Enpresa turistikoak modernizatzeko eta hobetzeko laguntzak.

## 1.3 LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA

- 1.3.1 Leader.
- 1.3.2 Erein.
- 1.3.3 Itsaspen.
- 1.3.4 Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak.
- 1.3.5 Garapen eta ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean.
- 1.3.6 Gaztenek - Gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko programa.

# 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA

## 2.1 «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA

- 2.1.1 Ekintzailetza Legea garatzea. Ekintzailetzaren Erakundearteko Mahaiaren lanen garapena.
- 2.1.2. Bizkaiko Foru Aldundiko DEMA programa (sentsibilizazioa).
- 2.1.3. Ekintzailetzari laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bitartez.

## 2.2 AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA

- 2.2.1 Langabezia kapitalizatzea enplegu autonomoa sortzeko.
- 2.2.2. «Enpresa ideia» bat garatzeko laguntzak ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan.
- 2.2.3 Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa jarduera berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak.
- 2.2.4 Enpresa-jarduera hasita proiektua sendotzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak.
- 2.2.5. Bizkaiko Foru Aldundiko DEMA programa (mikroekintzailetzak laguntzea).
- 2.2.6 Mikrokreditu-programa.
- 2.2.7 Belaunaldi-aldaketa programa.

## 2.3 ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK

- 2.3.1 Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea. Basque Funtsa.
- 2.3.2 Ekintzaile.
- 2.3.3 Gauzatu Industria.
- 2.3.4 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza osoa ematea.
- 2.3.5 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiako enpresetan kide berriak lortzeko laguntzak.
- 2.3.6 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegia.
- 2.3.7 Ekintzailetza estrategikoen inguruko Miniconnect programa.

# 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA

## 3.1 GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA

- 3.1.1. «Enpresa ideia» bat garatzeko laguntzak gazteentzat ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan.
- 3.1.2 Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa jarduera berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak gazteentzat.
- 3.1.3 Enpresa-jarduera hasita proiektua sendotzeko laguntza behar duten laguntzak gazteentzat.
- 3.1.4 Gaztenpresa.
- 3.1.5 Urrats bat.
- 3.1.6 Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat.
- 3.1.7 Junior-kooperatibak.

## 3.2 HEZIKETA DUALA

- 3.2.1 Hezibi programa.
- 3.2.2 Lan-zentroetako prestakuntza praktikoa.

## 3.3 LEHEN LAN ESPERIENTZIA

- 3.3.1 Lehen Aukera (gazteen enplegua sustatzeko ekintza berritzaileak).
- 3.3.2 Euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan tituludun gazteak kontratatzea.
- 3.3.3 Errelebu-kontratuak egiteko laguntzak.
- 3.3.4 Hitzarmenak unibertsitateekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin.
- 3.3.5 Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat.

## 3.4 GAZTE TALENTUA

- 3.4.1 Nazioartekotze-bekak.
- 3.4.2 Global Training.
- 3.4.3 Estatu arteko mugikortasuna gazteen artean.
- 3.4.4 Gazteak itzultzea bultzatzea.
- 3.4.5 Nazio Batuen proiektuak egiteko diru-laguntzak.
- 3.4.6 Laguntzak euskal kooperanteentzat.

# 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

## 4.1 LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

- 4.1.1 Beste sektore batzuetako EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza.
- 4.1.2 Prestakuntzarako bigarren aukera.
- 4.1.3 Berrikuntza trebakuntzan: Ekintza berritzaileak gazteen enplegurako prestakuntzan.
- 4.1.4. Enplegurako prestakuntza.
- 4.1.5 Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin.
- 4.1.6 Lan-orientabide generikoa.
- 4.1.7 Enpresa-zerbitzuak garatzeko lankidetza-akordioak.

## 4.2 LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

- 4.2.1 Landunentzako prestakuntza.
- 4.2.2 Gaitasunak egiaztatzea.

# 5- ENPLEGU INKLUSIBOA ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA

## 5.1. ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN

- 5.1.1 Enplegua bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (1. motako ekintzak).
- 5.1.2 Kontratazioirako laguntzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (2. motako ekintzak).
- 5.1.3 Enplegua sortzeko bestelako tokiko garapen-ekintzak enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (3. motako ekintzak).

## 5.2 BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK

- 5.2.1 Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak.
- 5.2.2 Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea.
- 5.2.3 Enplegu Agentziekin lankidetzan aritzea: lan-munduan sartzen laguntzeko ekintza osoak.

## 5.3 BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA

- 5.3.1 Egoera ahulean dauden taldeentzako enplegurako prestakuntza.
- 5.3.2 Enplegu-zentro bereziak (EZB).
- 5.3.3 Laneratze-enpresak.
- 5.3.4 Desgaitasunak dituzten pertsonei enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak
- 5.3.5 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako orientabide espezifikoa
- 5.3.6 Babestutako enplegurako laguntzak merkatu arruntean
- 5.3.7 Izaera integrala duten jarduketak kolektibo bereziekin
- 5.3.8 Zeinu-hizkuntzarako itzulpenak trebakuntza-ekintzetan

# 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA

## 6.1 RENOVE ETXEBIZITZA

- 6.1.1 Banakako birgaikuntzak eta jabeen erkidegoetakoak egiteko laguntzak.
- 6.1.2 Birgaitze integraturako laguntzak.

## 6.2 RENOVE HEZKUNTZA

- 6.2.1 Birgaitze-lanak ikastetxeetan.

## 6.3 RENOVE OSASUNA

- 6.3.1 Birgaitze-lanak osasun-zentroetan.

- 2016ko Ekintza Planak **2014-2016ko Enplegu Planean** esplizituki **aurreikusten ez diren ekimen batzuk** proposatzen ditu. Hauek dira ekimen horiek:
    - Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak (1.3.4).
    - Garapen eta Ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean (1.3.5)
    - Estatu arteko mugikortasuna gazteentzat (3.4.3).
    - Laguntzak euskal kooperanteentzat (3.4.6).
    - Berrikuntza prestakuntzan. Ekintza berritzaileak gazteentzako enplegurako prestakuntzan (4.1.3).
    - Enpresentzako zerbitzuak garatzeko lankidetza-akordioak (4.1.7).
    - Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea (5.2.2).
    - Lankidetza enplegu-agentziekin: lan munduan sartzeko laguntza-zerbitzu integrala (5.2.3).
    - Izaera integrala duten jarduketak kolektibo bereziekin (5.3.7).

## 3.3- 2016an aurreikusitako baliabide ekonomikoak

| | Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa 2016 (aurreikuspena) (€) | Mobilizatutako baliabide pribatuak 2016 (€) | Baliabideak guztira 2016 (€) |
|---|---|---|---|
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | 17.679.593 € | 158.000.000 € | 175.679.593 € |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | 22.500.300 € | 5.000.000 € | 27.500.300 € |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | 30.634.966 € | 0 € | 30.634.966 € |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | 52.854.164 € | 0 € | 52.854.164 € |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | 78.570.146 € | 0 € | 78.570.146 € |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | 77.115.774 € | 318.754.062 € | 395.869.836 € |
| **GUZTIRA** | **279.354.942 €** | **481.754.062 €** | **761.109.004 €** |

| | Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa 2016 (aurreikuspena) (€) | Mobilizatutako baliabide pribatuak 2016 (€) | Baliabideak guztira 2016 (€) |
|---|---|---|---|
| 1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA | 1.700.000 € | 158.000.000 € | 159.700.000 € |
| 1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA | 11.085.628 € | 0 € | 11.085.628 € |
| 1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA | 4.893.965 € | 0 € | 4.893.965 € |
| 2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA | 1.374.062 € | 0 € | 1.374.062 € |
| 2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA | 4.092.559 € | 5.000.000 € | 9.092.559 € |
| 2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK | 17.033.679 € | 0 € | 17.033.679 € |
| 3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA | 5.695.133 € | 0 € | 5.695.133 € |
| 3.2- HEZIKETA DUALA | 1.250.000 € | 0 € | 1.250.000 € |
| 3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA | 15.848.411 € | 0 € | 15.848.411 € |
| 3.4- GAZTE TALENTUA | 7.841.421 € | 0 € | 7.841.421 € |
| 4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA | 39.504.164 € | 0 € | 39.504.164 € |
| 4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA | 13.350.000 € | 0 € | 13.350.000 € |
| 5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN | 17.485.271 € | 0 € | 17.485.271 € |
| 5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK | 3.720.000 € | 0 € | 3.720.000 € |
| 5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA | 57.364.875 € | 0 € | 57.364.875 € |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | 25.547.991 € | 318.754.062 € | 344.302.053 € |
| 6.2- RENOVE Hezkuntza | 41.793.383 € | 0 € | 41.793.383 € |
| 6.3- RENOVE Osasuna | 9.774.400 € | 0 € | 9.774.400 € |
| GUZTIRA | 279.354.942 € | 481.754.062 € | 761.109.004 € |

# 3.4- 2016an aurreikusitako eragina

- Jarraian, 2016ko ekintzen aurreikusitako eragina ageri da.
- Planaren kasuan bezala, hiru ataletan banatu dugu eragina:
  - **Enplegua sortzea**, enpresa berriak sortuz eta lehendik dauden enpresetan enplegu berriak sortuz.
  - **Enplegua mantentzea**, zailtasunak dituzten enpresei lagunduz eta tokiko garapenari lotutako sektore ekonomikoetako lehiakortasuna hobetuz, egungo enpleguari eusteko.
  - Gaikuntza- eta orientabide-ekintzetan eta enpleguaren laguntzan parte hartzen duten pertsonen **enplegagarritasuna handitzea**.

| | Empleguaren sorrera 2016 (pertsonak) | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrata-ziorako pizgarriak | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **170** | 170 | 0 | 0 | **35.079** | 16.650 | 18.239 | 190 | 0 | **44** | 44 | 0 |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **2.210** | 2.010 | 0 | 200 | **1.990** | 70 | 600 | 1.320 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **1.327** | 1.327 | 0 | 0 | **500** | 0 | 500 | 0 | 0 | **16.392** | 3.395 | 12.997 |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **38.345** | 0 | 38.345 |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **4.622** | 0 | 0 | 4.622 | **8.400** | 0 | 0 | 0 | 8.400 | **5.699** | 0 | 5.699 |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **4.920** | 0 | 4.920 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **13.249** | **3.507** | **4.920** | **4.822** | **45.969** | **16.720** | **19.339** | **1.510** | **8.400** | **60.480** | **3.439** | **57.041** |

# Eragina ENPLEGUAN, ardatzen arabera

| | Enpleguaren sorrera 2016 (pertsonak) | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrata-ziorako pizgarriak | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak |
| **1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **16.840** | 16.650 | 0 | 190 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **18.239** | 0 | 18.239 | 0 | 0 | **28** | 28 | 0 |
| **1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA** | **170** | 170 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **16** | 16 | 0 |
| **2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA** | **640** | 640 | 0 | 0 | **1.920** | 0 | 600 | 1.320 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK** | **1.570** | 1.370 | 0 | 200 | **70** | 70 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA** | **1.327** | 1.327 | 0 | 0 | **500** | 0 | 500 | 0 | 0 | **1.020** | 20 | 1.000 |
| **3.2- HEZIKETA DUALA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **10.450** | 450 | 10.000 |
| **3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **4.325** | 2.375 | 1.950 |
| **3.4- GAZTE TALENTUA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **597** | 550 | 47 |
| **4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **13.345** | 0 | 13.345 |
| **4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **25.000** | 0 | 25.000 |
| **5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN** | **2.570** | 0 | 0 | 2.570 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK** | **1.836** | 0 | 0 | 1.836 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **600** | 0 | 600 |
| **5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA** | **216** | 0 | 0 | 216 | **8.400** | 0 | 0 | 0 | 8.400 | **5.099** | 0 | 5.099 |
| **6.1- RENOVE Etxebizitza** | **4.291** | 0 | 4.291 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **6.2- RENOVE Hezkuntza** | **510** | 0 | 510 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **6.3- RENOVE Osasuna** | **119** | 0 | 119 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **13.249** | **3.507** | **4.920** | **4.822** | **45.969** | **16.720** | **19.339** | **1.510** | **8.400** | **60.480** | **3.439** | **57.041** |

| | Beste eragin batzuk 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA | 3.475 | 120 | 0 |
| 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA | 702 | 870 | 0 |
| 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA | 500 | 735 | 0 |
| 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA | 463 | 0 | 0 |
| 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA | 0 | 0 | 18.800 |
| **GUZTIRA** | **5.140** | **1.725** | **18.800** |

| | Beste eragin batzuk 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA | 987 | 0 | 0 |
| 1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA | 2.438 | 0 | 0 |
| 1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA | 50 | 120 | 0 |
| 2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA | 0 | 0 | 0 |
| 2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA | 630 | 620 | 0 |
| 2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK | 72 | 250 | 0 |
| 3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA | 500 | 735 | 0 |
| 3.2- HEZIKETA DUALA | 0 | 0 | 0 |
| 3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA | 0 | 0 | 0 |
| 3.4- GAZTE TALENTUA | 0 | 0 | 0 |
| 4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN | 0 | 0 | 0 |
| 5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK | 463 | 0 | 0 |
| 5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA | 0 | 0 | 0 |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | 0 | 0 | 18.800 |
| 6.2- RENOVE Hezkuntza | 0 | 0 | 0 |
| 6.3- RENOVE Osasuna | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 5.140 | 1.725 | 18.800 |

# 4- 2016KO EKINTZA-PLANAREN EGOERAREN LABURPENA

## 4.1- Erabilitako baliabide ekonomikoen eta enpleguan izandako inpaktuaren ikuspegi orokorra

**226 M€**

**2016an erabilitako baliabide publikoak**

**+**

**288 M€**

**2016an erabilitako baliabide pribatuak**

**=**

**514 M€**

**2016an erabilitako baliabide publikoak eta pribatuak, guztira**

**12.706**
**LANPOSTU SUSTATU DIRA**

**3.565** lanpostu sortu dira, eta 1.937 autonomo berri eta mikroenpresa

**5.095** pertsona kontratatu dira, enpleguratzeko zailtasunak zituztenak, pizgarri ekonomikoen bidez

**4.046** pertsona ari dira parte hartzen birgaitze-jarduereetan

Horietatik **2.522** lanpostu tokiko eta eskualdeko planen bidez sustatu dira

**36.874**
**LANPOSTURI EUTSI ZAIE**

**27.293**, 3.531 autonomoren eta ETEen finantzaketa eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen bidez

**407,** ondorengotza-prozesuei, belaunaldi-erreleboari edo enpresa ekonomia sozialeko bihurtzeari emandako laguntzen bidez

**9.174**, Enplegu Zentro Berezietan eta Laneratzeko Enpresetan

**LEHEN LAN ESPERIENTZIA 2.140 GAZTERENTZAT**

## 4.2- Erabilitako ekonomia-baliabideen zehaztapena

| | Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa, 2016 (gauzatutakoa) (€) | Mobilizatutako baliabide pribatuak 2016 (€) | Baliabideak guztira 2016 (€) |
|---|---|---|---|
| 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA | 13.686.128 € | 27.748.926 € | 41.435.054 € |
| 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA | 19.679.721 € | 0 € | 19.679.721 € |
| 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA | 15.635.502 € | 0 € | 15.635.502 € |
| 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 48.654.075 € | 0 € | 48.654.075 € |
| 5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA | 62.167.896 € | 0 € | 62.167.896 € |
| 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA | 66.527.772 € | 260.433.366 € | 326.961.138 € |
| **GUZTIRA** | **226.351.094 €** | **288.182.292 €** | **514.533.386 €** |

| | Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa, 2016 (gauzatutakoa) (€) | Mobilizatutako baliabide pribatuak 2016 (€) | Baliabideak guztira 2016 (€) |
|---|---|---|---|
| 1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA | 942.100 € | 27.748.926 € | 28.691.026 € |
| 1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA | 9.329.386 € | 0 € | 9.329.386 € |
| 1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA | 3.414.642 € | 0 € | 3.414.642 € |
| 2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA | 1.574.062 € | 0 € | 1.574.062 € |
| 2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA | 2.525.189 € | 0 € | 2.525.189 € |
| 2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK | 15.580.470 € | 0 € | 15.580.470 € |
| 3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA | 3.787.866 € | 0 € | 3.787.866 € |
| 3.2- HEZIKETA DUALA | 1.020.549 € | 0 € | 1.020.549 € |
| 3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA | 3.603.913 € | 0 € | 3.603.913 € |
| 3.4- GAZTE TALENTUA | 7.223.174 € | 0 € | 7.223.174 € |
| 4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA | 38.054.075 € | 0 € | 38.054.075 € |
| 4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA | 10.600.000 € | 0 € | 10.600.000 € |
| 5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN | 14.450.027 € | 0 € | 14.450.027 € |
| 5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK | 1.813.762 € | 0 € | 1.813.762 € |
| 5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA | 45.904.107 € | 0 € | 45.904.107 € |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | 21.853.572 € | 260.433.366 € | 282.286.938 € |
| 6.2- RENOVE Hezkuntza | 32.523.648 € | 0 € | 32.523.648 € |
| 6.3- RENOVE Osasuna | 12.150.552 € | 0 € | 12.150.552 € |
| GUZTIRA | 226.351.094 € | 288.182.292 € | 514.533.386 € |

- 2016an abiarazitako ekimenen garatze- eta gauzatze-mailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **aurreikusitako finantzaketaren %81 gauzatu da**, eta aurreikusitako baliabide pribatuen %60 mobilizatu dira.

- Hurrengo taulan 2016an ekintza-programa bakoitzarentzat aurreikusitako aurrekontuen benetako gauzatze-maila ageri da.

| | 2016an egiaz gauzatutakoa Eusko Jaurlaritzaren finantziazio aurreikusiaren aldean (%) | 2016an egiaz gauzatutakoa mugiaraztea aurreikusitako baliabide pribatuen aldean (%) | 2016an egiaz gauzatutakoa aurreikusitako guztizko baliabideen aldean (%) |
|---|---|---|---|
| 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA | %77 | %18 | %24 |
| 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA | %87 | %0 | %72 |
| 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA | %51 | Ez da aplikatu | %51 |
| 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | %92 | Ez da aplikatu | %92 |
| 5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA | %79 | Ez da aplikatu | %79 |
| 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA | %86 | 82% | %83 |
| GUZTIRA | %81 | %60 | %68 |

## EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAREN benetako gauzatzea: aurreikusitako helburua baino txikiagoa (%81)

- **1. Ekintza-programa. ETEak eta tokiko garapena sustatzea. Ekintza-programa honetan, aurrekontuaren %77 gauzatu da,** eta honako gertaera hauengatik izan da hori::

  - ETEak eta Autonomoak finantzatzeko programen aurrekontuak gutxiago gauzatu dira; izan ere, ez da atera Inbertsiorako Finantza Laguntzen programa (IFL), eta ez da Bideratu programaren espedienterik onartu.
  - Berregituratu egin dira 2020ko Landa Garapenerako Programa berritik eratorritako lehen sektoreko laguntzak. Hori dela eta, zenbait programa egokitu egin behar izan dira, eta, ondorioz, deialdi batzuk ezin izan dira atera, besteak beste, Leader Programa. Halaber, Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia 2017ko aurrekontuaren kargura finantzatu da, haren ebazpen-eguna dela eta (2016ko abenduaren 30a).

  Bestalde, turismoa eta tokiko merkataritza sustatzearekin lotutako programak aurreikusitako moduan mantendu dira.

- **2. Ekintza-programa. Ekintzailetza sustatzea. Ekintza-programa honetan, aurrekontuaren %87 gauzatu da.** Beherakada nagusiak autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzeari dagozkionak izan dira batez ere; izan ere, ez da abiarazi Mikrokredituen Programaren deialdia, eta Ekintzaileei Laguntzeko Programari eta Belaunaldi Aldaketa Programari dagokion aurrekontua aurreikusitakoa baino gutxiago gauzatu da. Zentzu positiboan, berriro onartu da DEMA programari laguntzeko lankidetza-hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

Gauzatu eta Ekintzaile bezalako enpresa berritzaile berriak eta gizarte-ekonomiako ekintzailetzarekin lotutakoak laguntzeko programen aurrekontua helburuekin bat etorriz gauzatu da.

- **3. Ekintza-programa. Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako bermearen aurrekontua %51 gauzatu da oro har.** Hala ere, aldeak daude laguntza-ildo ezberdinen artean :

  - Prestakuntza Dualeko Hezibi programak eta nazioarteko gazte talentudunei laguntzeko programek, besteak beste nazioartekotzeko bekek (BEINT), Global Training bekek eta NBE bekek, aurreikusitako helburuak bete dituzte.
  - Gazte ekintzaileei dagokienez, Ekintzaileei Laguntzeko Programaren aurrekontuaren gauzatzea hobea izan da. Hala ere, beste programa batzuek, hala nola Gaztenpresa eta Urrats Bat programek, aurreikusitakoa bete dute.
  - Lehen lan-esperientzian laguntzeko ildoen aurrekontuetan, gauzatutako kopuruak nabarmen egin du behera; izan ere, Lehen Aukera programaren, Errelebo Kontratuen laguntzen eta Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazteak kontratatzeko laguntzen eskaintzak behera egin du. Gainera, 2016ko lan-orientazioaren deialdia atera ez izanak eragin negatiboa izan du gazteentzako lan-orientazioaren aurrekontuan.

- **4. Ekintza-programa. Enplegurako prestakuntza. Ekintza-programa honetan, aurrekontuaren %92 gauzatu da, hau da, helburua ia lortu da**. Langabeentzako enplegurako prestakuntza aurreikusitako moduan mantendu da. Hala ere, 2016ko lan-orientazioaren deialdia atera ez izanak beheranzko eragina izan du kolektibo horri dagokion zati proportzionalean. 2016an, ez da gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozedurarik deitu**.**

- **5. Ekintza-programa. Enplegu Inklusiboa. Enpleguarekiko Elkartasuna. Ekintza-programa honetan, aurrekontuaren %79 gauzatu da.** Ezarrita zegoen helburuarekiko dagoen aldea honako honengatik gertatu da: behera egin du Euskal enpresek kanpoko lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko laguntzen eta Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzen programaren aurrekontu-gauzapenak. Horrez gain, atzeratu egin da Enplegatze Agentziekin lankidetza-hitzarmenak sinatzea; hortaz, 2017ra atzeratu da aurrekontu-gauzapen ia osoa**.**

  Bestalde, Tokiko eta Eskualdeetako Enplegu Planak eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboak laneratzeko gaikuntza- eta laguntza-programak bat etorri dira aurreikusitako gauzapen-helburuekin (desabantailan dauden kolektiboentzako 2016ko lan-orientazioaren deialdia izan ezik, ez baita atera).

- **6. Ekintza-programa. Renove Birgaikuntza. Ekintza-plan honen aurrekontuaren %86 gauzatu da, oro har. Hala ere, aldeak daude birgaikuntza-programen artean.** Hezkuntza-zentro publikoen birgaikuntzan, esaterako, aurrekontua aurreikusitakoa baino gutxiago gauzatu da, atzerapenak egon direlako obra batzuen hasieran eta obrak gauzatzeko prozesuan. Etxebizitzen birgaitzeari dagokionez, banakako birgaitzeari eta jabeen erkidegoetako birgaitzeari dagokion aurrekontua aurreikusitako moduan gauzatu da, nahiz eta hiri-eremuetarako eta espazio publikoetarako sarbidea hobetzeari dagokion aurrekontua aurreikusitakoa baino gutxiago gauzatu den. Kontrara, osasun-etxeen birgaitzeari dagokion aurrekontua uste baino gehiago gauzatu da**.**

**MOBILIZATUTAKO BALIABIDE PRIBATUEN benetako gauzatzea: aurreikusitako helburua baino txikiagoa (%60)**

- **ETEak eta autonomoak finantzatzeko laguntza-programek aurreikusi baino baliabide pribatu gutxiago mobilizatu dituzte**, programa batzuetan eskaera aurreikusitakoa baino txikiagoa izan delako, esaterako, honako hauetan: ETEak eta Autonomoak Finantzatzeko Funts Osagarria eta Finantza Erakundeekin eginiko Hitzarmena Zirkulatzailearen Finantzaketa Sustatzeko. Bestalde, aipatu beharra dago berriro ere ez dela mikrokredituen programa abiarazi.

- Beste alde batetik, Renove Etxebizitza programari lotutako baliabide pribatuak aurreikusi baino gutxiago mobilizatu dira, batez ere baliabide horiek kalkulatzeko irizpidea berrikusi eta eguneratu delako.

## 4.3- Enpleguan izandako egiazko inpaktuaren zehaztapena

| | Enpleguaren sorrera 2016 (pertsonak) | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrata-ziorako pizgarriak | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **168** | 88 | 0 | 80 | **26.497** | 3.702 | 22.695 | 100 | 0 | **42** | 42 | 0 |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **2.770** | 2.618 | 0 | 152 | **1.036** | 44 | 685 | 307 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **1.531** | 859 | 0 | 672 | **167** | 0 | 167 | 0 | 0 | **14.064** | 2.098 | 11.966 |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **46.107** | 0 | 46.107 |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **4.191** | 0 | 0 | 4.191 | **9.174** | 0 | 0 | 0 | 9.174 | **5.807** | 0 | 5.807 |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **4.046** | 0 | 4.046 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **12.706** | **3.565** | **4.046** | **5.095** | **36.874** | **3.746** | **23.547** | **407** | **9.174** | **66.020** | **2.140** | **63.880** |

| | Enpleguaren sorrera 2016 (pertsonak) | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrata-ziorako pizgarriak | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak |
| **1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.802 | 3.702 | 0 | 100 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 22.695 | 0 | 22.695 | 0 | 0 | 26 | 26 | 0 |
| **1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA** | 168 | 88 | 0 | 80 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 16 | 16 | 0 |
| **2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA** | 1.173 | 1.173 | 0 | 0 | 992 | 0 | 685 | 307 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK** | 1.597 | 1.445 | 0 | 152 | 44 | 44 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA** | 859 | 859 | 0 | 0 | 167 | 0 | 167 | 0 | 0 | 1.000 | 0 | 1.000 |
| **3.2- HEZIKETA DUALA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 10.539 | 539 | 10.000 |
| **3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA** | 672 | 0 | 0 | 672 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2.003 | 1.059 | 944 |
| **3.4- GAZTE TALENTUA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 522 | 500 | 22 |
| **4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 20.301 | 0 | 20.301 |
| **4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 25.806 | 0 | 25.806 |
| **5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN** | 2.522 | 0 | 0 | 2.522 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK** | 1.466 | 0 | 0 | 1.466 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 163 | 0 | 163 |
| **5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA** | 203 | 0 | 0 | 203 | 9.174 | 0 | 0 | 0 | 9.174 | 5.644 | 0 | 5.644 |
| **6.1- RENOVE Etxebizitza** | 3.501 | 0 | 3.501 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **6.2- RENOVE Hezkuntza** | 397 | 0 | 397 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **6.3- RENOVE Osasuna** | 148 | 0 | 148 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | 12.706 | 3.565 | 4.046 | 5.095 | 36.874 | 3.746 | 23.547 | 407 | 9.174 | 66.020 | 2.140 | 63.880 |

| | Beste eragin batzuk 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA | 2.722 | 68 | 0 |
| 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA | 785 | 1.369 | 0 |
| 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA | 158 | 500 | 0 |
| 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA | 486 | 0 | 0 |
| 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA | 0 | 0 | 13.101 |
| **GUZTIRA** | **4.151** | **1.937** | **13.101** |

| | Beste eragin batzuk 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA | 115 | 0 | 0 |
| 1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA | 2.585 | 0 | 0 |
| 1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA | 22 | 68 | 0 |
| 2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA | 0 | 0 | 0 |
| 2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA | 681 | 1.096 | 0 |
| 2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK | 104 | 273 | 0 |
| 3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA | 158 | 500 | 0 |
| 3.2- HEZIKETA DUALA | 0 | 0 | 0 |
| 3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA | 0 | 0 | 0 |
| 3.4- GAZTE TALENTUA | 0 | 0 | 0 |
| 4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 |
| 5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN | 0 | 0 | 0 |
| 5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK | 486 | 0 | 0 |
| 5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA | 0 | 0 | 0 |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | 0 | 0 | 13.101 |
| 6.2- RENOVE Hezkuntza | 0 | 0 | 0 |
| 6.3- RENOVE Osasuna | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 4.151 | 1.937 | 13.101 |

- 2016an abian jarritako ekimenak garatzeko eta gauzatzeko moduari esker, **ia-ia erabat bete da enplegua sortzean izandako eragina (%96) eta helburura gerturatu da enplegua mantentzean izandako eragina (%80). Enplegagarritasuna hobetzean** espero zen gorakada oro har aurreikusitakoa baino handiagoa izan da (%109). Hala ere, gazteen lehen lan-esperientziaren emaitzek aurreikusitako eraginaren %62 lortu dute.
- Beheko taulan eraginari dagokionez aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren agertzen da, honako hauen arabera: planean definitutako ekintza-programak, enpleguak sortzeko eta mantentzeko bideak eta enplegagarritasuna hobetzea.
- Hurrengo orrialdeetan, enpleguan aurreikusitako eraginari dagozkion desbideratze nagusien azalpena ematen da.

| | Enplegu-sorrera 2016an (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | | Enpleguari eustea 2016an (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | | | Enplegagarritasunaren hazkundea 2016an (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | Bestelakoak 2016an (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldean) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrataziorako pizgarriak | **Mantendutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegagarritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarritasun hazkundeak | **Lanean diharduten enpresak** | **Enpresa sortu berriak** | Etxebizi-tzak |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **%99** | %52 | - | (*) | **%76** | %22 | %124 | %53 | - | **%95** | %95 | - | **%78** | **%57** | **-** |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **%125** | %130 | - | %76 | **%52** | %63 | %114 | %23 | - | **-** | - | - | **%112** | **%157** | **-** |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **%115** | %65 | - | (*) | **%33** | - | %33 | - | - | **%86** | %62 | %92 | **%32** | **%68** | **-** |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **-** | - | - | - | **-** | - | - | - | - | **%120** | - | %120 | **-** | **-** | **-** |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **%91** | - | - | %91 | **%109** | - | - | - | %109 | **%102** | - | %102 | **%105** | **-** | **-** |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **%82** | - | %82 | - | **-** | - | - | - | - | **-** | - | - | **-** | **-** | **%70** |
| **GUZTIRA** | **%96** | **%102** | **%82** | **%106** | **%80** | **%22** | **%122** | **%27** | **%109** | **%109** | **%62** | **%112** | **%81** | **%112** | **%70** |

*Notak:*

*•«-» sinboloak adierazten du ekintza-programa jakin bateko ekimenek ez dutela eragin bat lotuta, enplegua sortzeko, mantentzeko edo enplegagarritasuna areagotzeko bideen bitartez.*

*•(*) sinboloa aurreko adierazlearen salbuespenak jasotzeko erabiltzen da, izan daiteke egokitzapen bat egin delako helburuetan aurreikusi gabeko eraginaren sailkapenean (Basque Funtsa; Miniconnect; eta Lehen Aukera) edo helburuetan aurreikusi gabeko eragin bat sortu duen ekimen berri bat delako (landa-eremuetako ekonomia dibertsifikatzeko laguntza).*

## ENPLEGUAREN SORRERAN izandako benetako eragina: helburua ia-ia lortuta (%96)

- **Enpresak sortzearen eta handitzearen bitartez aurreikusitako enpleguaren %102.**

  Enpresak sortzearen eta handitzearen bitartez sortutako enpleguak aurreikusitako helburua lortu du oro har; hala ere, aldeak daude programen artean gauzapen-mailari dagokionez. Hala, lehen sektorearen garapenaren bitartez sortutako enplegua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, batetik, ez delako Leader programaren deialdia atera, eta, bestetik, Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzek eragin txikiagoa izan dutelako. Hori guztia 2020ko Landa Garapenerako Programa berrira egokitzeko prozesuaren ondorioz gertatu da.

  Bestalde, gazte-ekintzailetzarekin lotutako egitasmoek aurreikusi baino eragin txikiagoa lortu dute, batez ere 30 urtetik beherako Ekintzaileak Laguntzeko Programarako eta Gaztenpresa Programarako aurreikusitako helburuak goraka kalkulatu zirelako. Gazte ekintzailetzaren beste egitasmo batzuek, besteak beste Urrats Bat egitasmoak, aurreikusitako emaitzak lortu dituzte.

  Ekintzailetza berritzaileari laguntzeko programek (Gauzatu Industria, Ekintzaile eta Gizarte Ekintzailetza), berriz, esperotako emaitzak izan dituzte. Autoenpleguan eta mikroekintzailetzan laguntzeari dagokionez, enplegu autonomoa sortzeko langabeziaren kapitalizazio-programak sortutako enpleguari eta DEMA programa bultzatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetza-hitzarmen berriari esker, konpentsatu egin da Ekintzaileei Laguntzeko Programak eta Mikrokredituen programa abiarazi ez izanak izan duten eragin negatiboa.

- **Birgaitzean aurreikusitako enpleguaren %82.**

  Birgaitzean aurreikusitakoa baino urriagoa izan da enpleguan izandako eragina, batetik, atzerapenak izan direlako ikastetxe batzuetako obretan (Renove Hezkuntza), eta, bestetik, Renove Etxebizitza programaren aurrekontua gutxiago gauzatu delako hiri-eremuak eta espazio publikoak berroneratzeari lotuta. Hori ere obren atzerapenagatik izan da. Bestalde, osasun-etxeen birgaitze-obrek (Renove Osasuna) aurreikusi baino eragin handiagoa izan dute, aurrekontuaren zati handiagoa gauzatu delako.

- **Kontratazioak sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez aurreikusitako enpleguaren %106.**

  Kontratazioak sustatzeko pizgarri zuzenekin lotutako programen bitartez sortutako emaitzak, oro har, positiboak izan dira; hala ere, badaude zenbait ñabardura programa motaren arabera. Hala, Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboak laneratzeko (desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzea) programen bitartez sortutako enpleguak aurreikusitakoa bete du. Alabaina, Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzek eta Euskal enpresen kanpoko lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko laguntzek aurreikusitakoa baino eragin txikiagoa izan dute, eskaria txikiagoa izan delako.

  Horrez gain, urteko ebaluazioa egitean helburuak definitzeko unean aurreikusi ez zen enplegua sortzearen ondoriozko eragin bat sartu da, hain zuzen ere, Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen Programatik eta Lehen Aukera Programatik eratorritakoa (lan-kontratu babestuak).

## ENPLEGUA MANTENTZEAN izandako benetako eragina: helburua aurreikusitakoa baino txikiagoa (%80)

- **Enpresak finantzatzearen bitartez aurreikusitako enpleguaren %22.**

  Enplegua mantentzean beherakada handia izan da eraginean, honako arrazoi hauengatik: beherakada handia egon da ETEak eta Autonomoak finantzatzeko laguntza-ekimenek mobilizatutako baliabide pribatuetan eta eskaera gutxiago egon da, batez ere ETEak eta Autonomoak Finantzatzeko Funts Osagarriari eta ETEen eta Autonomoen Finantzaketa Indartzeko Finantza Erakundeekin egin den Hitzarmenari dagokionez. Halaber, ez da Bideratu programaren espedienterik onartu.

- **ETEen lehiakortasuna eta/edo egonkortasuna hobetzearen bidez aurreikusitako enpleguaren %122.**

  Aurreikusitako eraginaren gorakada nabarmen honen arrazoi nagusia da 2015ean aldatu egin zela Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (EIKTak) ETEetan lehiakortasun-tresna gisa txertatzea sustatzeko programen irismena eta edukia. Programa horietan, industriak pisu handia izan du, eta, horregatik, nabarmen egin du gora aurreikusitako eraginak, industria-enpresek sortutako enplegua beste sektoreetakoa baino handiagoa baita.

  Bestalde, 30 urte edo gehiago dituzten ekintzaileak laguntzeko programaren barruan egonkortzea laguntzeko ildoak aurreikusi baino eragin handiagoa izan du, eta ez da gauza bera gertatu 30 urtetik beherakoei dagokienez.

- **Ondorengotzaren, belaunaldi-aldaketaren eta enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzearen bitartez aurreikusitako enpleguaren %27.**

  Enplegua mantentzean aurreikusi baino eragin txikiagoa izan du, belaunaldi-aldaketan oinarritutako programa gutxiago gauzatu delako eta eskaera txikiagoa izan duelako: 307 enpleguri eutsi zaie eta helburua 1.320ri eustea zen.

- **Enplegu Zentro bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestearen bitartez aurreikusitako enpleguaren %109.**

  Bi figurak babestearen bitartez enplegu inklusiboan sortutako eragina aurreikusitakoa baino handiagoa izan da; izan ere, Enplegu Zentro Berezietan espero baino 629 pertsona gehiago izan dira eta Gizarteratze Enpresetan aurreikusi baino 145 gehiago.

## ENPLEGAGARRITASUNA HANDITZEAN izandako benetako eragina: helburua beteta (%109)

- **Gazteentzako lehen lan-esperientziaren bitartez aurreikusitako enplegagarritasun-hobekuntzaren %62.**

  Lehen lan-esperientzian laguntzeko egitasmoek sortutako emaitza orokorrak aurreikusitakoak baino txikiagoak dira; hala ere, alde handiak daude programa motaren arabera. Hala, prestakuntza dualeko Hezibi programak aurreikuspenak gainditu ditu; izan ere, 539 gazteri lagundu die txandakako prestakuntzak, eta aurreikusitakoak 450 ziren. Era berean, nazioartekotze-beken (BEINT) eta Global Training beken bitartez gazte talentudunei laguntzeko ildoek aurreikusitako helburuak bete dituzte.

  Eragina txikia izan bada honako programa hauen eskaria gutxitu delako izan da batik bat: Lehen Aukera programa, Errelebo-kontratuak laguntzeko programa eta Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazteak kontratatzeko laguntzen programa. Hori dela eta, arlo honetan, aurreikusitako emaitza orokorren %45 lortu da (3.3 ardatza. Lehen Lan Esperientzia).

- **Beste enplegagarritasun-handiagotze batzuen bitartez aurreikusitako hobekuntzaren %112.**

  Enplegurako prestakuntzari laguntzeko programek sortutako eragina aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, nola langabeei hala landunei dagokienez. Era berean, gizarte-ekonomia arloko prestakuntzak aurreikusitako helburuak bete ditu.

  Prestakuntzari laguntzeko programa horiek lortutako emaitzek konpentsatu egin dute gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduragatik (ez du deialdirik izan 2016an) eta laneratzean laguntzeko jarduketa osoengatik (atzeratu egin da Enplegatze Agentziekin lankidetza-hitzarmenak sinatzea) eragin txikia lortu izana.

## BESTE ERAGIN BATZUK

- **Enpresa berrietan aurreikusitako eraginaren %112.**

  Enpresa berritzaile berriei laguntzeko programek (Gauzatu, Ekintzaile eta Gizarte Ekonomiako Ekintzailetza) bete egin dituzte enpresa berriak sortzeko zituzten helburuak. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak Dema programari laguntzeko lankidetza-hitzarmena sinatu duenez, 386 enpresa gehigarri sortu dira.

  Emaitza positibo horiek konpentsatu egin dute Gazte ekintzailetzako ekintzek eta Landa ekonomiaren arloko ekintzailetzako izandako eragin txikia, bai eta Mikrokredituen Programa abiarazi ez izanak izandako eragina ere.

- **Lehendik zeuden enpresetan aurreikusitako eraginaren %81.**

  Eragin txikia izatearen arrazoia da, batetik, nabarmen murriztu direla ETEak eta autonomoak finantzatzeko laguntza-ekimenek mobilizatutako baliabideak, eta, bestetik, landa-ekonomiaren arloko laguntza-programen aurrekontuaren gauzapena txikiagoa izan denez, aurreikusi baino emaitza baxuagoak izan dira. Horrez gain, Gazteen Ekintzailetzako Proiektuak Finkatzen Laguntzeko ildoak aurreikusi baino emaitza baxuagoak izan ditu, helburuak goraka kalkulatu zirelako.

  Zentzu positiboan, ekonomia-enpresetan bazkide berriak sartzeko laguntza-programak aurreikusi baino eragin handiagoa sortu du. Era berean, turismo eta merkataritza arloko enpresen lehiakortasuna hobetzeari eta 30 urteko edo gehiagoko ekintzaileei laguntzeko programaren barruan enpresa-proiektu berriak finkatzeko laguntzeari dagokionez, aurreikusitakoa bete da.

- **Etxebizitzetan aurreikusitako eraginaren %70.**

  Etxebizitzetako birgaitze-obrek eragin txikiagoa izan dute (Renove Etxebizitza), eta horren arrazoia da eraginaren helburuak kalkulu-eredu teoriko batean oinarritu zirela eta desbideraketa-marjina apur bat izan dezakeela. Horrez gain, banakako birgaitzerako eta jabeen erkidegoetako birgaitzerako laguntzen aurrekontua aurreikusi baino gutxiago gauzatu da.

# 4.4- Ekimenen egoera

2016. urtean **aldaketa** hauek egin dira Ekintza Planean aurreikusitako ekimenetan:

- Eguneratu egin da «2.1.3 Ekintzaileletzari laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bitartez» ekimenaren izena, eta izena hau eman zaio, zentro horien gaur egungo izenera egokitzeko: «Ekintzaileletzari laguntzea Business Innovation Centres (BICs) zentroen bitartez».
- Eguneratu egin da Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen (5.1 ardatza) egitura, honako hau sartu da: "4. Motako Ekintzak: Proiektu Estrategikoak". Horrek esan nahi du ekimen bat gehitu behar zaiola Planari. Hasiera batean ekimen hori ez zegoen aurreikusita; izan ere, 2016ko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen deialdia 2016ko Ekintza Planeko ekimenen edukiaren definizioaren ondorengoa da.
- Hala, Planak enpleguan eragin zuzena duten **85 neurri zehatz ditu, guztira, planak 2016an garatzeko**.

- 2016ko Ekintza Planean 2016an enpleguan eragin zuzena izango zuten 84 neurri zehatz abiaraztea aurreikusten zen. **Jarraipen eta ebaluazio bat** egin da, eta, **horri esker, ekimenak zenbateraino gauzatu diren aztertu ahal izan da**. Horrez gain, desbideraketarik egon bada edo ekimenak gauzatu ez badira, horien arrazoiak identifikatu dira. **3 egoera nagusi** definitu dira:
  - **Gauzatzen:** ekimenak aurreikusitako moduan gauzatzen ari dira, hau da, programa bakoitzari dagokion deialdia egin da**.**
  - **Urteko deialdia ez da egin:** 2016an ez da ekimenaren urteko deialdia egin, aurrekontu-egokitzapenak egin direlako, kudeaketan atzerapenen bat egon delako edo programa amaitu edo itxi egin delako. Ekimen hauek 2016ko Ekintza Planeko aurreikuspenetan zeuden; izan ere, aurreko urteetan ateratako deialdietan egin ez ziren eta urtean zehar ordaindu behar ziren ordainketak zituzten (oraindik egin gabeko ordainketen likidazioak)**.**
  - **Diseinatzeko edo birdiseinatzeko fasean edo finantzaketa bilatzeko zain:** ekimenak ez dira urtean zehar martxan jarri, definitzeko edo planteatzeko hasierako fase batean daudelako, edo programak edo araudiak berrikusten eta/edo eguneratzen ari direlako, edo finantzaketaren bila ari direlako, ekimen horiek martxan jarri ahal izateko.
- Gainera, jarraipenari eta ebaluazioari esker, identifikatu ahal izan da ea aldaketarik egin den Planean aurreikusitako ekimen kopuruan, eta **ekimen bat gehitu dela ikusi da, 2016ko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen deialdiaren egituratze berriari dagokiona**. Hori dela eta, "4. Mota. Proiektu Estrategikoak" ekintzak gehitu zaizkio Planean aurreikusitako ekimenen zerrendari. Horrenbestez, **85 ekimen daude, guztira, 2016rako**.

- Ebaluazioaren emaitzen arabera, aurreikusitako **ekimenen %88 jarri dira martxan; horrek esan nahi du 75 ekimen gauzatu direla eta 5 ekimenen deialdiak ez direla egin 2016an (%6).**
- Ez dira egin 5 ekimenen deialdiak (%6), baina aurreko urteetako deialdien ordainketak egin dira. Gainerako %6a diseinatzeko edo berdiseinatzeko fasean eta/edo finantzaketa bilatzeko zain dauden 5 ekimeni dagokie. Hauek dira ekimen horiek: Leader, Erein  eta Mikrokredituen programak, gazteen itzulerarentzako babesa eta enpresa-zerbiztuak garatzeko lankidetza-hitzarmenak.
- Hurrengo orrialdean, zehatzago azaltzen da analisi hau.



## EKIMENEK 2016/12/31n DUTEN EGOERAREN LABURPENA

**75 ekimen daude martxan.** Horien artean, hauek dira nabarmenenenak edo berrienak**:**

- Hezibi. Txandakako Prestakuntza Profesional Duala.
- Lehen Aukera, gazteentzako lehen lan-esperientzia.
- Gazte talentudunentzako laguntza: Global Training bekak eta Nazioartekotze Bekak (BEINT).
- Ekintza berritzaileak gazteentzako enplegurako prestakuntzan (Hitzarmena Gestamekin).
- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen programa.
- Elkarlana enplegatze-agentziekin, lan-munduan sartzen laguntzeko osoko jarduketak egiteko.
- Ekintzaileentzako laguntza Ekintzailetzako Tokiko Proiektuen barruan.
- Gizarte-ekintzailetza: gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza osoa.
- Langileen kapital sozialean parte hartuz zailtasunak dituzten enpresak berriro finantzatzera bideratutako kapital funtsa (Lanpar Funtsa)
- Renove Etxebizitza.

**5 ekimen daude diseinatzeko edo birdiseinatzeko fasean** edo finantzaketa bilatzeko zain**:**

- Gazteen itzuleraren babesa.
- Enpresa-zerbitzuak garatzeko lankidetza-hitzarmenak.
- Mikrokredituen Programa.
- Leader Programa (araudi berria).
- Erein Programa (araudi berria).

**5 ekimen hauen urteko deialdiak ez dira atera:**

- Inbertsiorako Finantza Laguntzen programa (IFL).
- Gazteentzako estatu arteko mugikortasun-programa.
- MiniConnect programa.
- Gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesua.
- Gaztenek programa (orain foru-aldundien mende dago).

Txosten honen 5. puntuan, zehatz-mehatz adierazten da ekimen bakoitzaren egoera.

# 5- 2016an GAUZATUTAKO EKIMENEN JARRAIPENA ETA DESKRIBAPENA

# 1. Ekintza-programa
# ETEak eta Tokiko Garapena sustatzea

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.1 Inbertsiorako Finantza Laguntza (IFL)*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Inbertsioa Finantzatzeko Laguntzen programa industria-, merkataritza- eta turismo-arloko ETEak laguntzeko eta finantzatzeko tresna integratua da, eta, horri esker, inbertsioak merkatuko ahalik eta baldintza onenetan egin daitezke, finantza-erakundeekin izenpetutako hitzarmenen bitartez.

Akordio horiek eragiketen finantza-kostua murrizten dute, ETEen ibilgetu ukiezin eta material berrien inbertsioa eta zirkulatzailea finantzatzeko asmoz mailegu-eragiketa eta finantza-errentamenduei aplikatutako interes-tasetarako hobaria emanez.

2016an ez da deialdirik egin, eta aurreko urteetako deialdietan egin gabe gelditu ziren ordainketak ordaindu dira.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

| | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 346.100€ (aurreko urteetako deialdietatik egin gabe zeuden ordainketak) |

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Ez da eraginik izan, 2016an ez baita deialdirik egin.

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.2 Bideratu*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Bideratu berregituratze-prozesuan dauden industria-proiektuak berriz bultzatzera bideratuta dago. Horretarako, luzera begira eta interesik gabe itzuli beharreko aurrerakinak ematen dira, krisian dauden enpresek beraiek egindako berregituratze-planetan dauden neurriak gauzatzea sustatzeko, proiektu bideragarriak, gizartearen adostasuna oinarri dutenak eta jabearekin kostuak partekatzekoak badira.

Krisian dauden ETEek planean dauden berregituratze-neurrien kostu osoaren %50era arteko aurrerakin itzulgarriak lor ditzakete, 500.000€-ra bitarteko gehieneko mugarekin, eta proportzio bereko ekarpena egin beharko diote finantzaketari beren baliabideekin, enpresak irauteko beharrezkoak ez diren aktiboak salduz edo merkatu-baldintzetan lortutako kanpo-finantzaketaren bitartez.

Deialdia 2016ko abuztuaren 1eko Aginduaren bitartez arautu zen, 2016ko irailaren 7ko 170 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 28an amaitu zen. Espediente bat kudeatu da, baina ez da onetsi.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 575.000€ (aurreko urteetako deialdietatik egin gabe zeuden ordainketak) |
| **Mobilizatutako Baliabide Pribatuak** | - |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak finantzatuz (pertsonak)** | Ez da eraginik izan, ez baita espedienterik onartu |
| **Dauden enpresak** | |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.3 Luzaro BEI*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ogasuna eta Ekonomia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Luzaro sozietatea Eusko Jaurlaritza, Kutxabank, Banco Sabadell, Laboral Kutxa, Bankoa eta ENISA (Empresa Nacional de Innovación) erakundeen artean sortu zen, eta horren helburua da partaidetza-kredituak ematea, ETEen inbertsioa eta finantza-berregituratzea sustatzeko. Finantzaketa-hitzarmen bat du Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB), ETEentzako inbertsio-proiektuak eta kapital zirkulatzaileen proiektuak finantzatzeko. Horretarako, lehiakortasuna indartzeko behar dituzten epe ertainera eta epe luzera begirako funtsak emango zaizkie.

Horri esker, ETEek 1.000.000 eurora arteko finantzaketa lor dezakete (salbuespen gisa 1.500.000 eurora arte), aktibo materialak (lursailak izan ezik) eta aktibo materiagabeak erosteko inbertsioetarako eta bi urtez baino gehiagoz erabiltzeko kapital zirkulatzaileetan inbertsioak egiteko. Halaber, Euriborra gehi 0,4 eta Euriborra gehi 2,8 arteko bitartean dagoen interes-tasa ordainduko dute, 10 urteko epealdian gehienez, eta 5 urtera arteko gabealdia eskura daiteke, mailegu parte-hartzaileen kasuan, eta 7 urteko epealdia (10 urtera arte luza daitekeena) eta 3 urtera arteko gabealdia finantza-finkapeneko maileguen kasuan.

2015eko abenduaren 16an, urtero bezala, egokitu egin dira Finantza Lankidetzaren Hitzarmeneko 2016. urterako prezioak, deialdia urte osoan irekita egon ondoren.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Mobilizatutako Baliabide Pribatuak** | 12.812.280€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak finantzatuz (pertsonak)** | 1.805 |
| **Dauden enpresak** | 34 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.4 Finantza-erakundeekin hitzarmena, ETEen eta Autonomoen finantzaketa indartzeko*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ogasuna eta Ekonomia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Hitzarmen hau Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat finantza-erakunderen artean izenpetu zen, eta finantza-erakundeak, Administrazioak bermeak eskaintzearen bitartez, finantzatzeko modu berri bat arautzea da. ETEen eta pertsona autonomoen finantzaketa modu berri bat erraztea da, aktibo finko edo zirkulatzailea eskura dezaten. Akordio horren bitartez, partekatutako arriskuen bidezko abalak emango dira. Bertan, operazio bakoitzaren %60 Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain, eta gainerako %40a finantza-erakundeek.

Hori gauzatzeko, 750.000 eurora bitarteko maileguak emango zaizkie ETEei eta 100.000 eurora bitartekoak norbanako eta profesional autonomoei, Euriborraren interes-tasari gehienez ere %1,25 gehiago gehituta. Amortizazio-plana hiru hilean behingoa edo sei hilean behingoa izango da, eta epea 3 do 5 urtekoa hautazko urte bateko gabealdiarekin, edo 7 urtekoa, hautazko 2 urteko gabealdiarekin.

2016ko otsailaren 17an aldatu egin zen finantzaketa-lerroaren kostua eguneratzen zuen Hitzarmena. Murriztu egin zen Euribor gehi 2,5 interes-tasa, eta Euribor gehi 1 edo 1,25 interes-tasa ezarri zen, aukeratzen zen epearen arabera, hurrenez hurren: 3, 5 edo 7 urte. Guztira, 9 erakundek sinatu dute hitzarmena (Kutxabank, Caixabank, Banco Santander, Bankinter, Banco Sabadell, Bankoa,  Targobank, Caja Laboral Kutxa eta Caja Rural de Navarra).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Mobilizatutako Baliabide Pribatuak** | 3.575.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak finantzatuz (pertsonak)** | 416 |
| **Dauden enpresak** | 16 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.5 ETEen eta autonomoen zirkulatzailearen finantzaketa Funts Osagarria*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ogasuna eta Ekonomia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Funts honen helburua da enpresa txikiei eta ertainei, norbanako enpresariei eta langile autonomoei bankuen finantzaketa lortzen laguntzea, zirkulatzaile-beharrizanei erantzuteko, epe laburreko zorra berritzeko eta epe laburreko zorra epe ertain eta luzera egokitzeko.

2016rako programa otsailaren 16ko 21/2016 Dekretuaren bitartez arautu zen (2016ko otsailaren 24ko 37 zenbakiko EHAA), eta programaren barruan, lankidetza-hitzarmen bana sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Elkarren eta maileguen Elkarren Bermerako Sozietateen (ELKARGI EBS eta OINARRI EBS) eta beste 9 finantza-erakunde laguntzaileren artean (Kutxabank, Caixabank, Banco Santander, Bankinter, Banco Sabadell, Bankoa, Targobank, Caja Laboral Kutxa eta Caja Rural de Navarra). Eragiketa horien interes-tasa Euriborrari 1 edo 1,25 gehituta izango da (hautatutako epeak 3,5 edo 7 urte diren, horren arabera) eta maileguen zenbatekoa 50.000 eta 650.000 euro artekoa izango da enpresa txiki eta ertainentzat eta 5.000 eta 100.000 euro artekoa norbanako enpresari eta langile autonomoentzat.

Funts hau ezohiko osagarri bat da Elkarren Bermerako Sozietateekin (ELKARGI EBS eta OINARRI EBS) sinatu diren finantzaketarako ohiko hitzarmenentzat. Hitzarmen horiek 858 eragiketa formalizatu ahal izan dituzte 2016an; guztira, 137.851.692€. Hitzarmen horiei esker, gehienez ere 2.000.000€-ra arteko inbertsio- eta zirkulatzaile-eragiketak finantzatu daitezke erakunde bakoitzarentzat.

Deialdia Ogasuna eta Finantza sailburuaren 2016ko otsailaren 26ko Aginduaren bitartez arautu da, eta 2016ko martxoaren 14ko 50 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea 2016ko abenduaren 31n amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Mobilizatutako Baliabide Pribatuak** | 11.361.646€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak finantzatuz (pertsonak)** | 1.481 |
| **Dauden enpresak** | 58 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.6 Zailtasunak dituzten enpresak ekonomia sozialeko enpresa bihurtzeko bideragarritasun-ikasketetarako aholkularitza*** |
| **ARDURADUNA** | *Lana eta justizia* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programaren asmoa da honako ezaugarri hauek dituzten sozietate anonimoen edo mugatuen ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterlana egitea: galera-maila handia, negozio-bolumenaren murrizketa, izakinen gehikuntza, ahalmen handiegia, autofinantzaketarako marjina gordina murriztea, gero eta zorpetze handiagoa, finantza-gastuen igoera eta aktibo garbia ahultzea edo desagertzea. Horren helburua da gizarte-ekonomiaren alorreko enpresak sustatzea. Horretarako, bideragarritasun-ikerketaren kostu garbiaren %70era arteko diru-laguntza bat ematen da; gehienez ere, 3.000 euro ikerketa bakoitzeko.

Deialdia 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko uztailaren 14ko 134 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 21.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtuz (pertsonak)** | 100 |
| **Dauden enpresak** | 7 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.7 Langileen kapital sozialean parte hartuz zailtasunak dituzten enpresak berriro finantzatzera bideratutako kapital-funtsa (Lanpar Funtsa)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanpar Funtsa arrisku-kapitaleko funts bat da, langileei enpresen kapitalean parte hartzeko prozesuetan laguntzeko sortutakoa. Helburua da enpresa berriak sotzen laguntzea, ondorengotza-prozesuak erraztea eta parte-hartze eredu baten oinarrituz enpresa horiek garatzen eta finkatzen laguntzea.

Funts horretan parte hartzeko aukera duten enpresak honako hauek dira: negozioak aurrera egin ahal izateko bazkideak aldatzea pentsatzen ari diren sozietateak; sortu berri diren sozietateak, bereziki kideen ezagutzan oinarritzen direnak; zailtasunak dituzten enpresak, zeinetan langileek negozioarekin jarraitzea erabakitzen baitute jabetza euren gain hartuz; eta euren filosofia dela-eta langileek parte hartuz edo parte-hartze prozesu sakonen bitartez enpresa-masa zabaltzea nahi duten ETE enpresak.

Funtsak bi inbertsio-modalitate hartzen ditu kontuan: a) kapital sozialean, langileen kolektiboak batera egiten duen diru-ekarpenaren arabera, 100.000 eta 500.000 euro arteko inbertsio-ingurunearekin. Funtsaren partaidetzak ez du inola ere ondoriozko kapital sozialaren %30 gaindituko; B) partaidetza-maileguan, langileen diru-ekarpenen arabera, 100.000 eta 500.000 euro arteko inbertsio-ingurunearekin. Era berean, Funtsak aukera ematen du zuzenbidea, finantza-egoeren analisia eta interpretazioa eta partaidetza-kudeaketaren filosofia eta sistema arloak jorratzen dituen partaidetzari buruzko prestakuntza-programa bat egiteko eta enpresa-eredua aldatzeko laguntza gisa tutoretza bat izateko.

Funts hau Eusko Jaurlaritzaren (Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila eta Enplegua eta Gizarte Politikak Saila) eta ASLEren partaidetzari esker sortu dira. Sorrerako zuzkidura 2013an egin zen, 2.500.000 eurokoa (2.000.00 euro Eusko Jaurlaritzak jarri zituen eta 500.000 euro ASLEk). Funtsa 2014tik aurrera dago erabilgarri, eta ekitaldi horretan 1.000.000 euro gehitu zizkion Enplegua eta Gizarte Politika Sailak.

2016an, 2 kontsulta berri jaso dira, eta horietan oinarrituz eragiketa eraginkor bat eskatu da. Azkenean ezetsi egin zen eskaera hori, eta ez zen Inbertsio Batzordeak baloratzera iritsi.  Hortaz, funtsaren jarduera 2015eko deialdiko enpresa baten finantzaketa mantentzea izan da.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK |
|---|
| Funtsak 3.500.000€-ko ondare harpidetua du 2016/12/31n, eta 500.000€-ko partaidetza-zorroa (eragiketa hau 2015ean onartu eta formalizatu zen) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ondorengotzaren bitartez (pertsonak)** | Enpleguan izandako eragina 2015ean finantzatutako enpresari dagokio. 2016an ere finantzaketa horri eutsi zaio |
| **Dauden enpresak** | |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.1.8 Aurrezki pribatua bideratzeko neurri fiskalak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ogasuna eta Ekonomia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen helburua da Foru Aldundiekin lankidetza gauzatzea, aurrezki pribatua euskal ETE eta autonomoetara eta lanpostu berriak sortzeko ahalmena duten start-up-etara bideratzeko aukera emango duten zerga-pizgarriak abian jartzeko. Zerga-neurriak 2013an Araba eta Bizkaiko lurralde historikoetako Batzar Nagusietan eta 2014ko urtarrilean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietan onetsitako Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) eta Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauetan daude.

-37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (13/12/27ko 148 zenbakiko ALHAO).

-33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, Arabako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (13/12/09ko 140 zenbakiko ALHAO).

-11/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Bizkaiko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (13/12/13ko 238 zenbakiko BAO).

-13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Bizkaiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (13/12/13ko 238 zenbakiko BAO).

-3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (14/01/22ko 13 zenbakiko GAO).

-2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko zergari buruzkoa (14/01/22ko 13 zenbakiko GAO).

Foru-arau horiek guztiak 2014ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean, eta indarrean daude oraindik 2016an.

Aurrezki pribatua bideratzeko zerga-neurrien barruan, honako aldaketa hauek ezarri dira Zerga Araudian:

a) **PFEZ**ean:

-Enplegua sortzen duten eta balio gehigarria duten enpresa-proiektuen garapena sustatzeko eta sortu berri diren enpresen parte diren eta zergak ordaintzen dituzten pertsona fisikoetatik eratorritako funtsak lortzen laguntzeko, hiru lurraldeetan txertatu da hurbileko inbertitzailearentzako edo “business angels”-entzako %20ko kenkaria (Araba eta Bizkaiko PFEZ Foru Arauaren 90. art, Gipuzkoako PFEZ Foru Arau proiektuaren 89.bis art). Egindako aldaketak:

-Araba: 20/2014 FA, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait foru zerga-arauren zuzenketa teknikoena(ALHAO, 72. zk., ekainaren 27koa).

- Bizkaia: 3/2014 FA, ekainaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbait foru zerga-arauren zuzenketa teknikoena (BAO, 114. zk, ekainaren 17koa).
- Gipuzkoa: 18/2014 FA, abenduaren 16koa, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAri, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZren gainekoari, zuzenketa teknikoak eta bestelako zerga-aldaketak egitekoa (GAO, 242. zk, abenduaren 19koa).

- Lan-sozietateak arautzen dituzten arau partikularrak kontuan hartuta eta fiskalitatea ez dadin oztopo bat izan sozietateek aurrera jarraitzeko eta belaunaldi-aldaketa bat egiteko, araubide espezifiko bat ezarri da aipatutako lan-sozietateetako lan arloko ekintzen edo partaidetzen transmisioan nabarmendutako ondare-irabaziak eta -galerak zehazteko:

- Araba: 15/2015 FA, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait zerga arau aldatzekoa (ALHAO, 130. zk., azaroaren 6koa).
- Bizkaia: 3/2015 FA, martxoaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zenbait foru-arau aldatzen dituena (BAO, 46. zk., martxoaren 9koa).
- Gipuzkoa: 18/2014 FA, abenduaren 16koa, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAri, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZren gainekoari, zuzenketa teknikoak eta bestelako zerga-aldaketak egitekoa (GAO, 242. zk., abenduaren 19koa).

b) **Sozietateen gaineko Zerga**n:

- Ekintzailetza sustatzeko erreserba (53.2d artikulua): Enpresa-proiektu berri bat garatzeko lehen fasean edo ondorengoetan eta hazteko aukera duen mikroenpresa eta ETEetako kapitalean parte hartzearen bidezko inbertsioa, inbertitzaile pribatu informal edo *business angels* deiturikoen bidez. Zerga-oinarriaren zenbatekoaren %45 ere murritz daiteke, erreserbara atxikitzen diren irabaziengatik (mugekin).
- Beste erreserba batzuk: Enpresak kapitalizatzea bultzatzeko neurriak txertatzea, berezko funtsak hazi eta zorpetzera jotzeko beharra murriztea oinarri duten egituren trataera hobetzearekin lotuta (51. eta 52. art.). Egindako aldaketak:

- Araba: 20/2014 FA, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait foru zerga-arauren zuzenketa teknikoena (ALHAO, 72. zk, ekainaren 27koa).
- Bizkaia: 3/2014 FA, ekainaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbait foru zerga-arauren zuzenketa teknikoena (BAO, 114. zk, ekainaren 17koa).
- Gipuzkoa: 17/2014 FA, abenduaren 16koa, urtarrilaren 17ko 2/2014 FAri, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZren gainekoari, zuzenketa teknikoak eta bestelako zerga-egokitzapenak egitekoa (GAO, 242. zk, 14-12-19) / 2/2014 FA, abenduaren 22koa, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga arloko aurrekontu-luzapenaren helmena zehazteko (GAO, 248. zk, abenduaren 30ekoa).

- Ikerketa- eta garapen-proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea. “Zergadun inbestitzaileek” beste zergadun batzuek eginiko I+G+B proiektuen finantzaketan parte hartzea sustatzen du, betiere horietan ezarritako kenkarietarako eskubidea sortzeko baldintzak betetzen badituzte, eta kuota likidoa kentzeko eskubidea izango dute. (Sozietateen gaineko Zergaren FAen 64bis art):

- Bizkaia: 2017tik aurrera, 5/2016 FA, uztailaren 20koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuen arloko zenbait aldaketa onartzen dituena (BAO, 114 zk., uztailaren 29a).
- Gipuzkoa: 2016tik aurrera, 5/2016 FA, azaroaren 14koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauko zerga-aldaketa jakin batzuk onartzen dituena (16-11-18ko GAO).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|---|
| Neurri hauek ez dute aurrekontu zuzenik. | Ez da eragina zenbatu, zailtasunak izan direlako neurri hauek martxan jartzeak enpleguan izan duen benetako eraginari buruzko datua lortzeko. |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.2.1 Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen helburua da merkataritza-banaketaren sektorearen profesionalizazioa hobetzeko behar diren baldintzak sortzen laguntzea, merkataritza arloan profesionalak prestatzeko bekak emanez. Bekak 32 urtetik beherako gazteentzat dira, eta bertan sartzen dira honako hauek: merkataritza-banaketa zuzentzeari eta kudeatzeari buruzko prestakuntza espezifikoko 180 orduko ikastaro bat eta 12 hilabeteko praktikak Merkataritza Dinamizazioko Bulego batean edo merkataritza-banaketarekin lotutako beste erakunde batean. Beka bakoitza 15.000 eurokoa izango da.

Deialdia 2011ko ekainaren 15eko aginduaren bitartez arautu zen (ekainaren 28ko 122 zenbakiko EHAAn argitaratua), eta 2014ko ekainaren 18ko Aginduaren bitartez aldatu zen (ekainaren 27ko 121 zenbakiko EHAAn argitaratua). 2016ko maiatzaren 18ko 93 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 30ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 348.350€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehen lan-esperientzia** | 26 (12 gizon eta 14 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.2.2 Merkataritza-saltokiak modernizatzeko (MSM) laguntza.*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Merkataritza-saltokiak modernizatzeko (MEC) programaren xedea da merkataritza-saltokiak modernizatzeko inbertsio-proiektuak sustatzea, eraberritzeko egiteko behar diren merkataritza-ekipamenduak, obra zibila eta altzariak finantzatuz.

Horretarako %15etik %20ra arteko diru-laguntza itzuliezinak emango dira. Diru-laguntzaren zenbatekoa honako hauen araberakoa izango da: lokala, altzariak edo ekipamendua eraberritzeko edo modernizatzeko den, edo informatika ekipoetarako, aplikazioetarako edo horien osagarrietarako. Diru-laguntzen ehunekoak 2 eta 5 puntura arte areagotu daitezke enpresak kalitatezko ziurtagiria edo enpresa-bikaintasunaren ziurtagiria badu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako elkarlanerako erakunde gisa aitortua badago eta elkarteren bati lotuta badago. Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa 12.000 eurokoa da saltokiko eta urteko.

Deialdia 2014ko ekainaren 25eko aginduaren bitartez arautu zen (uztailaren 2ko 124 zenbakiko EHAAn argitaratua), eta 2015eko ekainaren 24ko Aginduaren bitartez aldatu zen (ekainaren 26ko 119 zenbakiko EHAAn argitaratua). 2016ko martxoaren 4ko 44 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.341.693€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 3.493 |
| **Dauden enpresak** | 1.149 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.2.3 EIKTak ETEetan txertatzea.*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da ETEen barne-prozesuak eta euren bezeroekin, hornitzaileekin eta administrazioekin dituzten harreman-prozesuak digitaliza daitezen sustatzea, Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (EIKTak) erabiliz, euren lehiakortasuna errazteko eta finkatzeko. Horretarako 2 programa erabiltzen dira: «Basque Industry 4.0» eta «Industria Digitala»; industria da sektore onuraduna.

«Basque Industry 4.0» programak “teknologia-hornitzaileek” manufaktura-industrietara egiten dituzten teknologia-transferentzia proiektuak laguntzen ditu, Fabrikazio Aurreratuari aplikatutako EIKTen arloan. Gastuen %40 finantzatzen dute (gehienez ere 150.000 euro proiektuko), honako kontzeptu hauengatik: hornitzailearen lana, laguntza eta aholkularitza eta industria-jabetza lortzea eta hardware eta softwarea. Proiektua elkarlanean egitekoa bada, proiektuaren %40 finantzatzen da, enpresako 150.000 euroko mugarekin eta elkarlan-proiektuan parte hartzen duen enpresa-multzoarentzako 300.000 euroko mugarekin.

«Industria Digitala» programak EIKTak manufaktura-industrian ezartzeko proiektuekin lotutako aholkularitza-, ingeniaritza-, hardware- eta software-gastuetan laguntzen du. Proiektuaren kostuen %30 (enpresa ertainen kasuan) eta %50 (mikroenpresa eta enpresa txikien kasuan) artean finantzatzen du. Gehienez ere 18.000 euro aholkularitza eta ingeniaritzari dagokionez, 5.000 hardwarearen kasuan eta 5.000 euro softwarearen kasuan.

Bi programen araudiak 2016ko martxoaren 22an onetsi zituen SPRIren Administrazio Kontseiluak, eta programen deialdia 2016ko apirilaren 7ko 65 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. «Industria Digitala» programarako eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 16an itxi zen, eta «Basque Industry 4.0» programarako irailaren 23an.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.370.486€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 13.344 |
| **Dauden enpresak** | 280 |

| EKIMENA | *1.2.4 Kalitate-ziurtagiriak merkataritzan* |
|---|---|
| ARDURADUNA | *Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Merkataritza-banaketaren sektoreko berrikuntza- eta bikaintasun-ekimen honen helburua da merkataritza-enpresen kudeaketaren eta berrikuntzaren hobekuntza sustatzea eta merkataritza-sektoreko enpresen lehiakortasunerako tresnak sustatzen eta zabaltzen laguntzea. Horretarako, bi laguntza-lerro handi proposatzen dira: bata, merkataritza-banaketako enpresetako Kudeaketa Aurreraturako, eta, bestea, Merkataritzari buruzko Ezagutza, Berrikuntza eta Lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko.

Kudeaketa Aurreratuaren programaren helburua da merkataritza-banaketako enpresa txikien kudeaketa hobetzeko plan bat diseinatzea, haren lehiakortasuna hobetze aldera. Horretan oinarrituz, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Euskalit-Bikaintasunerako Euskal Erakundearekin, programa hori 250.000€-ko zuzkidurarekin finantzatzeko.

Merkataritzaren Ezagutza, Berrikuntza eta Lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko laguntza-programaren helburua da sustatzea enpresa-berrikuntza eta -lehiakortasuna zabaltzeko eta hobetzeko eta merkataritza-sektoreko negozio-joera berriak ezagutarazteko jarduerak egitea.

Horretarako, hainbat ikastaro egiten dira, merkatariek eta langileek ekonomia eta kudeaketa aldetik euren saltokiaren benetako egoera zein den jakin dezaten eta, hala, euren enpresaren egoera hobetzeko behar diren jarduketak egin ditzaten. Horrez gain, eta ikastaroez gaindiko osagarri praktiko gisa, jardunaldi tekniko batzuk antolatzen dira, batez ere sektoreko beste eragile batzuen esperientziak ezagutzeko. Hizlariak kontratatzeak eta jarduera sustatzeak eta jardueraren euskarria editatzeak eta dokumentatzeak sortzen dituzten gastuen %80 finantzatzen dute laguntzek. Gehienez ere 7.000 ematen da urteko laguntza-eskaeraren helburu diren jarduera guztietarako.

Deialdia Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuneko Sailburuaren 2015eko irailaren 20ko Aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko otsailaren 17ko 32 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 290.666€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 614 |
| **Dauden enpresak** | 202 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.2.5 Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lehiakortasun turistikoa sektorean aberastasuna eta enplegua sortzeko elementu gisa sustatze aldera, Euskadiko jomugen erakargarritasuna eta kalitatea bultzatzeko programak garatzen parte hartzen duten enpresak lagunduko dira, fluxu turistiko berriak dinamizatuz eta sortuz. Programa hauek lankidetza turistikoko erakundeek kudeatzen dituzte, eta langileen gastuak ere sektore turistikoko laguntza hauen esparruan laguntzen dira diruz.

Laguntzen zenbatekoak jomugen erakargarritasuna hobetzeko (produktu turistikoak sortzea, abiaraztea, sustatzea eta merkaturatzea; eta aldi baterako teknikariak kontratatzea) proiektuen %50 estaltzen du gehienez ere. Erakunde bakoitzari 66.500€ ematen zaio gehienez, eta langileak kontratatzeko ezin da 25.000€ baino gehiago erabili. Jomugen kalitatea berrikuntzaren bitartez eta turismo jasangarri eta arduratsu bat garatuz hobetzeko proiekuen kasuan, berriz, laguntzek proiektuaren kostuaren %50-%70 estaltzen dute, erakundeko gehienez ere 30.000€.

Deialdia apirilaren 20ko aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko maiatzaren 3ko 82 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 3an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.280.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 2.627 (1.160 gizon eta 1.467 emakume) |
| **Dauden enpresak** | 778 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.2.6 Enpresa turistikoak modernizatzeko eta hobetzeko laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea da turismo-enpresei laguntzak ematea, teknologia-berrikuntzak (IKTak barne) kudeaketa- eta merkaturatze-prozesuetan ezartzeko, azpiegiturak eta zerbitzuak modernizatzeko eta eskaintza turistikoa Euskadiren turismo-irisgarritasunaren eredura egokitzeko.

Horretarako, itzulgarriak ez diren diru-laguntzak emango dira, eta zenbatekoa jarduketa motaren arabera aldatuko da: inbertsio garbiaren %25 IKT tresnak garatzeko eta ezartzeko (gehienez ere 9.000€); inbertsio garbiaren %25 ostatu turistikoetako establezimenduetan haririk gabeko konektagarritasuna hobetzeko (gehienez ere, 15.000€); inbertsio garbiaren %20 negozio-eredu berriak edo produktu edo/eta zerbitzu turistikoen eskaintza berriak sortzeko (gehienez ere, 18.000€) zerbitzuak; inbertsio garbiaren %30 eskaintza turistikoa modernizatzeko eta hobetzeko (gehienez ere, 30.000€); inbertsio garbiaren %30 arte establezimenduak irisgarritasunaren araudira egokitzeko (gehienez ere, 15.000€); eta gastuaren %70 arte kalitatea eta ingurumen-kudeaketa egiaztatzen duten ziurtagiriak lortzeko eta berritzeko (gehienez ere, 6.600€).

Deialdia apirilaren 6ko Aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko apirilaren 11ko 67 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 13an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 698.191€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 2.617 (1.227 eta 1.390) |
| **Dauden enpresak** | 176 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.1 Leader*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Leader programak landa-ekonomia dibertsifikatzeko eta landa-eremuetako bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzak ematen ditu, besteak beste, Landa Garapen Jasangarriko Programaren esparruan mikroenpresak sortzen, garatzen edo modernizatzen lagunduz eta landa-eremuko biztanleen enpresa-izaera eta -gaitasuna sustatuz.

Mikroenpresak sortzeari dagokionez, honako hauetatik eratortzen diren gastuak ordaintzen lagunduko da: obra-proiektua eta –zuzendaritza; urbanizazio- eta eraikuntza-obretako egikaritze materiala; eta makineria, lanabesak, altzariak, informatika- eta komunikazio-ekipoak eta beste azpiegitura batzuk erostea. Garapenari eta modernizazioari dagokionez, helburu horretarako inbertsio materialen edo immaterialen inbertsioetan lagunduko da. Oro har, emandako laguntzen ehunekoa gastu hautagarrien %70era artekoa da.

2015ean, aldaketa orokor bat izan zuen Europako araudiak nekazaritza eta landa-garapenaren arloan, eta, azkenen, maiatzean onetsi zen 2020ko Landa Garapenerako Programa berria. Hori dela eta, berriro aldatu behar izan ziren aurretik ematen ziren laguntzak.

2016an, Leader programa berriaren lehenengo deialdia abiaraztea aurreikusita zegoen, 2015-2020ko Landa Garapenerako Programaren babesean; hala ere ezin izan zen abiarazi; izan ere, programa hori kudeatzeko Tokiko Ekintzako Talde arduraduna 2016ko urriaren 6ko ebazpenaren bitartez hautatu zen. 2017ko otsailerako aurreikusita dago dagokion deialdiaren agindua argitaratzeko estaldura emango duen Esparru Dekretu berria onartzea.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2016an ez da deialdirik atera, eta ez zegoen aurreko urteetako deialdietako ordainketarik egiteko. |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | Ez du eraginik izan, 2016an ez delako deialdirik egin |
| **Dauden enpresak** | |
| **Enpresa berriak** | |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.2 Erein*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Erein programaren xedea da landa-eremuetan sustapenari eta garapenari lotutako jarduerak eta inbertsioak finantzatzen laguntzea, eremu horietan enplegua sortuz. Laguntza horiek honako hauei zuzenduta daude: alde batetik, inoiz lanposturik izan ez edo aurretik zuten lanpostua galdu duten pertsonak besteren kontura kontratatzen dituztenei, eta, bestetik, jarduera independenteak sortzen dituztenei, hau da, langile autonomoak txertatzea sustatu edo gizarte-ekonomiako araubide juridikoan (besteak beste, lan-elkartuko kooperatibetan) txertatzen diren enpresei.

2015ean aldaketa orokorrak egin ziren nekazaritzaren eta landa-garapenaren arloko Europako araudian, eta, aldaketa horiek egin ondoren, 2015-2020ko Landa Garapenerako Programa berria onetsi zen. Hori dela eta, aldatu egin ziren orain arte ematen ziren laguntzak, eta egokitzeko trantsizio-egoera horren ondorioz, ezin izan da deialdi berririk egin 2016. urtean.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2016an ez da deialdirik atera, eta ez zegoen aurreko urteetako deialdietako ordainketarik egiteko. |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Ez du eraginik izan, 2016an ez delako deialdirik egin |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.3 Itsaspen*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Itsaspen programari esker, itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzea bultzatzen da, biztanleriaren oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko, eta kostaldeko herriak biziberritzen eta berritzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko, enpresak eta autoenplegua sortuz, zabalduz eta zaharberrituz, besteak beste. Enpresak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko laguntzak itsasoarekin eta arrantzarekin lotutako mikroenpresa berritzaileentzat eta/edo IKTetan oinarritutakoentzat daude pentsatuta, susperraldian diren sektoreen alde apustu egiteko.

2015ean aldaketa orokorrak egin ziren nekazaritzaren eta landa-garapenaren arloko Europako araudian eta, aldaketa horiek egin ondoren, 2015-2020ko Landa Garapenerako Programa berria onetsi zen. Hori dela eta, aldatu egin ziren orain arte ematen ziren laguntzak eta, aurreikuspenen arabera, 2017an amaituko da prozesua.

2016an, oraindik programa berregituratzen amaitu aurretik, deialdi bat egin zen otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babesean, 2016ko maiatzaren 11ko aginduaren bitartez (maiatzaren 20ko 95 zenbakiko EHAAn argitaratu zen). Hala ere, deialdi horretan produktiboak ez diren laguntza-ildoak baino ez dira sartu, hau da, ekimen publikoz eginikoak, ez dutenak diru-sarrerarik sortzen eta ez daudenak enplegua sortzeari lotuta.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 347.116€ (aurreko urteetako deialdietatik egin gabe zeuden ordainketak) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Ez du enpleguan eraginik izan, 2016an produktiboak ez diren laguntzen deialdiak baino ez baitira atera, hau da, enpleguari lotuta ez daudenak |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.4 Landa-eremuetako ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa berri hau, 2015ean abiarazitakoa, Europako araudi berrian eta 2015-2020ko Landa Garapenerako Programa berrian sartzen da, eta xede du Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan enplegua mantentzen edo areagotzen lagunduko duten eta nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko inbertsioetan laguntzea. Bi laguntza mota handi daude.

−Alde batetik, nekazaritza-sektorearen dibertsifikazioa eta mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen osaketa- eta garapen-jarduerak bultzatzen dituzten jarduerak lagunduko dira, inbertsioen eta gastuen %30 eta %80 artean finantzatuz, betiere inbertsioak ez badira nekazaritzako elikagaien produktuak ekoiztera, eraldatzera eta merkaturatzera bideratzen. Laguntzek barne hartzen dute higiezinak eraikitzeko, erosteko eta zaharberritzeko, makineria, ekipoak, tresnak, altzariak, ibilgailuak, programa informatikoak, patenteak, lizentziak erosteko eta proiektuari lotutako ikasketentzako inbertsioen eta gastuen %30 eta %80 artean.

−Beste alde batetik, enplegu garbia sortzeko proiektuak lagunduko dira kontratazioarekin lotutako kostuak diruz lagunduz. Sortutako lanpostu bakoitzeko 6.160€ emango dira gehienez ere.

Deialdia maiatzaren 18ko Aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko maiatzaren 31ko 102 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaitu zen. Ebazpena 2016ko abenduaren 30ean egin zen, eta denera 2.393.682€ eman ziren: 1.982.084€ ekonomia-jarduera dibertsifikatzeko eta enpresak sortzeko eta garatzeko eta 411.598€ enplegu garbia sortzeko. Ordainketak 2017an egingo dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.178.020€ (aurreko urteetako deialdietatik egin gabe zeuden ordainketak) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 88 |
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 80 |
| **Dauden enpresak** | 22 |
| **Enpresa berriak** | 68 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.5 Garapen eta Ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Beka hauen helburua da gazte ikertzaile eta teknologoen prestakuntza sustatzea honako arlo hauetan: zientifiko-teknologikoa, merkatuak, eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektorean marketina eta enpresa-antolakuntza. Horrez gain, sektore horretarako lehentasunezkoak diren gaietan tituludunak diren gazteek horren inguruko prestakuntza eta espezializazioa jaso dezaten sustatu nahi da, doktoretza-tesiak eginez edo ikerketako, garapen teknologikoko eta berrikuntzako proiektuak eginez. Proiektuak ikerketa-zentroetan eta enpresa pribatuetan egiten dira.

Laguntzak bi programaren bidez ezartzen dira:

-Prestakuntzan dauden ikertzaileak: ondoz ondoko 4 urterako bekak, urtean 16.330 eurokoak bekak irauten duen epean, eta urtean 2.000 euro arteko laguntza osagarri bat doktoretza-ikastaroetan izena emateko eta kongresuetara eta lan-jardunaldi eta antzekoetara bertaratzeko.

-Teknologoak: ondoz ondoko 2 urterako bekak, urtean 12.000 eurokoak, eta urtean 1.000 eurora arteko laguntza osagarri bat.

Deialdia 185/2007 Dekretuaren bitartez arautu zen, eta irailaren 21eko 180 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 22an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 781.430€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 16 (5 gizon eta 11 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***1.3.6 Gaztenek – Gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko programa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gaztenek ekimenaren xedea da nekazari gazteak nekazaritzaren sektorean sar daitezen eta bertan manten daitezen sustatzea eta jada nekazaritza-jardueran dabiltzan gazteei jarduerari eusten laguntzea. Programak gazteak nekazaritza-sektorean ustiapen berri baten bidez lehen aldiz ezartzea lagunduko du, hark erretiratutako norbait edo aldez aurretik jarduera eten duen norbait ordezkatzen badu edo aurretik zegoen ustiapen batera bazkide modura txertatu bada. Programak, halaber, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen du.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko Dekretuak (uztailaren 8ko 133/2008) arautzen ditu laguntza hauek. 2014. urtera arte, Eusko Jaurlaritzak eta 3 aldundiek elkarrekin sustatzen zuten programa hau, baina 2020ko Landa Garapenerako Programa berriak ez du Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen; hortaz, aldundien mende dago orain erabat.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 108.076€ (aurreko urteetako deialdietatik egin gabe zeuden ordainketak) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Gaztenek programak ez du eraginik; izan ere, 2016tik aurrera foru-aldundien mende egongo da |

# 2. Ekintza-programa
# Ekintzailetza sustatzea

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.1.1 Ekintzailetzaren Legea garatzea: Ekintzailetzaren Erakunde Arteko Mahaiaren lanak gauzatzea.*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

2014ko maiatzaren 14an, Ekintzailetzaren Erakunde Arteko Mahaia osatu zen, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legean (ekainaren 28ko 16/2012) ezarritakoa betetzeko. Erakunde Arteko Mahaia 2013-2016ko Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Plana (EJLEAP) betetzen dela bermatzen duen organoa da, eta organo horrek egiten du planaren ebaluazioa eta jarraipena ere. Mahaiak izaera politiko/teknikoa du, eta Ekintzailetza jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planean parte hartzen duten erakunde bakoitzeko ekintzailetzaren arloko arduradun politikoek eta teknikoek osatzen dute. Mahaia, oro har, 2 edo 3 aldiz biltzen da urtean.

Bertan, Planaren jarduketa-eremu estrategikoekin bat zetozen hainbat lantalde eratu ziren: Ideiak eta Aukera Berriak; Hazi Kapital Funtsa; Ekintzailetzaren Kultura eta Balioak; Barneko Ekintzailetza; Sinplifikazio Administratiboa; Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (EBZ) Berrantolatzea; Adierazleak ezartzea eta horien jarraipena egitea.

2016an, EJLEAPen azken urtean, Mahaia hiru aldiz bildu da: otsailaren 12an, maiatzaren 31n eta urriaren 21ean, hurrenez hurren. Lehenengo mahaian, otsailekoan, 2013an eginiko lanen berrikuspen kuantitatibo eta kualitatibo bat egin zen, 2014an Legebiltzarrean aurkeztutako Planaren 2014ko Balantze Txostenean oinarrituta. Bigarren mahaian 2016rako irekitako lan-ildoen aurrerapen-maila berrikusi zen, eta garrantzi berezia eman zitzaion zerga-sistema hobetzeko neurriak aztertzeari. Horrez gain, 2015eko Balantze Txostenerako ondorioak berrikusi ziren. Azkenik, hirugarren mahaian, urrikoan, 2015ean definitutako lan-ildoen aurrerapena eta ekintzailetza-adierazleen bilakaera aztertu zen, eta 2017rako lehentasunak definitu ziren, baita Euskadiko ekintzailetzaren etorkizunari buruzko hausnarketa egin ere, Ekintzailetza Plan berria definitze aldera.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Ez dago aurrekontu zuzenik.

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Ekimen honen eragina ez da zuzenean enpleguan eta enpresetan izandako eraginaren arabera zenbatzen; izaera kualitatiboa du, Ekintzailetzaren Erakunde Arteko Mahaiak urtean egiten dituen bileretan oinarritutakoa.

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.1.2 Bizkaiko DEMA programa (sentsibilizazioa)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua DEMA Enpresa Garapena agentziarekin aritu da elkarlanean, Bizkaiko gazteen artean enplegua sustatzeko, bereziki langabezia-tasa handia den lekuetan. Programa hau ekintzailetza sustatzera dago bideratuta. Horretarako, ideia da hezkuntza-sisteman ekintzaile-gaitasunak lantzea, gaur egungo haurrak eta gazteak etorkizunean euren enpresa-proiektuen lider bihur daitezen.

2016ko Ekintza Plana definitzeko unean, asmoa zen 2016an DEMA programa Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa bakarrik izatea. Hala ere, 2016ko Ekintza Planaren Kontseiluak 2016ko uztailaren 27an erabaki zuzen Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena onartzea, 2016an programa hau finantzatzen laguntzeko, eta hitzarmen hori dela eta, lankidetzazko esparru-hitzarmen bat sinatu zen 2016ko urriaren 14an Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean.

Hitzarmen horren harira, 177 ekintzailetza-tailer egiten lagundu da (37 zentrok eta 2.435 pertsonak hartu dute parte), bai eta100 enpresa-proiektu garatzen ere.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 406.211€ |

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Programak enpresak sortu aurreko ekintzak laguntzen ditu; hortaz, ez da horien zuzeneko eragina zenbatzen.

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.1.3 Ekintzaileletzari laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroen (EBZ) bitartez*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (EBZ) egitasmo ekintzaileak merkatura sartzen lagundu eta bideratzen dituzte. Lehentasuna ematen diete egitasmo berritzaileei eta oinarri teknologikoa dutenei, kultura ekintzaile bat sortze aldera. Sozietate horiek EAEko hainbat lekutan daude banatuta, eta honako zerbitzu hauek ematen dituzte: proiektuak hautemateko eta martxan jartzeko zerbitzua, bideragarritasun-planak egiteko aholkularitza-zerbitzua, enpresa-prestakuntza emateko zerbitzua eta azpiegiturak lortzeko zerbitzua, enpresa berriak baldintza onuragarrietan koka daitezen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.167.851€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| 177 ekintzaileletza-programa onetsi dira, eta 106 enpresa berri sortuko dituztela aurreikusten da |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.1 Langabezia kapitalizatzea enplegu autonomoa sortzeko*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbideren programa honen helburua da 1994ko apirilaren 13ko Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Aginduan (1044/1985 Errege Dekretuko 4.2 artikuluan xedatutakoaren arabera) aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea. Diru-laguntza horiek langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dira.

Hartara, langabeziatik datorren enplegu autonomoa sortzen lagunduko da, Autonomoen gutxieneko kuotaren %50 edo langileak Gizarte Segurantzan ordaindu behar duen kuotaren %100 ordainduz. Autonomoen Erregimenari dagokion hobariaren gehieneko zenbatekoa 4,43€/egun izango da onuradun bakoitzeko (132,90€/hilabete 30 eguneko hilabeteetan eta 137,33€/hilabete 31 eguneko hilabeteetan) eta iraupena kapitalizatutako denbora izango da. Erregimen Orokorrari dagokionez, langileen Gizarte Segurantzaren %100 deskontatuko zaio langileari nominan, zenbatekoa edozein dela ere.

Honako kolektibo hauek izan daitezke programa honen onuradunak: modu egonkorrean kooperatiba edo lan-sozietateetan lan-bazkide modura txertatzeagatik laguntzak jaso dituztenak, autonomo modura alta emanda dauden gazte eta %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak, eta 30 urte baino gutxiago izan eta jasotako laguntza sortu berri den merkataritza-erakunde edo merkataritza-erakunde berri bateko kapital sozialera bideratzen dutenak, betiere izaera mugagabeko lan-jarduera garatzen badute.

Deialdia Lanbideko Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko martxoaren 16an eginiko bileran, eta 2016ko martxoaren 18ko 54 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 459.136€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 595 |
| **Enpresa berriak** | 595 |

| EKIMENA | *2.2.2 Enpresa-ideia bat garatzeko laguntzak, ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan* |
|---|---|
| ARDURADUNA | *Lanbide* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauek ekintzaile izan daitezkeen 30 urte edo gehiagoko pertsonentzat dira, tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan enpresa-ideia bat sortzen, aztertzen eta egituratzen aritu daitezen soilik. Horrez gain, aholkularitza- eta laguntza-ekintzak egiten dira, ekintzailetzarekin lotutako gaitasunak eta trebetasunak lortzeko.

Programa honetan parte hartzen dutenek konpromisoa hartzen dute soilik euren enpresa-ideia aztertzen eta garatzen aritzeko eta euren enpresa-ideia sortzeko eta garatzeko antolatzen diren aholkularitza- eta laguntza-ekintza guztietara bertaratzeko. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 1.000 eurokoa da sustatzaile bakoitzeko (1.150 euro emakumea bada), eta jarduketek 3 hilabetekoak izan behar dute gutxienez.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an eginiko bileran, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 27an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa | 125.050€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak) | 115 (37 hombres y 78 mujeres) |
| Enpresa berriak | 115 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.3 Enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzak (tokiko ekintzailetza-proiektuak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauen helburua da 30 urte edo gehiagoko ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzea, enpresa-proiektu edo negozio hori martxan jartzeko behar diren tutoretza- eta laguntza-ekintzen bitartez. Proiektu horiek enpresa edo negozio berri bat ezartzeko enpresa-bideragarritasuneko plan bat izan behar dute tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan. Jarduketek 3 hilabetekoak izan behar dute.

Programa honetan parte hartzen dutenek konpromisoa hartzen dute enpresa martxan jartzen soilik lan egiteko, enpresa finkatzeko aholkularitza- eta laguntza-ekintza guztietara bertaratzeko eta tutoretza- eta laguntza-prozesua amaitu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko, negozioa martxan jarri ahal izateko. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa da proiektuko (1.725 eurokoa sustatzailea emakumea bada).

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an eginiko bileran, eta 2016ko apirilaren 15ko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 27an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 139.847€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 106 (41 gizon eta 65 emakume) |
| **Enpresa berriak** | 106 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.4 Enpresa-jarduera hasita proiektua sendotzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauek 30 urte edo gehiagoko ekintzaileek eginiko enpresa-proiektu berriak egonkortzeko ematen dira, pertsona horiek enpresa-jarduera bat hasi eta proiektua egonkortzeko laguntza behar badute.

Laguntzaren barnean sartzen da enpresaren promozio-, funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuak (komunikazioa, publizitatea eta merchandisinga; webguneen eta sare sozialen diseinua; zerga-, lan-, kontabilitate-, lege- eta administrazio-aholkularitza; eta enpresa martxan jartzearekin lotutako prestakuntza-ikastaroak) eta Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Araubide Bereziari dagozkion 6 hilabeterako kotizazio-kostuak. Laguntzen gehieneko zenbatekoa pertsonako 2.500 eurokoa da (2.875 euro emakumea bada).

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an eginiko bileran, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 14an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.339.806€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/ egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 685 (336 gizon eta 349 emakume) |
| **Dauden enpresak** | 670 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.5 Bizkaiko DEMA programa (mikroekintzaileetzak laguntzea)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak DEMA Enpresa Garapena agentziarekin lan egiten du, aukeragatik zein beharragatik mikroekintzaileetza lan-munduan sartzeko eta enplegua sortzeko aukera gisa ikusten duten pertsonen artean ekintzaileetza sustatzeko. Horretarako, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua ematen da, proiektu berrien bideragarritasuna aztertzeko, negozio-planak egiteko eta enpresa berriak abian jartzeko.

2016ko Ekintza Plana definitzeko unean, asmoa zen 2016an DEMA programa Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa bakarrik izatea. Hala ere, 2016ko Ekintza Planaren Kontseiluak 2016ko uztailaren 27an erabaki zuzen Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena onartzea, 2016an programa hau finantzatzen laguntzeko, eta hitzarmen hori dela eta, lankidetzazko esparru-hitzarmen bat sinatu zen 2016ko urriaren 14an Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean.

Hitzarmen horren harira, 1.188 kontsultari erantzun zaie, eta 561 bideragarritasun-plan diseinatzen lagundu da.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa** | 406.211€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 463 |
| **Enpresa berriak** | 386 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.6 Mikrokredituen Programa.*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da mikrofinantzaketan adituak diren erakundeekin hitzarmenak egitea, mikroekintzailetzek behar duten finantzaketa lor dezaten, finantzaketaren bermeak (proiektuaren bermea) eta kostua onartzeko modukoak izanik. Horrez gain, mikroekintzailetzen finantzaketa- eta laguntza-aukera horien berri ere eman nahi du, aukera hori baliatzeko. 2014an egin zen programaren lehen deialdia, eta 4 erakunderekin (Kutxabank, Laboral Kutxa, La Caixa eta Caja Navarra) sinatu ziren lankidetza-hitzarmenak.

Programa honetako finantzaketa-eragiketak maileguzkoak zein finantza-errentamenduzkoak izan daitezke, eta sortu berri diren enpresak abian jartzeko behar diren aktiboak (Kontabilitateko Plan Orokorraren 210-219 kategorietan daudenak) eskuratzeko hasierako inbertsioa finantzatzeko erabili behar dira. Mailegu eta finantza-errentamendu horiek 50.000 eurokoak dira gehienez ere pertsonako (ezin dute proiektuaren inbertsioaren %95 gainditu); 5 urteko epea dute gehienez ere (6 hilabeteko hasierako gabealdia barne, maileguetan) eta UTBren %5eko interes-tasa aplika daiteke gehienez ere (komisio eta gastu guztiak barne). Azpimarratu behar da kasu batean ere ez dela bermerik edo abalik eskatzen eta ez dela azterketa- edo irekiera-komisiorik ezartzen. (2015eko azken deialdiko datuak).

Diru-laguntzaren zenbatekoak finantza-eragiketari aplika dakiokeen interesaren eta ekintzaileek ordaindu beharreko interes-tasa efektiboaren (%2) arteko aldearen baliokidea izan behar du. Zenbateko hori maileguaren eta finantza-errentamenduaren hasierako kapitalaren amortizazioari aplikatuko zaio, eta interes-tasaren hobaria ezingo da izan eragiketa gauzatu zaion interes-tasa baino handiagoa.

2016an programaren bigarren deialdia egiteko asmoa zegoen, eta aldaketa batzuk egin nahi ziren programaren alderdi batzuetan, esaterako, gehieneko interes-tasa aplikagarria edo diru-laguntzaren zenbatekoa (2015ean ez zen deialdirik egon). Hala ere, arazo batzuk egon dira programa gauzatzeko, eta, ondorioz, ezin izan da programa abiarazi, eta pentsatu da egokiagoa dela programaren diseinuari buruzko hausnarketa bat egitea, hurrengo urteetara begira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | Ez da deialdia egin |
| **Mobilizatutako Baliabide Pribatuak** | |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | Ez du eraginik izan, 2016an ez delako deialdirik egin |
| **Enpresa berriak** | |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.2.7 Belaunaldi-aldaketa programa*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honek mikroenpresetan, ETEetan eta autonomoetan kudeaketa edota jabegoaren ondorengotzari buruzko hausnarketa-prozesuak laguntzen ditu. Horrez gain, prozesu horiek modu ordenatuan egitea du helburu, enpresen jarraipena, eta, beraz, lanpostuei eustea bermatzeko. Horretarako, SPRIk «Ondorengotza enpresa txiki eta ertainean» programa abian du.

Programaren helburua da enpresetan ondorengotza modu ordenatu eta planifikatuan egiten laguntzea, horren garapen eta jarraipena bermatzeko eta ahalik eta lanpostu gehienei eusteko. Horretarako, diru-laguntzak ematen dira kanpoko aholkulariak kontratatzeko, haiek arduratuko baitira enpresaren kudeaketa, gobernu eta jabegoari buruzko aurretiazko diagnostikoa egiteaz eta ondorengotza-protokoloa egin eta ondoren formalizatzeaz, baita protokoloa abian jarri eta aldizka berrikusteaz ere. Diru-laguntzen zenbatekoa aholkularitza-gastuen %30 da, eta gehienez 1.000 euro diagnosirako, 10.000 euro protokolorako eta 4.000 euro laguntzarako bideratuko dira.

Deialdiaren araudia SPRIren  2013ko martxoaren 22ko Administrazio Kontseiluan onetsi zen, eta 2013ko apirilaren 24eko 78 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Deialdia irekita egon da urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 55.140€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, belaunaldi-aldaketan lagunduz (pertsonak)** | 307 |
| **Dauden enpresak** | 11 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.1 Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea. Basque Funtsa*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Basque Funtsa 2014an jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak, sortu berri diren enpresak (gehienez ere 5 urte dituztenak) sustatzeko inbertsio-tresna publiko gisa. 5 milioi euroko hornidura du; kapitalarekiko partaidetzaren eta/edo partaidetza-maileguen konbinazio bat da, eta funtsaren helburua da Ekintzaile programan parte hartu duten industria-sektoreko enpresa berritzaile berriei garapen- eta egonkortze-faseetan laguntzea.

Funtsak bi tarte ditu, ibilbidearen urrats ezberdinetan dauden proiektuen beharrei erantzun ahal izateko. I. tartearen bidez, enpresa sortzea erabaki eta berehalako une delikatuetan finantzatzen lagunduko dute; II. tartea, berriz, harago doa eta ondorengo hazkuntza-urratsetan finantzaketa baldintzak hobetzen lagunduko du.

Hala, I. tartean Funtsaren ekarpena enpresako sustatzaileek kapital sozialean duten ekarpenaren bikoitza izan daiteke, 100.000 euroko gehieneko mugarekin. Partaidetza-maileguak 7 urtekoak dira (2 urtez kapitala ordaindu beharrik ez), eta Euribor + %1,25 interes-tasa dute. II. tartean, funtsaren ekarpena 300.000€ eta 400.000€ artekoa izan daiteke gehienez ere, proiektuaren hazteko gaitasunaren arabera, edo 150.000€-koa gehienez ere, IKTekin lotutako proiektuen kasuan. Partaidetza-maileguek I. tarteko baldintza berak dituzte.

*Oharra: Enpresek funts horretarako sarbidea izateko Ekintzaile programaren onuradun izan behar izan dute; hortaz, eraginari dagokionez, aintzat ematen da lehendik zeuden enpresei laguntza ematen zaiela eta enpleguari eusten laguntzen dela.*

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

2016an zehar 10 proiektu finantzatzen dira. Eragiketa horiek egiteko, 899.997€ behar dira.

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

| | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, enpresak finantzatuz (pertsonak)** | 44 |
| **Dauden enpresak** | 10 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.2 Ekintzaile*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekintzaile programaren helburua da industria-izaera berritzailea duten enpresa-proiektu berrietarako edo lotutako zerbitzuak finantzatzea. Proiektu horiek Enpresa eta Berrikuntza Zentro batek babestutakoak izango dira, eta ideia umotzeko zein enpresa abian jartzeko erabiliko da laguntza. Babes hori bi laguntza motaren bidez emango da:

-Ideia umotzeko prozesuan pertsona edo talde gidariari lagunduko zaio, eta enpresa-plana egiten ere, harik eta ideia hori abian jarri arte. Itzuli beharrik gabeko laguntza honek aholkularitza/laguntza-gastuen %100 ordaintzen du, 30.000 euroko gehieneko mugarekin.
-Enpresa abian jartzeko egin behar dituen inbertsioetarako finantzaketa lortzen lagunduko zaio; horretarako, Luzarorekin sinatuko den hitzarmenarekin bat etorriz gauzatuko diren mailegu-eragiketen kostuak gutxituko dira. Maileguak 40.000€-tik 180.000€-ra artekoak izango dira, eta 6 hilabeterako Euribor interes-tasa gehi %1,25, 7 urtera arteko amortizazio-epea eta 2 urteko gabealdia izango dute.

-Deialdiaren araudia SPRIren 2014ko martxoaren 31ko Administrazio Kontseiluan onetsi zen, eta 2014ko apirilaren 14ko 72 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Deialdia irekita egon da urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.211.475€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 234 |
| **Enpresa berriak** | 78 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.3 Gauzatu industria*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gauzatu Industria programaren helburua oinarri teknologikoko ETEak nahiz ETE berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzea da, lehiakor izateko estrategia gisa, enplegua sortzeko inbertsioa lagunduz.

Laguntza hauek oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten enpresentzat dira, baldin eta proiektuek gutxienez 120.000 euroko inbertsioa badute eta gehienez ere 24 hilabetean enpleguak sortzen edo mantentzen badituzte. Aurrerakin itzulgarrien bitartez ematen dira laguntzok, eta helburua da enpresaren aktiboetara gehituko diren enpresaren gizarte-xedea osatzen duen jarduerarekin zuzeneko lotura duten aktibo finkoak eskuratzea. Laguntzen zenbatekoa lagunduko den inbertsioaren %35era artekoa izan daiteke, sortutako enplegu bakoitzeko gehienez ere 150.000€-koa, eta, denera, gehienez ere enpresako 1.500.000 eurokoa. Inbertsioak egitearen helburua, besteak beste, enplegua mantentzea bada, 100.000€-tik beherako aurrerakin itzulgarria emango da.

Deialdia 2016ko maiatzaren 11ko aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko maiatzaren 12ko 89 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 23an amaitu zen. 58 espediente kudeatu dira, eta horietatik 48 onetsi dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 11.347.371€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 566 |
| **Dauden enpresak** | 38 |
| **Enpresa berriak** | 10 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.4 Gizarte-ekintzailetza: gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza osoa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lana eta justizia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da gizarte-ekonomiako enpresak eratu eta sustatzen laguntzea. Alde batetik, gizarte-ekonomiako enpresak (kooperatibak eta lan-sozietateak) eratzeko jarduerak laguntzen dira, aurretik enpresa-jarduera zuten erakundeen eraldaketa-kasuak barne.

Laguntza honako baremo hauek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren %70 artekoa da:

-Bazkide langile finko berri bakoitzeko 3.000 euro, eta zenbait kasutan (emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak, etxeko indarkeriaren biktimak, etab.), 1.000 euro gehiago pertsonako.

-Erakunde onuradunak, gehienez, 30.000 euro.
-Ezin izango du inola ere gainditu erakundeko bazkide langileek harpidetutako kapitalaren guztizkoa.

Bestalde, horri dagozkion sustapen-ekintzak ere laguntzen dira, enpresa-kudeaketan ondorengo jarraipena eta doako aholkularitza barne. Horren helburua da enpresa sortu eta urtebeteko epean enpresen jarraitutasuna babestu eta mantentzea. Eratze-ekintzetarako kontuan hartutako zenbatekoaren gainerako %30 balio du laguntzak.

Deialdia 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko uztailaren 14ko 134 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.537.288€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 645 (442 gizon eta 203 emakume) |
| **Enpresa berriak** | 185 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.5 Gizarte-ekintzailetza: gizarte-ekonomiako enpresetan kide berriak lortzeko laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lana eta justizia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntza hauen helburua da enpresa mota horien sozietate-oinarria handitzea, etorkizuneko bazkide izan nahi duen erakundearen kapital sozialaren ekarpena ordaintzen laguntzeko. Kolektibo onuradunak langabeak, bazkide egiten diren enpresan besteren kontura lan egiten duten langileak eta desgaitasuna duten pertsonak dira. Programa honek 2.500 euroko diru-laguntza ematen du langabeak kontratatzeagatik, 1.500 euroko diru-laguntza besteren kontura lan egiten dutenak kontratatzeagatik eta 2.000 eurokoa desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzeagatik edo nekazaritza-kooperatibak sartzeagatik.

Deialdia 2016ko uztailaren 1eko aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko uztailaren 5eko 127 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 5ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 206.365€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 152 (78 gizon eta 74 emakume) |
| **Dauden enpresak** | 56 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.6 Gizarte-ekintzaileetza: gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegia*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lana eta justizia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegiak sortzea ezinbestekotzat jotzen da lurraldean gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen sustapen planifikatua gauzatzeko plan bat egiteko, garatzeko eta gauzatzeko. Gizarte-ekonomiako enpresa horiek lanaren partaidetzan, aberastasunaren sorrera eta banaketa ekitatiboan eta enpleguaren sorreran oinarrituko dira.

Programa honek jarduketaren eskumeneko lurraldean gizarte-ekonomiaren alorreko enpresak sustatzeko gastu orokorren %75 laguntzen du diruz (gehienez ere 30.000€). Horrez gain, eratu den enpresa-proiektu bakoitzaren jarduketa-planerako aurreikusi diren gastuen %75 ere finantzatzen du (gehienez ere 9.000€ bakoitzeko). Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa bakoitzak gehienez ere 70.000€ jaso ditzake.

Deialdia 2016ko uztailaren 8ko Aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko uztailaren 14ko 134 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 210.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 81 (33 gizon eta 48 emakume) |
| **Enpresa berriak** | 24 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***2.3.7 Ekintzailetza estrategikoen inguruko Miniconnect programa*** |
| **ARDURADUNA** | ***SPRI*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da industriaren (edo horri loturiko zerbitzuen) alorreko enpresa berritzaileek eta hazteko potentzial handia dutenek (gutxienez 10 lanpostu sortu beharko dituzte proiektua garatzeko epean) eta Enpresa eta Berrikuntza Zentro batek babestutakoek garatutako enpresa-proiektuak finantzatzea.

Laguntzak enpresa-proiektua abian jartzeko gastuak lagunduko ditu diruz, honako hauek barne: langileen gastuak, tresneria eta ekipamendua, lokalen alokairua, aholkularitza eta patenteen zerbitzuak, enpresa-prestakuntza eta berariazkoa, kanpoko aholkularitza eta laguntza teknikoa, azterketa- eta dokumentazio-lana eta azoketara edo bidaietara laguntzea. Laguntzok proiektuaren gastuen %100 ordaintzen dute, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 100.000 eurokoak izango dira.

2016an ez da deialdi berririk egin, eta aurreko urteetako deialdietan ordaindu gabe zeuden ordainketak egin dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 67.971€ (aurreko urteko deialdietatik egin gabe dauden ordainketak) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| MiniConnect programak ez du inongo eraginik izan, 2016an ez baita deialdirik egin. |

## 3. Ekintza-programa
## Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako bermea

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.1 Enpresa-ideia bat garatzeko laguntzak ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauek ekintzaile izateko asmoa duten 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteentzat dira, bete-betean jardun dezaten enpresa-ideia bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan. Aldi berean, ekintzailetzari loturiko gaitasunak eta trebetasunak barneratzeko aukera ere ematen du ekimen honek, aholkularitza- eta babes-jarduketen bitartez.

Programa honetan parte hartzen duten pertsonek hitzematen dute bete-betean jardungo dutela haien enpresa-ideia aztertzen eta garatzen, eta enpresa-ideia hori sortzeko eta garatzeko aholkularitza- eta babes-jarduera guztietan parte hartuko dutela. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa sustatzaileko 1.150€ da (1.300€, emakumeen kasuan), eta jarduketak gutxienez 3 hilabete iraungo du.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14ko bilkuran onetsi zuen deialdia, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 27an bukatu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 75.750€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 62 (29 gizon eta 33 emakume) |
| **Enpresa berriak** | 62 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.2 Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa-ekimen berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak gazteentzat*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauek 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazte ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzera eta sendotzera bideratuta daude, baldin eta gazte horiek ekintzaileentzako tokiko proiektuen esparruan enpresa edo negozio berri bat ezartzeko enpresako bideragarritasun-plan bat badute. Laguntza horrek barne hartzen ditu enpresa- edo negozio-proiektua martxan jartzeko tutoretza- eta laguntza-jarduerak, eta jarduera horiek 3 hilabeteko iraupena izango dute.

Programa honetan parte hartzen duten pertsonek hitzematen dute bete-betean jardungo dutela euren enpresa martxan jartzen, eta enpresa martxan jarri ahal izateko aholkularitza- eta babes-jarduera guztietan parte hartuko dutela. Horrez gain, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan izena eman beharko dute negozioa martxan jartzeko tutoretza- eta laguntza-prozesua bukatu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean. Laguntza hauen gehieneko zenbatekoa proiektuko 1.725€ da (1.950€, sustatzailea emakumezkoa bada).

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14ko bilkuran onetsi zuen deialdia, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 27an bukatu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 28.713€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 32 (16 gizon eta 16 emakume) |
| **Enpresa berriak** | 32 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.3 Enpresa-jardueraren bat hasi duten eta proiektua finkatzeko laguntza behar duten gazteentzako laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauek 18 eta 30 urte arteko gazte ekintzaileek eginiko enpresa-proiektu berriak egonkortzeko ematen dira, pertsona horiek enpresa-jarduera bat hasi eta proiektua egonkortzeko laguntza behar badute.

Laguntzaren barnean sartzen da enpresaren promozio-, funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuak (komunikazioa, publizitatea eta merchandisinga; webguneen eta sare sozialen diseinua; zerga-, lan-, kontabilitate-, lege- eta administrazio-aholkularitza; eta enpresa martxan jartzearekin lotutako prestakuntza-ikastaroak) eta Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Araubide Bereziari dagozkion 6 hilabeterako kotizazio-kostuak. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 2.875 eurokoa da pertsonako (3.250 euro emakumea bada).

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an eginiko bileran, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 14an amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 279.131€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, ETEen lehiakortasuna/egonkortasuna hobetuz (pertsonak)** | 167 ( 71 gizon eta 96 emakume) |
| **Dauden enpresak** | 158 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.4 Gaztenpresa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gaztenpresa ekimena Laboral Kutxaren ekimen bat da. Haren helburua da enplegua sustatzea eta enpresen sorkuntza bultzatzea da, eta, horretarako, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua eskaintzen da proiektuen bideragarritasuna aztertzeko, negozio-planak egiteko eta gazteek sustatutako enpresa-ekimen berriak abian jartzeko, baita finantzaketa bilatzeko ere. Gainera, online ekintzaileen sare sozial bat kontsultatzeko aukera ematen du, esperientziak partekatze eta informazioa trukatze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza Lanbideren Administrazio Kontseiluan onartu zen 2016ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bitartez, eta berau egikaritzeko aldia 2017ko uztailaren 1etik ekainaren 30era da.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 252.067€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 633 (335 gizon eta 298 emakume |
| **Enpresa berriak** | 346 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.5 Urrats bat*** |
| **ARDURADUNA** | ***Hezkuntza*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Urrats bat TKNIKAk koordinatutako programa bat da, lanbide-heziketako ikasleei euren enpresa sortzen laguntzeko; horrenbestez, ikastegiak enpresen mintegi edo inkubagailu bihurtzen dira. Programa erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako bigarren mailako ikasleentzat, ikastegietako ikasle ohientzat eta arautu gabeko ikastaroen edo aurrez aurrekoa ez den prestakuntzaren bitartez horiekin zerikusia duen edozein pertsonarentzat da. Ikastegi bakoitzak pertsona bat du enpresa-proiektuen sentsibilizazio-, dinamizazio- eta aholkularitza-lanak egiteko, eta sustatzaileari laguntzen dio enpresa sortzeko prozesu osoan.

2015-2016 ikasturtean 57 ikastegik parte hartu dute, 10.459 ikasle sentsibilizatu dira eta 210 enpresa-proiekturen tutoretza egin da. Programak 92 enpresari lagundu die sortzen (autonomo eta mikroenpresa gazteak), mikroETEn profila dutenak. Hasieran, 20.000€-ko inbertsioa egin da, urteko 50.000€-ko fakturazioa dute eta enpresa bakoitzeko 1,8 pertsonako tamaina dute batez beste.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.765.570€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, enpresak sortuz eta/edo handituz (pertsonak)** | 164 |
| **Enpresa berriak** | 92 |

| EKIMENA | *3.1.6 Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat* |
|---|---|
| ARDURADUNA | *Lana eta Justizia* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da gizarte-ekonomiaren arloan prestatzea, unibertsitatearen eta sozietatearen arloko hezkuntza-eragileek (unibertsitatearen, kooperatiben eta lan-sozietateen eta prestakuntza-zentroen arloekin lotutakoak) eginiko prestakuntza- eta hedatze-jardueren laguntzari esker.

Laguntza horren barruan daude hauek:

-Gizarte ekonomiako prestakuntza espezifikora eta berezitura bideratutako prestakuntza-jarduerak, kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko ezagutza izaten hasteko, hobetzeko edo kualifikatzeko, unibertsitatearen edo/eta sozietateen arloan; gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatzea eta abian jartzea unibertsitateko prestakuntzaren barnean, unibertsitatearen tutoretzapean; eta gizarte-ekonomiako sozietateen araudia garatzeko unibertsitate arteko ekintzak. Laguntzen zenbatekoa jardueraren kostu garbiaren %85 da; prestakuntza-jardueren kasuan gehienez ere 30.000€ emango dira erakunde onuradun bakoitzeko eta 5.000€ enpresak diseinatzeko eta abian jartzeko ekintzen kasuan.

-Kooperatiben eta laneko sozietateen eta aldian behin gauzatutako jardunaldien gaineko aldian behingo argitalpenak kaleratu eta ezagutarazteko jarduerak. Laguntzen zenbatekoa jardueraren kostu garbiaren %85ekoa izango da; argitalpenen kasuan gehienez ere 30.000€ emango dira erakunde onuradun bakoitzeko eta jardunaldien kasuan, 20.000€ euro.

Deialdia 2016ko uztailaren 1eko Aginduaren bitartez arautu zen, eta 2016ko uztailaren 5eko 127 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 5ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 386.635€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 1.000 (500 gizon eta 500 emakume |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.1.7 Junior kooperatibak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lana eta Justizia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honek forma juridikoa ematen dio hezkuntzaren alorrean kooperatibak sortzeari; izan ere, prestakuntza-jarduerak benetako lanak garatzearekin uztartzen dituzten gazteen ekintzaile-espiritua garatzea eta bideratzea du helburu. Junior kooperatibak gizarte-kooperatibak dira, eta bertako bazkideek, hau da, ikasleek, haien ikastetxeetan egindako ikaskuntza-jardueren bitartez barneratzen dituzten trebetasunak eta ezagutzak praktikan jartzen dituzte, ikasleek sortzen dituzten eskaintzak eta proiektuak merkatuan martxan jarriz.

Hasieran, kooperatiba berriak elkarte gisa eratzen dituzte ikasle-taldeek ikasturte hasieran. Aurrerago, programaren laguntzarekin, Elkarlaneko Junior Kooperatiba bilakatuko dira. Horiek, funtsean, prestakuntzaren bitartez bultzatzen dira; izan ere uste da horien izaera dela-eta, hezkuntzaren arloko kooperatiben antzekoagoak direla. Deialdia 2016ko uztailaren 1eko Aginduak arautzen du, eta 2016ko uztailaren 5eko 127 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 5ean amaitu zen.

*Oharra: 2013an, kooperatiba mota honentzako laguntzak martxan jarri zirenean, Junior kooperatibak elkarlanerako lankide-baltzuekin bateratu ziren. Ordudanik, ikusi da praktikan Junior kooperatibek antzekotasun handiagoa dutela hezkuntzaren arloko kooperatibekin, kooperatiba batzuk desegin eta likidatu egin direlako. Hori dela eta, etorkizuneko deialdiei begira, babesa prestakuntzaren lerrotik emateko aukera aztertzen ari dira. Ekintzailetzari dagokionez, gainerako kooperatibek eta lan-sozietateek jaso dezaketen babes berdina jasoko lukete; hau da, elkarlaneko lankide-baltzuak direnek eta horren arabera eratzen direnek bakarrik jasoko dute laguntza.*

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | Ez da finantzaketarik eman, ez delako eskaerarik egon. |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Ez da eraginik kuantifikatu, inork ez duelako laguntza hau eskatu. |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.2.1 Hezibi programa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide + Hezkuntza*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Prestakuntza eta Laneko HEZIBI programak txandakako prestakuntza profesionaleko eredu bat garatzen du, 16 eta 30 urte arteko lanbide-heziketako ikasle eta langabeentzat, lanbide-gaitasunak hobe ditzaten. Horretarako, profesionaltasun-ziurtagiri bat edo lanbide-heziketako titulu bat eskuratzen dute, enpresan ordainpean egiten duten lan-jarduerarekin txandakatuta. Horrela, langileek eskuratutako gaitasunak enpresen premietara egokitzen laguntzen du.

Programa honen biatan prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak egiten dituzten enpresek 2.000€-ko laguntza jasotzen dute urtero kontratu bakoitzeko. Kontratuak urtebete baino gehiago edo gutxiago iraunez gero, laguntza areagotu edo txikiagotu egiten da proportzionalki. Ikasle-langileek euren lan-jardunaldiari dagokion soldata jasotzen dute, praktiketako langileentzako sektoreko hitzarmenaren arabera, baina inoiz ez dute jasoko lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoa.

Deialdia (2012ko urriaren 3ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako eta Enplegua eta Gizarte Politiketako sailburuen Agindua) Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko maiatzaren 31n egindako bileran hartutako erabakiaren bitartez onartu zen eta 2016ko ekainaren 7ko EHAAn argitaratu zen (107. zk.). Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen.

2016an, 539 kontratu lagundu ziren diruz prestakuntza eta ikaskuntzarako, funtsean industria eta zerbitzuetakoak. Kontratuok urtebeteko iraupena izan dute oro har. Lan-jardunaldia, kontratu mota hauek eskatzen duten bezala, osoa izan da.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.020.549€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 539 (423 gizon eta 116 emakume) |

| | |
|---|---|
| EKIMENA | *3.2.2 Lan-zentroetako prestakuntza praktikoa* |
| ARDURADUNA | *Lanbide + Hezkuntza* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lan-zentroetan prestakuntza praktikoa ematearen xedea da lanbide-heziketako ikasleen prestakuntza sustatzea, ikasle horiek benetako ekoizpen-testuinguruetan aktiboki parte hartuz eskuratutako ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak praktikan jar ditzaten. Horrenbestez, lanbide-heziketaren eta ekoizpen-prozesuen benetako premien arteko bat-etortzea handiagoa izango da.

Programa hau lanbide-heziketako prestakuntza-ziklo guztietan garatzen da. Lan-zentroetan 3 hilabeteko prestakuntza praktikoa jasotzen dute, ikasturteko epealdi eta ordutegien barnean, irailetik ekainera. Asteko lan-jardunaldia 25-35 ordukoa da., eta ordu horietan, ikaslea enpresa batera joaten da lortu nahi duen lanbide-tituluaren berezko ekoizpen-jarduerak garatzeko.

2014ko eta 2015eko Ekintza Planetako urteko ebaluazioetan aurreratu zen moduan, orientazio-aldaketa bat egin da prestakuntza-ekintzen planteamenduan; asmoa da prestakuntza-ekintza guztiek praktika bat izatea atxikita, praktikok ordainduak izan ala ez. Horregatik, praktika horiek daude oraindik eta, hain zuzen, horietan 10.000 ikaslek parte hartu dute 2016an.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Ez dago aurrekontu zuzenik; izan ere, praktikaldiek ez dute hobaririk jasotzen. Hala ere, praktikaldiak antolatzen jarraitzen dugu.

## 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

| | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 10.000 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.3.1 Lehen Aukera (Gazte-enplegurako ekintza berritzaileak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

*Lehen Aukera* programa 2013an sortu zen, Lanbide Heziketako edo unibertsitateko titulua zuten ikasleei lan-mundura sartzen laguntzeko. Programaren helburua zen gaitasun profesional handiagoa ematea eta hezkuntzaren alorretik lan-mundura igarotzen laguntzea. 2014. urtean programaren fokua egokitu egin zen, gizarteko hainbat eragilek hala eskatuta, eta gazteak kontratatzeko laguntza bilakatu zen. Orduz geroztik, izaera horri eutsi dio.

Hartara, programak 16 urtetik gorako eta 30 urtetik berako gazte langabeak kontratatzea bultzatzen du, hain zuzen, Lanbiden lan-eskatzaile gisa inskribatutakoak eta unibertsitateko, lanbide-heziketako edo pareko titulua dutenak, eta lehentasuna ematen die Gazteentzako Bermea Sistemako datu basean identifikatutakoei. Babestutako kontratuak praktiketako kontratuak izan behar dute, gutxienez 6 hilabeteko iraupena dutenak, edo kontratu mugagabeak, lanaldi osoan edo partzialean (inoiz ez ezarritako lan-jardunaldia baino %70 txikiagoa), eta eginiko ikasketa- edo prestakuntza-mailaren arabera egokiak diren lanpostuetan. Halaber, enpresan enplegua sortu behar dute modu garbian kontratatutako pertsonak lanean hasi baino 6 hilabete lehenago.

Laguntzaren zenbatekoa kontratu motaren eta titulu akademikoaren araberakoa da, eta, nolanahi ere, 11.200-18.000€ arteko gutxieneko ordainsari gordina izan beharko dute urtean. 6 hilabeteko iraupena duen lanaldi osoko kontratu baten diru-laguntza 2.800-4.500€-koa da, eta 12 hilabeteko kontratuarena, berriz, 3.080-4.950€-koa. Kontratu mugagabeetan, diru-laguntza titulu akademikoaren araberakoa da; gutxienez, 5.200€ jasotzen dira kontratatu bakoitzeko, eta gehienez, berriz, 7.600€. Bi kasuetan, zenbatekoak %10 areagotzen dira emakumeak kontratatzean, ordezkaritza eskasa duten lanbideetan.

Gainera, zentro laguntzaileek eginiko lan-eskaintzak batzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko jarduerak lagunduko dira, programa horrek diruz lagun ditzakeen kontratuak formalizatzen badira. Zentrook laguntza hauek jasotzen dituzte dagokion eskaintza baten ondorioz bildu, erregistratu eta kudeatutako diruz lagundutako kontratu bakoitzeko: 120€ eskaintzak batzearen eta erregistratzearen kasuan, eta 80€ eskaintzak kudeatzearen kasuan. Zenbateko hori %10 areagotzen da arrakastaz kudeatutako 20 eskaintza bakoitzeko.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an hartutako erabakiaren bitartez, eta 2016ko apirilaren 18ko 72 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 21ean amaitu zen. Guztira, 454 enpresak 672 gazte kontratatu dituzte programa honen bitartez.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.756.650€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 672 (491 gizon eta 181 emakume) |
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 672 (491 gizon eta 181 emakume) |

*Oharra: 2015ean, aldatu egin zen Lehen Aukera Programak sortutako inpaktu mota; izan ere, deialdiak praktiketako edo mugagabeko lan-kontratuak bultzatu zituen; hortaz, kontratazioko zuzeneko pizgarrien bitartez sortu zen enplegua. Hori dela eta, 2015az geroztik, Programaren inpaktua lehen lan-esperientziatzat eta enplegu-sorreratzat hartzen da.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.3.2 Euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan tituludun gazteak kontratatzea*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da 34 urteko edo gutxiagoko langabeak edo aurretik lan-esperientziarik ez edo askorik ez dutenei lan-munduan sartzen laguntzea, haien ikasketekin zerikusia duten. Horretarako, euskal enpresek atzerrian dituzten lan-zentroetan praktikak egiteko kontratatzen dituzte, baita lan-zentro horietan ikaskuntza-aldi bat egiteko ere. Helburua da gazte horiei enpresen premietara egokitutako lan-esperientzia eta kualifikazioa eskuratzen laguntzea eta nazioartekotze-ahalegin handia egiten ari den EAEko enpresa-sarea babestea.

Praktiketako kontratu hauek laguntzen dira diruz: gutxienez 12 hilabeterako kontratuak, lanaldi osokoak, unibertsitateko, lanbide-heziketako edo pareko titulua duten gazteentzat, eta gutxienez 7-9 hilabeteko egonaldia bermatzen dutenak enpresarekin lotutako atzerriko lan-zentro batean. Soldataren eta Gizarte Segurantzaren gastuei aurre egiteko diru-laguntza honen zenbatekoa harrera-herrialdearen eta gaztearen prestakuntza mailaren araberakoa izango da: gehienez ere kontratuko 23.600€ (Arautuko Lanbide Heziketako Goi Mailako edo Erdi Mailako teknikaria edo ofizialki aitortutako titulu baliokidea eta profesionaltasun-ziurtagiria) edo 26.200€ (lizentziaduna, Unibertsitateko graduduna edo diplomaduna, ingeniaria edo arkitektoa); diruz lagundutako aldia ez da 12 hilabetekoa baino handiagoa izango. Horri gehitu behar zaio soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostuen %3ko osagarri bat pertsonako, bidaia-aseguruaren kontzeptuan, eta beste %4ko osagarri bat lanpostuan aritzeko administrazio-baimenaren edo bisaren kontzeptuan, horrelakoak eskatzen dituzten herrialdeetan.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2015eko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bitartez, eta 2015eko abenduaren 31ko 249 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 434.575€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 20 (12 gizon eta 8 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.3.3 Errelebo-kontratuak egiteko laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen horren xedea da enpresetako plantillak berritzea eta Lanbiden izena emanda dauden 30 urtetik beherako langabeen eta enpresa batean iraupen jakin bateko kontratua duten pertsonen enplegua sustatzea, bai eta enpresan praktiketako edo prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratu bat dutenena edo lanekoak ez diren praktikaldi bat amaitzen dutenena ere.

Horretarako, diruz lagunduko dira enpresek gazte-talde horrekin eginiko errelebo-kontratuak, baldin eta kontratuak lanaldi osokoak eta mugagabeak badira, edo, bestela, iraupen jakin batekoak izanez gero, hasieratik konpromisoa baldin badute aldi hori amaitutakoan edo lehenago kontratu mugagabe bihurtzeko. Halaber, errelebolari gisa kontratatutakoak gutxienez 12.000€-ko ordainsaria jaso beharko du urtero. Kontratu bakoitzeko diru-laguntza 6.000€-koa da.

2016an, beste deialdi bat egin da eta programako funtsak areagotu dira, 2015ean Gizarte Elkarrizketarako Mahaian hartutako konpromisoari erantzunez. Deialdi berri hori Lanbideren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2016ko apirilaren 14an hartutako erabakiaren bitartez, eta 2016ko apirilaren 15eko 71 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 21ean amaitu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 125.883€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 31 (22 gizon eta 9 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.3.4 Hitzarmenak unibertsitateekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin gazteei lan-munduan sartzen laguntzeko eta arreta emateko*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek lankidetza-hitzarmenak ezarri ditu Deustuko Unibertsitatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin, unibertsitate-ikasketetako azken urtea egiten ari diren edo unibertsitate-ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzen laguntzeko.

Unibertsitateekin lorturiko hitzarmen horien emaitza dira campusetan jarri diren enplegu-zentroak. Zentro horietan, ikasleek lana bilatzeari buruzko autokontsulta tresnak dituzte eskura, baita orientatzaile bat ere, lan-munduan sartzeko bideari eta hori egin ahal izateko tresnak erabiltzeari buruzko aholkua emateko. Halaber, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako informazio- eta orientazio-ekintzak ere egingo dira, ikasleek hobeto ezagutu ditzaten lan-mundua, bertan sartzeko mekanismoak eta horien funtzionamendua. Hitzarmen horiek honako helburu hau ere badute: artatutako pertsona guztien %10 inguru laneratzea, 3 hilabeteko, 6 hilabeteko edo iraupen luzeagoko kontratuekin.

Novia Salcedo Fundazioarekin egindako hitzarmenaren bitartez arreta ematen zaie 30 urte baino gutxiago dituzten eta unibertsitateko titulu bat zein goi-mailako lanbide-heziketako titulu bat duten gazteei. Gazte horiek laguntza eta orientazioa jasotzen dute, eta prestakuntza-ibilbideetan parte hartzen dute haien gaitasun teknikoak eta zeharkako gaitasunak lantzeko eta enpresa-mundura hurbiltzeko. Laguntza hori coaching tekniken bitartez egiten da, eta horren helburua da parte-hartzaileek beren garapen profesionalaren norabidea zuzentzea. Horrez gain, gazteen eta enpresen arteko lankidetza-sareak ere sustatu nahi dira, enpresen gizarte-erantzukizunetik abiatuz; horrela, elkarri laguntzeko eta elkarlanean aritzeko eredu bat eraiki ahalko da. Hitzarmen horrek honako helburu hau ere badu: artatutako pertsona guztien %20 inguru laneratzea, gutxienez 6 hilabeteko kontratuen bitartez 10 hilabeteko epean.

Lanbideren zuzendari nagusiaren 2016ko urriaren 28ko ebazpenak onetsi zuen Novia Salcedo Fundazioaren hitzarmena. Programa 2016ko azaroan jarri zen abian eta 2017ko urrira arte izango da indarrean. Lanbideren zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 16ko ebazpenak onetsi zuen unibertsitateen hitzarmenak. Programa 2016ko uztailean jarri zen abian eta 2017ko ekainera arte izango da indarrean.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 616.721€. |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 1.280 (535 gizon eta 745 emakume) |
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (kontratatutako pertsonak)** | 336 (140 gizon eta 196 emakume) |

*Oharra: Kontratutako 336 pertsonei aldez aurretik arreta eskaini zaie, hau da, arreta eskaini zaien 1.280 pertsonen artean daude. Planaren eragin orokorra kalkulatze aldera, eta ez bikoizteko, 944 pertsona hartuko dira aintzat enplegagarritasuna hobetzearen arloan eta 336 pertsona kontratatuen arloan.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.3.5 Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek laneko orientabide- eta laguntza-zerbitzu espezifikoak eskaintzen ditu gazteentzat. Horretarako, informatzeko, laguntzeko, motibatzeko eta aholkatzeko ekintzak eta neurriak garatzen ditu, pertsonaren baldintza profesionalak aintzat hartuta, beren gaitasunak eta interesak zehaztu ditzaten eta ikaskuntzako banakako ibilbidea kudeatu dezaten, lana bilatu edo enpresa-ekimenak praktikan jarri ahal izateko. Zerbitzu horrez gain, Lanbidek kudeatutako bulego mugikorrak ere eskaintzen dira.

Programa honek laguntza eskaintzen die lanaren eta autoenpleguaren arloko orientazio-zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeei, ezartzen diren ibilbide pertsonalizatuetatik abiatuz. Ekimen hori, eta 4.1.6 Lan-orientabide generikoa eta 5.3.5 Bazterketa-arriskuan dauden taldeentzako orientabide espezifikoa ekimenak, bi deialdi orokorretan kudeatzen dira. Hain zuzen, deialdi horiek laneko orientabiderako ekintzak eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen Aginduaren bidez erregulatzen dira.

2016an, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen jarraitu dute Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko urriaren 22an onartutako deialdien babesean (urriaren 23ko 202 zenbakiko EHAAn argitaratuak). Horrenbestez, 2016an 2015eko Lan-orientabide generikoa deialdiko ordainketak gauzatu dira (lehenengo ordainketak); Orientabide espezifikoko deialdikoak, aldiz, atzeratu egin dira 2017ra, horren gauzatze-epea 2016-2017 izan baita (bigarren ordainketak). Era berean, atzeratu egin da enplegu-zentroen deialdiaren eta eskaintzak kudeatzeko kontratua egitearen eta ondoren sinatzearen gauzatze-epea. Ondorioz, bi programen aurrekontu-gauzatzea 2017ra igaro da. Bulego mugikorren kontratua 2016an gauzatu da, aurreikusitako moduan.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

| | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.010.250€ |

*Oharra: zenbateko horrek batera zenbatzen ditu lanaren arloko orientazioaren deialdiaren zenbatekoa eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako enplegurako orientazioaren deialdiaren zenbatekoa. Zenbateko horren barruan, aurrekontuaren 1/3 bat gazteentzat da, beste 1/3 hartzaile orokorrentzat eta azken 1/3a baztertuta geratzeko arriskua duten kolektibokoentzat, Ardatzen eta Ekintza Programen araberako aurrekontuaren exekuzioa kalkulatu ahal izateko.*

## 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Guztira, 56.584 pertsonari eman zaie arreta (31.137 gizon eta 25.447 emakume)

*Oharra: ekintza honek aurretiko orientazio-izaera du, eta aurrerago 3.3 ardatzeko beste ekintza batzuekin osatuko da. Hori dela eta, zenbatu egiten da baina ez da kontsolidatuko Planaren ondore agregatuetarako.*

| | |
|---|---|
| | ***3.4.1 Nazioartekotze bekak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Beka hauen helburua da 30 urte baino gutxiago duten eta unibertsitate-titulua duten gazteak nazioartekotze-alorrean prestatzea. Horretarako nazioartean hedapena duten unibertsitate, enpresa eta organismoekin lankidetza sinatu da. Bekak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira, eta 3 fasetan antolatzen dira: 1) prestakuntza teorikoa espezializatua (Nazioartekotzean Unibertsitateko Adituaren Graduondoko Berezko Titulua Euskal Herriko Unibertsitatearekin); 2) 10-12 hilabeteko prestakuntza praktikoa nazioartekotzea publikoki bultzatzen duten erakundetan eta eskualdeko edo sektoreko beste garapen-erakunde batzuetan; eta 3) 8-10 hilabeteko praktika profesionala enpresa kolaboratzaileetan.

Faseak bereizitako modulutzat hartzen dira, eta horiek konbinatuz bi beka modalitate ateratzen dira: a) 1. fasea, graduondokoaren kostuaren %100 ordaintzeko laguntzarekin, eta 2. eta 3. faseak, elkarren artean 30.000-60.000€-ko laguntzarekin, helmugako herrialdeko eta hiriko bizi-mailaren eta helmugara sartzearekin lotutako beste kostu batzuen arabera; eta b) 1. eta 3. faseak, graduondokoaren kostuaren %100 ordaintzeko laguntzarekin, eta 12.000-30.000€-ko laguntzarekin helmugako herrialdeko eta hirietako bizi-mailaren eta helmugara sartzearekin lotutako beste kostu batzuen arabera.

2016an, programa arautzeko araudi berri bat garatu da (urtarrilaren 27ko Agindua, otsailaren 16ko 31 zenbakiko EHAAn argitaratua), eta urtero dagokion deialdiaren oinarriak ezartzen ditu. Araudi berriaren berritasun nagusietako bat da onuradunen adina 2 urtez luzatu dela.

Deialdi honetarako eskariak aurkezteko epea martxoaren 21ean bukatu zen. Enpresen nazioartekotzean adituaren UPV/EHUko berezko titulua lortzeko prestakuntza akademikoa, 1. fasea, ekainaren hasieran hasi zen eta urriaren erdialdera amaitu zen. 2. fasea 2016ko abenduan ebatzi zen eta helmugak 2017ko urtarrilaren lehen asteetan txertatu ziren.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.800.579€ |

| 2016/12/31an ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 100 (55 gizon eta 45 emakume) |

| INICIATIVA | *3.4.2 Global Training* |
|---|---|
| RESPONSABLE | *Desarrollo Económico e Infraestructuras* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Global Training bekak unibertsitateko edo lanbide-heziketako goi mailako ikasketak dituzten gazteentzat dira, eta atzerriko enpresa zein erakundeetan praktikak egiteko aukera ematen dute. Horren bitartez, EAEko gazteen nazioarteko mugikortasuna hobetu nahi da, haien profil akademiko eta profesionalarekin bat datozen jarduerak eta proiektuak gauza ditzaten atzerriko enpresa eta erakundeetan, aurrez planifikatutako prestakuntza praktikoaren plan bati jarraikiz.

Beka bakoitzaren iraupena 6 hilabetekoa da. Aurretik 40-60 orduko prestakuntza bat jasoko dute gazteek, atzerriko praktikaldia nola egin ikasteko, kulturarteko negozioazioan trebatzeko, komunikazio-teknikak lantzeko, talde-lanean aritzen ikasteko, inteligentzia emozionala garatzeko eta berritzen jakiteko. Bekaren zenbatekoa 1.358€ izango da hilean, eta bekak barne hartuko ditu, era berean, Euskaditik harrera-herrialderainoko bidaia, mantenua, etxebizitza, Gizarte Segurantzako kotizazioa eta, beharrezkoa balitz, bisak lortzeko ordaindu beharrekoa zein txertoak.

Deialdia 2014ko martxoaren 26ko Aginduaren bitartez arautzen da, eta Arau hori 2015ko apirilaren 1eko aginduak aldatzen du. Deialdia 2016ko otsailaren 26ko 39 zenbakian argitaratu zen. Erakunde parte-hartzaileek otsailaren 27a eta apirilaren 11 bitartean aurkeztu zituzten eskaerak, eta bekadunek, berriz, maiatzaren 30a eta ekainaren 30a bitartean.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.582.074€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | 400 (200 gizon eta 200 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.4.3 Nazioarteko mugikortasuna gazteen artean*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa hau ekimen aitzindaria da, eta helburu du TLN – Movility programaren barruan gazteentzako Europan zeharreko mugikortasun proiektuak garatzea.

34 urteko edo gutxiagoko gazte langabeentzat da programa, zehazki unibertsitateko titulua (lizentziaduna, graduduna edo dipomaduna; ingeniaria eta arkitektoa, baita teknikoa ere), lanbide-heziketako erdi- edo goi-mailako titulua, aurrekoen baliokidetzat ofizialki aitortutako beste titulazioren bat edo profesionaltasun-ziurtagiria dutenentzat. Onuradunek harrera-herrialdean lana zuzen egiteko beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak izan beharko dituzte, eta ezingo dute beteko duten lanpostuaren kotizazio-talde bereko lanpostu batean 6 hilabete baino gehiagoko lan-esperientziarik. Gainera, ezingo dira 5 urte baino gehiago igarota izan ikasketak amaitu zituztenetik.

2016an ez da programa honen beste deialdirik egin; izan ere, egokitzat jo zen programaren baldintzak berrikustea.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 175.892€ (aurreko deialdietan ordaindu gabe zeudenak) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Gazteentzako lehenengo lan-esperientzia (pertsonak)** | Ez da eraginik izan, 2016an ez baita deialdirik egin |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.4.4 Gazteak itzultzea bultzatzea*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea da nazioarteko lan-esperientzia bat bizi izan ondoren Euskadira itzultzen diren gazteei kalitatezko lan bat lortzen laguntzea. Programak, alde batetik, lagundu egin nahi die atzerrian eskuratutako esperientzia baliatuta haien lanpostua sortu nahi duten gazteei; beste alde batetik, Euskadira itzuli diren eta besteentzat lan egin nahi duten gazteei ere lagundu nahi die. Bai kasu batean bai bestean, prozesu osoan zehar laguntzea da ekimenaren asmoa, gaztea oraindik atzerrian bizi denetik hasita.

Une honetan, programa azterketa-fasean dago, eta hurrengo ekitaldietan jarriko da martxan, eskura dauden aurrekontuaren horniduren arabera.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | Ekimena diseinatzeko fasean dago |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Ekimena diseinatzeko fasean dago |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.4.5 Nazio Batuen proiektuak egiteko diru-laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Beka hauen xedea da Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeek herrialde pobretuetan dituzten garapenerako proiektuetan lankidetzan ari diren 35 urtetik beherako gazteei laguntzea. Ekimenean parte hartu nahi duten pertsonek egonaldia zein erakundetan egin nahi duten proposatzen dute, eta bekak erakunde horiei emango zaizkie. Beka bakoitza urtebetekoa da, oro har, baina beste urte batez luza daiteke.

2016an, bekaren oinarrizko zenbatekoa 18.000€ izan da (kooperazioan ari den gaztearen gastuak, aseguruak eta helmuga herrialdera joateko bidaia hartzen ditu barne), eta horri helmuga herrialdeko bizi-mailaren araberako osagarri bat gehitu behar zaio (gehienez ere 900€).

Laguntza hauek 22/2007 Dekretuak arautzen ditu. 2016ko deialdia 2016ko maiatzaren 16ko 91 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 17an amaitu zen. 2016ko azaroaren 15etik abenduaren 18ra hasi ziren 16 beka eman ziren (13 emakume eta 3 gizon). Halaber, 2016an beste 16 bekadunek ere parte hartu zuten; pertsona horiek (14 emakume eta 2 gizon) 2015eko deialdikoak ziren eta 2016ko abenduan amaitu zuten beka. 2015eko deialdiko 16 pertsona horietatik 14 pertsonak egonaldia luzatzea lortu zuten.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 436.584€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 16 (3 gizon eta 13 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***3.4.6 Laguntzak euskal kooperanteentzat*** |
| **ARDURADUNA** | ***Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Kontratazioa ahalbidetzera bideraturiko laguntza hauen helburua da kooperante profesionalen lana sustatzea, pobreziaren aurka borrokatzen duten Erakundeak edota Elkarteak sendotzen lagun dezaten. Horretarako, profesionalek modu solidarioan euren gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskainiko dituzte eta, horren truke, soldata bat jasoko dute lan-harreman baten baitan.

Laguntza kooperantea kontratatzen duen erakundeari emango zaio, urtebete eta bi urteren arteko kontratu bat egitearen truke. Esleitutako laguntzarekin soldataren zati bat, aseguruak edota gizarte segurantzaren gastuak eta helmuga herrialderako joan-etorriko bidaiaren gastuak ordainduko dira, baina ez mantenuari eta ostatuari dagozkion gastuak. Hautagaitza bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa 18.000€ da.

Laguntzak maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuak arautzen ditu. 2016ko deialdia 2016ko maiatzaren 16ko 91 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko azken eguna ekainaren 17a izan zen. 6 laguntza (4 emakume eta 2 gizon) eman zaizkie 6 erakunderi, eta parte-hartzaile horiekin batera beste 13 pertsona (9 emakume eta 4 gizon) egon dira 2016an, 13 pertsona horien kontratuek lankidetzarako tresna honen 2014ko deialdian (bi urterako laguntzak) eta 2015eko deialdian esleitutako diru-laguntzen babesa baitzuten.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 228.045€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 6 (2 gizon eta 4 emakume) |

# 4. Ekintza-programa
# Enplegurako prestakuntza

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.1 Beste sektore batzuetako EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da metalarena ez beste sektore batzuetan EEEak direla-eta langabezian gelditu diren pertsonen laneratzea ahalbidetzea, kualifikazio berriak eskuratzeko aukera emanez. Horretarako, prestakuntza-ekimenak egingo dira hainbat arlotan, langile horiek hainbat sektore eta jarduera ekonomikotan erabilgarriak diren gaitasunak eta kualifikazioak eskuratu ahal izan ditzaten.

Ekintza hauek etengabe gauzatzen ari dira eta Enplegurako Lanbide Heziketako dekretu berriak, 82/2016 Dekretuak (maiatzaren 31koa, Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena), arautzen ditu. (Ikus 4.1.4 Enplegurako prestakuntza ekimena). Langabeentzako deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean hartutako erabakiak onartu zuen eta 2016ko ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 76.850€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 25: 5 (3 gizon eta 2 emakume) 2016an hasitako prestakuntza-ekintzetan eta 20 (onartutako plazak) 2017an hasiko diren prestakuntza-ekintzetan |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.2 Bigarren aukerarako prestakuntza*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da kualifikazio baxuak edo zaharkituak dituzten eta langabezian dauden pertsonei kualifikazio berriak lortzen laguntzea, berriz ere lan-munduan sartu ahal izan daitezen. Horretarako, hainbat arlotako prestakuntza-ekintzak gauzatuko dira, parte-hartzaileek hainbat sektore eta ekonomia-jardueratan aplikagarriak diren gaitasunak eta kualifikazioak eskura ditzaten.

Ekintza hauek etengabe gauzatzen ari dira eta Enplegurako Lanbide Heziketako dekretu berriak, 82/2016 Dekretuak (maiatzaren 31koa, Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena), arautzen ditu. (Ikus 4.1.4 Enplegurako prestakuntza ekimena). Langabeentzako deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bitartez onartu zuen eta 2016ko ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 717.560€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 462: 257 (120 gizon eta 137 emakume) 2016an hasitako prestakuntza-ekintzetan eta 205 (onartutako plazak) 2017an hasiko diren prestakuntza-ekintzetan |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.3 Berrikuntza prestakuntzan: ekintza berritzaileak enplegurako prestakuntzan*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen hau irekia da, eta xede du indarra hartzen ari diren sektoreetan proiektu berritzaileak babestea, bai eta esku-hartze metodologiak eta langabezian dauden gazteei prestakuntza eskaintzeko ekimenak babestea ere. Lehentasuna emango zaie, batez ere, kualifikazio baxua duten gazteen gaikuntza hobetzea helburu duten proiektuei; izan ere, kualifikazio baxudun gazteek zailtasunak dituzte epe ertain eta luzean lana aurkitzeko.

Ekintza hauek Enplegurako Lanbide Heziketako dekretu berriaren, 82/2016 Dekretuaren (maiatzaren 31koa, Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena), baitan daude. (Ikus 4.1.4 Enplegurako prestakuntza ekimena). 2016an hitzarmen bat sinatu zen Gestamp enpresarekin, haren berrikuntza-zentroarekin lotutako prestakuntza-lana babesteko, beroan eginiko estanpazio-sistema bat garatzearen esparruan. Proiektu berritzaile horren oinarria hasierako fasean premiak antzematea izan da; gero, prestakuntza-ekintza zehatzak prestatu eta abian jarri dira, eta horietatik eratorri dira prestatutako pertsonentzako lan-aukerak. 2016an 563 pertsona prestatu dira; horietako 25 kontratatu ditu azkenean enpresak.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 363.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 563 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.4 Enplegurako prestakuntza*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da langabezian dauden pertsonei kualifikazio berriak ematea, berriz ere lan-merkatuan sartu ahal izan daitezen. Horretarako, langileak behar dituzten lanbideetan erabilgarriak diren gaitasunak eta kualifikazio profesionalak emango dizkieten prestakuntza-ekintzak gauzatuko dira hainbat arlotan.

Azken urteotan, estatuko araudi-testuingurua eguneratu da. Horren ondorioz, 2015ean prestakuntza-ekintzak arautzen dituen Dekretu bat (4/2015 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 22koa, enplegurako lanbide-heziketaren sistema presaz erreformatzeko lan-arloan) argitaratu zen; azkenean, dekretu hori irailaren 9ko 30/2015 Legea izenarekin onartu zen (enplegurako lanbide-heziketako sistema arautzen duena). Lege horren helburua da prestakuntza-sistema egokitzea, langileei enplegua eskuratzen, mantentzen eta berreskuratzen laguntzeko. Horrez gain, lege horren bitartez, herritarren garapen pertsonala eta sustapen profesionala babesten dira, eta, horretarako, ezagutzak barneratzea eta eguneratzea sustatzen da, enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa izateko aukerak areagotzeko.

2016an, autonomia-erkidegoaren mailan dekretu arautzaile berri bat argitaratu zen, 82/2016 Dekretua, Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena (107 zenbakiko EHAA, 2016ko ekainaren 7koa), estatuko araudiaren ildoekin bat etorrita.

Horrenbestez, programatuko diren prestakuntza-ekintzak Prestakuntza Espezialitateen Katalogoko espezialitatetakoak edo Euskadiko enplegurako beste espezialitate garrantzitsu espezifikoetako batzuetakoak izan beharko dute. Prestakuntza-enpresek edo –erakundeek prestakuntza-plan bat aurkeztu beharko dute. Plan horretan sartuko dira goragoko maila bateko beste ekintza batzuetan parte hartzea errazteko oinarrizko eta zeharkako gaitasunak eskuratzeko prestakuntza-ekintzak, eta/edo gaitasunak pertsonen lanpostuen betebeharretara egokitzeko aukera emango duten kualifikazioak eskuratzeko prestakuntza-ekintzak. Prestakuntza-ekintza horiek aurrez aurreko prestakuntzaren, urruneko prestakuntzaren edo bien arteko nahasketaren bitartez eskaini ahal izango dira.

Ekintza horiek gauzatzeko bi tresna juridiko erabili dira: alde batetik, Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean onetsitako langabeentzako deialdia (2016ko ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen); beste alde batetik, Lanbideren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzko agindua, 2016ko irailaren 8koa (2016ko irailaren 13ko 174 zenbakiko EHAAn argitaratu zen).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 32.919.501€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 18.008: 14.444 (8.217 gizon eta 6.227 emakume) 2016an hasitako prestakuntza-ekintzetan eta 3.564 (onartutako plazak) 2017an hasiko diren prestakuntza-ekintzetan |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.5 Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen bitartez, langabezian dauden pertsonei lan-mundura itzultzen laguntzen zaie. Horretarako, prestakuntza-ekintzak egiteaz gain, parte hartzen duten erakundeek prestakuntzaren ondoren kontratatzeko konpromisoa hartzen dute. Hala, prestakuntza espezifikoa da, eta helburu du enpresei behar dituzten langileak aurkitzen laguntzea, dituzten beharrak asetzeko bilatzen duten profila lan-merkatuan aurkitu ezin dutenean eta enpresan lanean hasteko langileek kualifikazio osagarriak behar dituztenean. Kontratatzeko konpromisoa hartzeak esan nahi du prestakuntza antolatu duen enpresak prestakuntza horretan parte hartu duten langileen %50 kontratatuko dituela, gutxienez, aurrekontuaren kargura, 6 hilabetez edo gehiagoz, lanaldi osoarekin; lanaldia partziala bada, kontratatu beharreko gutxieneko parte-hartzaile kopurua horren arabera egokituko da.

Prestakuntza-ekintza hauek bi jarduera-ildoren bitartez programatu dira:

-Langabeentzako deialdia; Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean onartu zuen eta 2016ko ekainaren 16ko EHAAn argitaratu zen, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan (Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena). (Ikus 4.1.4 Enplegurako prestakuntza ekimena).

-Abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren kontratazio-konpromisoetarako hornidura espezifiko baten bitartez (dekretua 2016ko ekainaren 6ko EHAAn argitaratu zen, kontratazio-premia larriei erantzuteko eta gutxienez parte-hartzaileen %60 kontratatzeko konpromisoarekin.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.307.081€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 1.243 (610 gizon eta 633 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.6 Lan-orientabide generikoa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek enplegua lortzeko orientazio- eta laguntza-zerbitzua eskaintzen die langabezian dauden pertsonei, lana galtzeko arriskuan dauden pertsonei, lanpostu hobea lortu nahi duten pertsonei eta potentzialki aktiboak diren pertsonei. Zerbitzu horrek hainbat ekintza eta neurri barne hartzen ditu, herritarrak informatzeko, laguntzeko, motibatzeko eta aholkua emateko. Hala, pertsona bakoitza, bere egoera profesionala kontuan hartuta, gai izango da bere gaitasunak eta interesak zehazteko eta bere ikasketa-prozesua, lan-bilaketa edo enpresa-ekimenak praktikan jartzeko. Zerbitzu horrez gain, Lanbidek kudeatutako bulego mugikorrak ere eskaintzen dira.

Programa horrek laguntzak eskaintzen dizkie ezarritako ibilbide pertsonalizatuetatik eratorritako enplegu eta autoenplegurako orientabide-zerbitzuak eskaintzen laguntzea erabakitzen duten erakundeei. Ekimen hori, eta 3.3.5 Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat eta 5.3.5 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboentzako orientabide espezifikoa ekimenak, bi deialdi orokorretan kudeatzen dira. Hain zuzen, deialdi horiek laneko orientabiderako ekintzak eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen Aginduaren bidez erregulatzen dira.

2016an, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen jarraitu dute Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko urriaren 22an onartutako deialdien babesean (urriaren 23ko 202 zenbakiko EHAAn argitaratuak). Horrenbestez, 2016an 2015eko Lan-orientabide generikoa deialdiko ordainketak gauzatu dira (lehenengo ordainketak); Orientabide espezifikoko deialdikoak, aldiz, atzeratu egin dira 2017ra, horren gauzatze-epea 2016-2017 izan baita (bigarren ordainketak). Era berean, atzeratu egin da enplegu-zentroen deialdiaren eta eskaintzak kudeatzeko kontratua egitearen eta ondoren sinatzearen gauzatze-epea. Ondorioz, bi programen aurrekontu-gauzatzea 2017ra igaro da. Bulego mugikorren kontratua 2016an gauzatu da, aurreikusitako moduan.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

| | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.010.250€ |

*Oharra: zenbateko horrek batera zenbatzen ditu lanaren arloko orientazioaren deialdiaren zenbatekoa eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako enplegurako orientazioaren deialdiaren zenbatekoa. Zenbateko horren barruan, aurrekontuaren 1/3 bat gazteentzat da, beste 1/3 hartzaile orokorrentzat eta azken 1/3a baztertuta geratzeko arriskua duten kolektibokoentzat, Ardatzen eta Ekintza Programen araberako aurrekontuaren exekuzioa kalkulatu ahal izateko.*

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Guztira, 56.584 pertsonari eman zaie arreta ( 31.137 gizon eta 25.447 emakume)

*Oharra: ekintza honek aurretiko orientazio-izaera du, eta aurrerago 4.1 ardatzeko beste ekintza batzuekin osatuko da. Hori dela eta, zenbatu egiten da baina ez da kontsolidatuko Planaren ondore agregatuetarako.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.1.7 Lankidetza hitzarmena Lanbideren enpresentzako zerbitzua garatzeko*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da erakundeekin eta eragileekin lankidetza estuagoan jardutea enpresei zerbitzuak eskaintzeko eta etorkizuneko beharrizanei erantzuteko jarduketak artikulatzeko. 2016ko Ekintza Plana zehazterakoan, 8 lankidetza-hitzarmen ezartzea aurreikusten zen erakunde eta eragileekin. Hala ere, azkenean ez dira gauzatu; izan ere, uste izan da egokiagoa dela gogoeta egitea berriro horien edukia eta irismena zehazteko, datozen urteetarako Euskal Enplegu Sistema hobetze aldera.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | Ekimena diseinatzeko fasean dago |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA |
|---|
| Ekimena diseinatzeko fasean dago |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.2.1 Landunentzako prestakuntza*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbideren programa hau Hobetuzek kudeatzen du, eta helburu du enplegurako prestakuntza-planak garatzea dagoeneko lanean ari diren pertsonentzat. Plan horrek barne hartuko ditu langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko prestakuntza-ekintzak eta langileak banan-banan berriz kualifikatzeko ekintzak. Prestakuntza-planak sektoreartekoak (gaitasun horizontalak, hainbat jarduera-sektore zeharkatzen dituztenak) edo sektorialak (sektore zehatz bati dagozkion gaitasunak) izan daitezke, gizarte-ekonomian aplika daitezke eta autonomoek edo Kualifikazioen Sistema Nazionaleko Moduluen Katalogkoko kideek jaso ditzakete.

Plan horiek funtsezko tresna dira bizi osorako prestakuntza bermatzeko, hala langileak nola enpresak ezagutzan oinarritutako gizarte berrira egokitzen direla ziurtatzeko eta Europako Enplegu Estrategiaren baitan gertatzen diren ekoizpen-prozesuen aldaketei aurre egin ahal izateko langileen gaikuntza profesionala mantentzeko.

2015ean araudi berria garatu zen arlo horretan, eta horrek arautu du 2016ko deialdia. Deialdi hau Lanbideren Administrazio Kontseilauk onartu zuen 2015eko abenduaren 30ean eginiko saioan (abenduaren 31ko 249 zenbakiko EHAAn argitaratu zen).

Halaber, enpresentzako ekintza estrategikoen deialdia ere onetsi zuen Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko irailaren 7an eginiko bileran (irailaren 14ko 175 zenbakiko EHAAn argitaratu zen).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 10.600.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | 25.806 (12.826 gizon eta 12.980 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***4.2.2 Gaitasunak egiaztatzea*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Gaitasunak egiaztatzea beharrezkoa da egungo testuinguru berrian; izan ere, gaur egun, bizi osoko ikaskuntza-errealitate bat izan behar da bai pertsonen enplegagarritasuna hobetu dadin bai gure ekonomia lehiakorragoa izan dadin. Ekimen honen emaitza 463/2013 Dekretua, abenduaren 17koa, izan zen (2013ko abenduaren 20ko EHAAn argitaratu zen). Dekretu horrek Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortu eta ziurtagiri eta egiaztapen horiek erregistratzeko eta emateko prozedura ezartzen zuen.

2015. urtean 211/2015 Dekretua, azaroaren 10ekoa, argitaratu zen; horren bitartez, lan-esperientziaren edo prestakuntza-ildo informalen bitartez eskuratutako gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesua ezarri zen. Deialdia 2015eko abenduaren 21eko 242 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Aipatutako prozedura horrek hiru fase ditu: aholkularitza, gaitasun profesionalaren ebaluazioa, egiaztatzea eta gaitasuna erregistratzea.

Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroan sartzen diren gaitasunak bi egiaztatze-ildo hauetatik datoz: alde batetik, prestakuntzaren bidea, hau da, enplegurako lanbide-heziketaren arloko prestakuntza-deialdien bidez eskuratutako gaitasunak; beste alde batetik, lan-esperientziaren edo prestakuntza-ildo informalen bitartez eskuratutako gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesua.

2016an ez da gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdirik egin (deialdi hori Hezkuntza Sailarekin koordinatuta egiten da). Gaitasunak egiaztatzearen arloan Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiaztapen Partzial Metagarrien tituluak fisikoki eman dira; ez da beste jarduerarik egin. Hain zuzen, 3.303 pertsonak eskatu zituzten titulu horiek (2.246 gizon eta 1.057 emakume).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2016an ez da gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdirik egin |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna hobetzea (pertsonak)** | Ez da eraginik izan; izan ere, 2016an ez da gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdirik egin |

# 5. Ekintza-programa
# Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.1.1 Enplegua bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (1. motako ekintzak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honek barne hartzen ditu ezohiko merkatuan egiten diren kontratazioak, baldin eta haien helburua lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna handitzea bada. Horretarako, pertsona horiei aldi baterako lan-esperientzia eskaintzen zaie, haien kualifikazioa edota gaitasun pertsonalak eta motibazioa hobe ditzaten.

Kontratazioak tokiko erakundeek zuzenean egin ditzakete, edo, bestela, gizarteratze-enpresen, enplegu-zentro berezien edo lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea xede duten irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez. Kontratuen iraupena 3 eta 6 hilabete artekoa izango da, lanaldi osoarekin edo partzialarekin (gutxienez lanaldiaren %50). Kontratua edozein motatakoa izan daiteke, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua salbu. Laguntza gehienez ere 12.500€-koa izango da lan-kontratuko, eta horrek kontratuak eragindako gastuen %100 arte estali ahalko ditu.

Kontratutako pertsona guztien %30 (gutxienez) diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen duten pertsonak izan beharko dira. Gainerako kontratuak honako kolektibo hauetako pertsonei egin beharko zaizkie: 35 urteko pertsonak edo gazteagoak, Lanbiden duela 6 hilabete edo gehiago izena eman zuten 45 urtetik gorako pertsonak, epe luzeko langabeak, gizartetik at gelditzeko arriskua duten pertsonak, desgaitasunen bat duten pertsonak, familia-erantzukizunak dituzten emakumeak eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak. Kontratatutako pertsona guztien %40ek (gutxienez) emakumezkoak izan behar dute.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, eta ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna uztailaren 16a izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 8.068.717€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 1.065 |

*Oharra: eraginaren datuak behin-behinekoak dira, deialdia maiatzaren 31n amaitzen baita.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.1.2 Kontrataziorako laguntzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (2. motako ekintzak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauen xedea da tokiko enpresei babes ekonomikoa ematea Lanbiden lan-bilatzaile gisa izena eman duten pertsona langabeak kontratatzen laguntzeko, lan-merkatu arruntean.

Kontratuen iraupena 3 hilabetekoa izango da gutxienez, lanaldi osoarekin edo partzialarekin (gutxienez lanaldiaren %50). Kontratua edozein motatakoa izan daiteke, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua salbu. Kontratuek enpresan enplegu sorrera garbia eragin behar dute, diruz lagundutako kontratua duten pertsonak enpresan hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresa horrek izan duen lantaldea kontuan hartuta. Kontratatutakoen %40ek gutxienez emakumeak izan behar dute.

Diru-laguntzaren azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonen soldataren eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren %75 baino handiagoa izan, lehentasuna duten kolektiboen (DSBE, lehenengo lanpostua lortu duten 35 urtetik beherako gazteak, luzaroan langabezian egon diren pertsonak) kasuan izan ezik; kasu horretan diru-laguntzak gastuen %100 estali ahalko ditu. Laguntza gehienez ere 3.000€-koa da 3 hilabeteko lanaldi osoko kontratu bakoitzerako eta gehienez ere 6.000€-koa lanaldi osoko 6 hilabeteko edo gehiagoko kontratu bakoitzeko (9.000€ lehentasuna duten kolektiboen kasuan: DSBE, lehenengo lanpostua lortu duten 35 urtetik beherako gazteak, luzaroan langabezian egon diren pertsonak).

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, eta ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna uztailaren 16a izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.810.483€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 821 |

*Oharra: eraginaren datuak behin-behinekoak dira, deialdia maiatzaren 31n amaitzen baita*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.1.3 Enplegua sortzeko bestelako tokiko garapen-ekintzak enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (3. motako ekintzak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekintza hauek langabeziak larriki jotako eskualdeentzat eta udalerrientzat dira. Proiektuak 1. eta 2. motako jarduketak izan ahalko dira, jarduketa horiek hasieran haientzat esleitutako aurrekontuarekin ordaindu ahal izan ez diren kasuetan. Horrez gain, enplegua sortzea xede duten tokiko garapen-ekintza berritzaileak ere izan ahalko dira, honako esparru hauetakoren batekin lotura badute: lurraldeko eta tokiko esparrua, biozientziak, energia edo teknologia iraunkorrak txertatzea.

Hasieran 1. eta 2. motako jarduketetarako esleitutako aurrekontuarekin ordaindu ahal izan ez diren kasuetan mota horretako jarduketetarako laguntzen zenbatekoa jarduketa horietan aurreikusitako berbera da. Tokiko garapen-ekintza berritzaileen kasuan, laguntzen zenbatekoa %10 gehiago izango da 1. motako jarduketetarako aurreikusitako zenbatekoaren oinarriari dagokionez, kontratuko 13.750€. Halaber, proiektuak egitearen eta aholkularitza pertsonalaren kostu espezifikoak sar daitezke.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, eta ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna uztailaren 16a izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.345.827€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 599 |

*Oharra: eraginaren datuak behin-behinekoak dira, deialdia maiatzaren 31n amaitzen baita*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.1.4 Proiektu estrategikoak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (4. motako ekintzak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Proiektu estrategikoak Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak kontratatzen laguntzeko dira, enpresa-proiektu berriak edo hedapenekoak ezarriz eta garatuz. Horiek oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten tokian tokiko enpresek sustatuko dituzte beren eremuan. Proiektuak interes estrategikoa izango du baldin eta Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak edo haren mendeko erakundeak aldez aurretik aldeko txostena egiten badu.

Diruz lagunduko diren kontratazioek gutxienez 6 hilabete iraungo dute, lanaldi osoarekin edo partzialarekin (gutxienez lanaldiaren %50). Kontratua edozein motatakoa izan daiteke, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua salbu. Lanpostu berrien kopurua 15 edo gehiagoko izan beharko da, eta kontratuek enpresan enplegu sorrera garbia eragin behar dute, diruz lagundutako kontratua duten pertsonak enpresan hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresa horrek izan duen lantaldea kontuan hartuta.

Diru-laguntzaren azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonen soldataren eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren %75 baino handiagoa izan, lehentasuna duten kolektiboen (DSBE, lehenengo lanpostua lortu duten 35 urtetik beherako gazteak, luzaroan langabezian egon diren pertsonak) kasuan izan ezik; kasu horretan diru-laguntzak gastuen %100 estali ahalko ditu. Laguntza gehienez ere 6.000€-koa izango da lanaldi osoko 6 hilabeteko edo gehiagoko kontratu bakoitzeko eta 9.000€ lehentasuna duten kolektiboen kasuan (DSBE, lehenengo lanpostua lortu duten 35 urtetik beherako gazteak, luzaroan langabezian egon diren pertsonak). Zenbateko horiek beste %10 areagotu daitezken kontratazio mugagabeen kasuan.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, eta ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 225.000€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 37 |

*Oharra: eraginaren datuak behin-behinekoak dira, deialdia maiatzaren 31n amaitzen baita*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.2.1 Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea da langabe gisa izena emanda duten pertsonak kontratatzeko pizgarriak eskaintzea, enpresetan lan egiten duten langileek, bazkide diren langileek edo sozietate kooperatiboetako kide diren langileek, haiek hala nahi dutelako, seme-alabak zein mendeko senideak edo oso gaixo daudenak zaintzeko eszedentzia bat hartzen dutenean edo lanaldia murrizten dutenean, pertsona horiek ordezkatzeko (lana eta familia bateragarri egitea). Halaber, dagoeneko lanaldi partzialarekin lanean ari den pertsona bat lanaldi osoan kontratatzeko pizgarriak ere badira, eszedentzia hartu duen edo lanaldia murriztea erabaki duen langileren bat ordezkatzeko.

Laguntzen zenbatekoa egindako kontratuen araberakoa da, baina gehienez ere enpresak kontingentzia arruntei dagokienez Gizarte Segurantzari kotizazioak direla-eta ordaindu behar dionaren %100 estaliko dute aipatutako laguntzek.

Laguntza hauek ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak arautzen ditu (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak aldatzen du). Laguntza hauek finantzatzeko hornidura ekonomikoa Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14an hartutako erabakiaren bidez onartu zen, eta 2016ko apirilaren 21eko 75 zenbakiko EHAAn argitaratu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 1.624.368€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 1.461 (44 gizon eta 1.417 emakume) |
| **Dauden enpresak** | 486 |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.2.2 Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea da langabezian dauden 35 urtetik gorako pertsonen kontratazioa sustatzea, zehazki kualifikazioa edota kualifikazio horiekin zein enpresen nazioartekotzearekin zerikusia duen lan-esperientzia duten pertsonena. Kontratu horren bitartez, kontratatutako langileek euskal enpresek atzerrian dituzten lan-zentroetan lan egingo dute, lan-merkatuan sartu ahal izateko eta esperientzia profesional sendoagoa eskuratzeko.

Diru-laguntza jasotzeko, kontratuek lanaldi osokoak izan beharko dute, eta gutxienez 12 hilabete iraungo dute. Kontratatutako langileek beren prestakuntza akademikoarekin edota kualifikazio profesionalarekin zerikusia duten lanpostuak izango dituzte, eta bermatuko da langile horiek gutxienez 6 hilabete egiten dituztela enpresari loturiko atzerriko lan-zentro batean. Soldata eta Gizarte Segurantzaren kostua ordaintzeko diru-laguntzaren zenbatekoa kontratatuko den pertsonaren adinak zehaztuko du. Gehienez ere 40.500€-koa izango da 35-44 urte arterako eta 45.000€ artekoa 45 urtetik gorakoentzat. Diruz lagundutako gehienezko epea 12 hilabetekoa izango da. Horri gehitu egin behar zaio soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostuen %2ko osagarri bat pertsonako, bidaia-aseguruaren kontzeptuan, eta beste %2ko osagarri bat lanpostuan aritzeko administrazio-baimenaren edo bisaren kontzeptuan, horrelakoak eskatzen dituzten herrialdeetan.

Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen, eta 2015eko abenduaren 31ko 249 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 15a izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 187.027€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 5 (3 gizon eta 2 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.2.3 Enplegatze Agentziekin lankidetza: lan-munduan sartzen laguntzeko osoko jarduerak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskaintzea lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboak lan-munduan sartzeko, zehazki 30 urtetik beherakoak eta epe luzeko langabeak (lehentasuna emango zaie 45 urtetik gorakoei).

Horretarako, Lanbidek lankidetza-hitzarmenak ezartzen ditu Enplegatze Agentziekin, lan-munduan sartzeko osoko laguntza eskaintzeko, laneratze-emaitzekin lotuta. Laguntza horren asmoa da pertsona horiei lan-merkatuan ibilbidea egiteko informazioa, orientazioa, aholkularitza, jarraipena eta laguntza ematea. Laguntza-jarduera horiek, halaber, 5.3.7 Osoko jarduerak kolektibo bereziekin ekimenean aurreikusitako ekintzak hartzen dituzten barruan.

Azaroan lankidetza-hitzarmenak sinatu ziren Instituto Europa, Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral eta Fundación Gureak erakundearekin. Hain zuzen, Bizkaian eta Gipuzkoan %100eko eta Araban %80ko laneratze-konpromisoak hartu ziren. 2016an jarduera espezifikoak jarri dira abian 30 urtetik beherakoentzat. Epe luzeko langabeentzako ekintzak 2017an hasiko dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.367€ (aurrekontu guztia 2017an gauzatuko da, hitzarmenen sinadura-data dela eta) |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna areagotzea (pertsonak)** | 163 (59 gizon eta 104 emakume)<br>Arreta eman zaien pertsonen %48 30 urtetik beherako gazteak dira (33 gizon eta 46 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.1 Egoera ahulean dauden taldeentzako enplegurako prestakuntza*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek kudeatzen duen programa honen xedea da langabezian dauden pertsonei tresnak ematea Prestakuntza Baliabideen Katalogoa osatzen duten hainbat baliabide eta prestakuntza-ekintzaren bitartez, laneratzea errazteko. Horretarako, hainbat erakundek elkarlanean jarduten dute, prestakuntza-ekintzak eta -baliabideak eskaintzeko. Prestakuntza-ekintzen helburua da parte-hartzaileei aukera ematea gaitasun pertsonalak eskuratzeko eta, gaitasun horiei esker, lan-inguruneetan sartzeko bidea erraztea. Prestakuntza-ekimen honen bitartez, 1. eta 2. mailako profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko beharrezko gaitasun gakoak eskuratu ahal izango dituzte, bai eta gizarteratze-enpresa batean lanpostu bat izateko gaitasun espezifikoak ere

Prestakuntza-ekintza horiek Enplegurako Lanbide Heziketari buruzko Dekretu berriak arautzen ditu, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak (Euskadiko enplegurako lanbide heziketa arautzen duena). (Ikus *4.1.4. Enplegurako Prestakuntza*). Langabeentzako deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15ean onartu zuen eta 2016ko ekainaren 16ko 114 zenbakiko EHAAn argitaratu zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 3.927.053€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna areagotzea (pertsonak)** | 5.595: 3.032 (2.064 gizon eta 968 demakume) 2016an hasitako prestakuntza-ekintzetan eta 2.563 (onartutako plazak) 2017an hasiko diren prestakuntza-ekintzetan |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.2 Enplegu-zentro bereziak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauen helburua da desgaitasunen bat duten pertsonei lan bat eskuratzen, bertan irauten eta bertan aurrera egiten laguntzea. Horretarako, enplegu-zentro berezietan jarduera-profesionala babesteko unitateak ezarriko dira, eta zentro horietan lanean ari diren eta desgaitasunen bat duten pertsonen enpleguari eutsiko zaio.

Laguntzak babes-unitateetan lan egiten duten langileen soldata ordaintzen laguntzeko dira. Urtean 1.200€ jasoko dira kontratu mugagabea duten eta desgaitasunen bat duten langile bakoitzeko; horrez gain, 600€ jasoko dira 6 hilabeterako edo gehiagorako aldi baterako kontratua duen langile bakoitzeko. Halaber, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren %50 ordainduko da Enplegu Zentro Berezian alta emana duen eta desgaitasunen bat duen langile bakoitzeko.

Programa bi deialdiren bitartez egituratu zen: desgaitasunen bat duten pertsonek enpleguari eusteko laguntzak (Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduak arautzen ditu) eta lan-jarduera babesteko unitateak sortzeko laguntzak (apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuak arautzen ditu). Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16an onetsi zituen bi deialdiak, eta martxoaren 18ko 54 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna abenduaren 31 izan zen. 83 enplegu zentro berezi babestu ziren.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 33.989.835€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, Enplegu Zentro Berezien laguntzarekin (pertsonak)** | 8.629 (5.600 gizon eta 3.029 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.3 Laneratze-enpresak*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea da laneratze-enpresen sorrera sustatzea eta dagoeneko martxan daudenak babestea, gizarte-desabantailan edo bazterktuta dauden kolektiboei lan-merkatuan sartzea laguntzeko asmoz. Horretarako, laneratzeko eta ikaskuntzako proiektu pertsonal bat egingo da, pertsona horien enplegagarritasuna hobetuko duten gizartearen eta lanaren arloko trebetasunak, oinarrizko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuaren ezagutzak lortzera begira.

Enpresak sortzera bideratutako laguntzak barne hartzen du enpresa horiek bideragarriak diren erabakitzeko merkatu-azterketa, eta azterketa horren %50 arte finantzatzen du (gehienez ere 6.000€). Azterketaren emaitza bideragarria izanez gero, enpresa berri bat sortu beharko da urtebeteko epean.

Dagoeneko martxan dauden enpresak babesteari dagokionez, aktibo finkoetan egindako lanpostuei eustera edo lanpostu berriak sortzera bideratutako inbertsioen %85 arte babestuko da (gehienez ere 12.000€ eusten zaion lanpostu bakoitzeko edo sortu den lanpostu berri bakoitzeko). Horrez gain, laguntzak emango dira laneratze-prozesuan dauden pertsonen lanpostuak sortzearen eta mantentzearen truke (urtean 12.300€ pertsonako) eta ekoizpenean laguntzeko lanpostu teknikoak eta laneratze-prozesuan laguntzeko lanpostu teknikoak sortzearen eta mantentzearen truke (urtean 1.800€ eta 1.100€ laneratzearen arloko kontratu bakoitzeko, hurrenez hurren). Halaber, laguntzak emango dira merkatu berrietara irekitzeko edo enpresa-jarduera birbideratzeko merkatu-azterketak egiteko laguntza teknikoa jasotzeko (kostuaren %50 arte; gehienez ere 6.000€ azterketako), bai eta laneratze-prozesuan langileak egingo duen prestakuntzarako ere (matrikula-gastuen %80 arte).

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16an onetsi zuen deialdia, eta 2009ko maiatzaren 4ko Aginduak eta azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak arautzen dute. Deialdia 2016ko martxoaren 18ko 54 zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izan zen. Guztira 40 laneratze-enpresa babestu dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 6.160.705€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua mantentzea, Enplegu Zentro Berezien laguntzarekin (pertsonak)** | 545 (263 gizon eta 282 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.4 Desgaitasunak dituzten pertsonei enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak*** |
| **RESPONSABLE** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Laguntza hauen xedea da desgaitasunak dituzten langileei lanean, jendartean eta gizartean integratzen laguntzea. Horretarako, haien gaitasun fisiko, psikiko edo intelektualei egokitutako lanpostuak sustatuko dira. Desgaitasunak dituzten langileei kontratu mugagabea egiten dieten eta lanpostuak egokitu edo oztopo arkitektonikoak kentzen dituzten enpresek eta lan-elkarteen kooperatibek 3.907€ jasoko dituzte lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, eta 901,52€ arte egokitu behar den edo oztopo arkitektonikoa kendu behar den lanpostu bakoitzeko.

Deialdia (honako hauek arautzen dute: maiatzaren 11ko 1451/83 Errege Dekretua (II. Kapitulua) eta Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Agindua) Lanbideren Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2016ko martxoaren 16an eta 2016ko martxoaren 18ko 54 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna abenduaren 31 izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 451.467€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 140 (79 gizon eta 61 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.5 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako orientabide espezifikoa*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek lan-munduan sartzeko orientazio- eta laguntza-zerbitzua eskaintzen die baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei. Zerbitzu horren bitartez, hainbat ekintza eta neurri martxan jartzen dira pertsona horiei informazioa emateko, laguntzeko, motibatzeko eta aholkua emateko, pertsona bakoitzaren egoera profesionala aintzat hartuta, pertsona hori gai izan dadin dituen gaitasunak eta interesak zehazteko, eta ikasteko, lana bilatzeko edo enpresa bat sortzeko jarraitu behar duen ibilbidea kudeatzeko. Zerbitzu horrez gain, Lanbidek kudeatutako bulego mugikorrak ere eskaintzen dira.

Programa honek laguntza eskaintzen die lanaren eta autoenpleguaren arloko orientazio-zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeei, ezartzen diren ibilbide pertsonalizatuetatik abiatuz. Ekimen hau, 3.3.5 Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat eta 4.1.6 Lan Orientabide Generikoa ekimenekin batera, bi deialdi orokorren bitartez kudeatuko da, enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen aginduaren bitartez.

2016an, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen jarraitu dute Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko urriaren 22an onartutako deialdien babesean (urriaren 23ko 202 zenbakiko EHAAn argitaratuak). Horrenbestez, 2016an 2015eko Lan-orientabide generikoa deialdiko ordainketak gauzatu dira (lehenengo ordainketak); Orientabide espezifikoko deialdikoak, aldiz, 2017ra atzeratu dira, horren gauzatze-epea 2016-2017 izan baita (bigarren ordainketak). Era berean, atzeratu egin da enplegu-zentroen deialdiaren eta eskaintzak kudeatzeko kontratua egitearen eta ondoren sinatzearen gauzatze-epea. Ondorioz, bi programen aurrekontua 2017an gauzatuko da. Bulego mugikorren kontratua 2016an gauzatu da, aurreikusitako moduan.

## 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

| | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.010.250€ |

*Oharra: zenbateko horrek batera zenbatzen ditu lanaren arloko orientazioaren deialdiaren zenbatekoa eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako enplegurako orientazioaren deialdiaren zenbatekoa. Zenbateko horren barruan, aurrekontuaren 1/3 bat gazteentzat da, beste 1/3 hartzaile orokorrentzat eta azken 1/3a baztertuta geratzeko arriskua duten kolektibokoentzat, Ardatzen eta Ekintza Programen araberako aurrekontuaren gauzatzea kalkulatu ahal izateko.*

## 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA

Guztira, 56.584 pertsonari eman zaie arreta (31.137 gizon eta 25.447 emakume)

*Oharra: ekintza honek aurretiko orientazio-izaera du, eta aurrerago 5.3 ardatzeko beste ekintza batzuekin osatuko da. Hori dela eta, zenbatu egiten da baina ez da kontsolidatuko Planaren ondore agregatuetarako.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.6 Babestutako enplegurako laguntzak merkatu arruntean*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Ekimen honen xedea da gizarteratzeko zailtasun handiagoak dituzten eta desgaitasunen bat duten pertsonei lan-merkatu arruntean sartzen laguntzea, babestutako enpleguaren arloko jarduketen bitartez. Ekimen hau martxan jartzeko, ezinbestekoa da elkarteen, irabazi asmorik gabeko fundazioen eta enplegu-zentro berezien laguntza, eta horiei laguntzak emango zaizkie babestutako enplegu-unitatea osatzen duten langileen soldaten gastua eta Gizarte Segurantzako gastua estaltzen laguntzeko. Erakunde laguntzaile horiek kontratu mugagabeak edo gutxienez 6 hilabeteko aldi baterako kontratuak egingo dituzte, enpresaren egituraren barneko lanposturen baterako.

Laguntzaren zenbatekoa langile berrien kopuruaren eta desgaitasun mota eta mailaren araberakoa izango da; laneratze bakoitzeko 4.000 eta 7.800€ artean emango da (4.400€-8.580€ emakumeen kasuan). Halaber, aztertzaile profesionalek eginiko enplegu-aukerak bilatzeko eta erakartzeko jarduerak babestuko dira, gutxienez 19.550€-ko zenbatekoarekin (100 enpresa bisitatuta) eta gehienez 39.100€ (200 enpresa bisitatuta), bai eta prestatzaile pertsonal batek eginiko jarraipenaren eta babesaren arloko jarduerak ere, gehienez ere 850€-ko zenbatekoarekin jarraipena egingo zaion pertsonako.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2015eko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen deialdia, eta 2015eko abenduaren 31ko 249 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko azken eguna 2016ko apirilaren 30a izan zen.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 702.924€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, kontratazioa sustatzeko pizgarri zuzenen bitartez (pertsonak)** | 63 daude aurreikusita (34 gizon eta 29 emakume) |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.7 Osoko jarduketak kolektibo bereziekin*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen helburua da orientazio kolektiboko zerbitzu bat eskaintzea baztertzeko arriskuan dauden kolektiboak laneratzeko. Horretarako, laneratzeko laguntza osoko jarduerak egingo dira, laneratze-emaitzekin lotuta, lan-merkatuan sartzeko ibilbidean pertsona horiei informazioa emateko, orientatzeko, jarraipena egiteko eta laguntzeko.

2016an, jarduera horiek Enplegatze Agentziekin lotu dira, eta “5.2.3 Enplegatze Agentziekin lankidetza: laneratzen laguntzeko osoko jarduerak” ekimenaren barruan geratu dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | Ikus 5.2.3 Enplegatze Agentziekin lankidetza: laneratzen laguntzeko osoko jarduerak ekimena |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna areagotzea (pertsonak)** | Ikus “5.2.3 Enplegatze Agentziekin lankidetza: laneratzen laguntzeko osoko jarduerak” ekimena |

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***5.3.8 Zeinu-hizkuntzarako itzulpenak trebakuntza-ekintzetan*** |
| **ARDURADUNA** | ***Lanbide*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Lanbidek hitzarmena du Euskal Gorrak erakundearekin. Hitzarmen hori 2013ko apirilaren 12an sinatu zen, eta horren helburua da gorrak diren pertsonei zeinu-hizkuntzako itzulpena eskaintzea bulegoetan ematen diren zerbitzuetan, pertsona horien gaikuntza eta kualifikazioa errazteko. Zerbitzu hori indarrean egongo da ekitaldi honetan.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 2.040€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegagarritasuna areagotzea (pertsonak)** | 49 |

# 6. Ekintza-programa
# RENOVE Birgaikuntza

| EKIMENA | *6.1.1 Banakako birgaitzeak eta jabeen erkidegoetakoak egiteko laguntzak* |
|---|---|
| ARDURADUNA | *Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza* |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honek birgaitze-proiektuak gauzatzea erabiltzen du sektorean enplegua sortzeko tresna gisa. Birgaitze-proiektuak bi motatakoak izan daitezke:

−Partikularrek eta jabeen erkidegoek abiatutako eraikinen eta etxebizitzen birgaitzeak, bizi-egokitasuna hobetzeko, desgaitasunen bat duten pertsonei sarbidea errazteko edo energia-kontsumoa murrizteko. Proiektu mota honetarako laguntzak jarduketaren kostu errealaren araberako ez itzultzeko diru-laguntzak dira, gehienez ere 5.940€-koak, bai eta mailegu kualifikatuak ere (horiek amortizatzeko epea 5-15 urte da, gabealdia 3 urtekoa, eta interes-tasa maximoa Euribor + %1,75). Jabeen erkidegoentzako laguntzek, gainera, obrak gauzatzeko laguntza (babestu daitekeen aurrekontuaren %5 eta gehienez ere 2.000€ erkidego bakoitzeko; osoko birgaitze-eremuen kasuan, aurrekontuaren %10 eta gehienez ere 3.000€ erkidego bakoitzeko) eta eraikinen ikuskapen teknikoaren ondoriozko txosten teknikoa idazteko laguntza (gehienez ere, 1.000€) ere barne hartzen dituzte. Era berean, energia aurrezteko inguratzaile termikoan egiten diren esku-hartzeak ere babesten dira, eta gehienez ere, 30.000-45.000€ emango dira, hobekuntza-ehunekoaren arabera.

−Ondare eraikian proiektuak egiteko etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorra, sarbide hobetzeko, suteen kontrako segurtasuna sendotzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko, etxe blokeetan edo sailetan bildutako eraikinetan, gutxienez aldeetako bat bloke edo sail horretakoa denean eta eraikinen erabilera nagusia etxebizitzak direnean. Laguntzek hau hartzen dute barne: txostenak idazteak, ziurtagiriek eta proiektuek eragindako gastuen %80, eta obrak gauzatzeak eragindako gastuen %60. Halaber, honako hauek ere sartzen dira: energia-jokabidea hobetzeko laguntzak (gehienez ere 9.840€ etxebizitza bakoitzeko), irisgarritasuna hobetzeko laguntzak (gehienez ere 72.000€ instalatutako igogailu bakoitzeko, 24.000€ egokitutako igogailu bakoitzeko, eta 14.400€ irisgarritasuna 0 kotaraino jaisteko), energia monitorizatzeko laguntzak (168€ etxebizitza bakoitzeko) eta suteen aurkako segurtasunerako laguntzak (180€ etxebizitza bakoitzeko).

2016ko maiatzaren 18an onetsi zen 2016an etxebizitzen eta lurzoruaren arloan babesa jaso dezaketen jarduketei eman beharreko laguntzak finantzatzeko esleitu ziren kredituak ezagutzera ematen dituen Agindua. Aginduak aipatzen zituen esku-hartzeetako batzuk banakako birgaitzeak eta jabeen erkidegoek abiarazitakoak ziren. Agindu hori 2016ko ekainaren 1eko 103 zenbakiko EHAAn argitaratu zen. Halaber, 2015eko abenduaren 23an onartu zen 2016rako *etxebizitza eta eraikinetako birgaitze eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko* izenekoaren deialdia (2015eko abenduaren 31ko 249 zenbakiko EHAAn argitaratu zen; 2016ko irailaren 20an ebatzi zen eta 2016ko urriaren 21eko 200 zenbakiko EHAAn argitaratu zen).

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 17.837.789€ |
| **Baliabide pribatuak** | 260.433.366€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, birgaitze-lanen bitartez (pertsonak)** | 3.394 enplegu |
| **Etxebizitzak** | 13.101 etxebizitza eta 833 lokal |

*Oharra: enplegua kuantifikatzeko, lanaldi osoko eta urtebeteko kontratuen baliokideen zenbatespena egin da. Hala ere, baliteke birgaitze-lanetan parte hartu duten langileen zenbatekoa adierazitakoa baino handiagoa izatea.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***6.1.2 Birgaitze integraturako laguntzak (udalak)*** |
| **ARDURADUNA** | ***Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honen xedea enplegua sortzen laguntzea da, birgaitze-jarduerak eginez hiri-ingurunearen eta espazio publikoen irisgarritasuna, hirigintza-urritasunak edo -gabeziak dituzten eremuetako birgaitzea eta gizartearen arloko arazo bereziak dituzten eremuen birgaitzea hobetuz.

Laguntza itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidez artikulatzen da udalekin eta tokiko erakunde txikiekin. Erakunde onuradun bakoitzak gehienez ere 300.000€ jaso ahal izango ditu, eta horrek eskatu den irisgarritasun-aurrekontuaren %50 eta %75 artean estaliko du. Halaber, diru-laguntza hauek emango dira irisgarritasun-planak eguneratzeko edo egiteko, dagozkion hobekuntza-lanak egiteko eta hiriak eta eraikinak irisgarriak direla bermatuko duten igogailuak eta plataforma jasotzaileak eskuratzeko eta instalatzeko.

Era berean, itzuli beharrik gabeko beste diru-laguntza batzuk emango dira birgaitze integratuko eremuetan edo egoitza-eremu narriatuetan ondare hiritartua birgaitzeko planak egiteko eta hiria zaharberritzeko jarduketak egiteko hirigintza- edo gizarte-arazo bereziak dituzten eremuetan.

2016ko uztailaren 8ko Aginduaren bitartez arautzen dira udal eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasunaren arloko diru-laguntzak eta haren bidez egin zen deialdia. 2016ko irailaren 1eko 167 zenbakiko EHAAn argitaratu ziren eta 2016ko abenduaren 30ean ebatzi ziren (orain arte, ez dira argitaratu).

Birgaitze integratuko eremuetan edo egoitza-eremu narriatuetan ondare hiritartua birgaitzeko diru-laguntzak 2007ko maiatzaren 2ko Aginduaren bitartez arautzen dira (Agindu hori 2013ko urriaren 23ko Aginduak aldatu zuen). Deialdia 2015eko azaroaren 14ko Aginduaren bitartez egin zen (2015eko abenduaren 30eko 248 zenbakiko EHAAn argitaratu zen), 2016ko irailaren 29an ebatzi ziren eta 2016ko azaroaren 23ko 222 zenbakiko EHAAn argitaratu ziren.

Horrez gain, hainbat diru-laguntza zuzen eman dira hiria birgaitzeko: Abanto Zierbenako Udalari Santa Juliana auzoa zaharberritzeko (200.000€, 2016ko otsailaren 9ko Agindua), Sestao Berri sozietateari Baños kaleko 49 zenbakian jarduerak egiteko (100.000€) eta Txabarri kaleko 47 eta 49 zenbakietan jarduerak egiteko (100.000€) Sestaon (2016ko ekainaren 17ko Agindua eta 2016ko irailaren 28ko Agindua); Ermuko Udalari, Ermuko etxebizitzen birgaitze eta egokitze funtzionala egiteko laguntza ekonomikoen programa gauzatzeko (50.000€; 2016ko ekainaren 3ko Agindua); eta Visesa Sozietate Publikoari, Vitoria-Gasteizen Coronación auzoan hirigintza-birgaitze integratuaren proiektu bat kudeatzeko eta gauzatzeko (192.655€; 2016ko urriaren 25eko Agindua).

Laguntza guztiei esker, 168 jarduera (planak eta obrak) gauzatu dira irisgarritasunaren arloan eta 36 jarduera birgaitze integratuko eremuetan edo narriatutako egoitza-eremuetan.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 4.015.783€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, birgaitze-lanen bitartez (pertsonak)** | 107 enplegu |

*Oharra: enplegua kuantifikatzeko, lanaldi osoko eta urtebeteko kontratuen baliokideak zenbatetsi dira. Hala ere, baliteke birgaitze-lanetan parte hartu duten langileen zenbatekoa adierazitakoa baino handiagoa izatea*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***6.2.1 Birgaitze-lanak ikastetxeetan*** |
| **ARDURADUNA** | ***Hezkuntza*** |

## EKIMENAREN PLANIFIKAZIOA, EGOERA ETA LORPEN NAGUSIAK

Programa honek enplegua sortzea du xede; horretarako, ikastetxe publikoak birgaitzeko esku-hartze zuzenak egingo dira hezkuntza-zentro publikoetan. 2016. urtean, azpiegitura berriak edo luzapenak eraiki dira eta birgaitze- edo egokitze-lanak egin dira 29 ikastetxetan, besteak beste honako hauetan:

–**Ikasle kopuruaren gorakadari erantzuteko azpiegitura berriak edo luzapenak**: urtean zehar, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berrien lanak amaitu dira (Mariturri HLHI eta Aiete HLHI), baita Bigarren Hezkuntzako zentro berri bat ere (Xabier Munibe BHI). Halaber, Haur Hezkuntzako zentro batean 2015ean hasitako lanek jarraitu egiten dute (Bizkotzalde HLHI). 2016an Luis Briñas HLHIko pista estali berriaren lanak hasi dira eta IPI Antonio Truebaren kiroldegi berriko lanak, baita Bigarren Hezkuntzako zentro berri hauek ere (Hernani BHI, Ugao BHI, Gueñes BHI, Zabalgana BHI, Miguel Altuna Lanbide Heziketako zentro berria, Antigua Luberri BHI handitzeko obrak eta Pagasarribide BHI bigarren hezkuntzako zentro berria). Udan amaitu dira Lekeitio BHI birgaitzeko eta handitzeko lanak eta Zumaia BHI kontserben pabiloi berriko lanak; biak ere 2015ean hasiak. Eguberrietan amaitu ziren bigarren hezkuntzako Txindoki BHI handitzeko eta birgaitzeko lanak.

–**Azpiegiturak birgaitzea edo egokitzea:** urtean zehar arkitektura-oztopoak kentzeko lanak egin dira (Siete Campas HLHI, IES Zalla, Cocherito IBT, eta Uribe Kosta BHI), teilatuak birgaitu dira (Zaldibar HLHI, Arrasate BHI, Lizardi BHI, Tolosaldea LHII eta Meka Ezenarro LHII), egitura indartzeko lanak egin dira (Larrañazubi HLHI eta Beurko BHI) eta euste-horma indartu da (San Adrián BHI); jangela eta bulegoak birgatiu dira (Elgoibar HLHI); hainbat instalazio, suteen aurkako babesa, ebaluazioa eta irisgarritasuna birgaitzeko lanak egin dira (Ondarroa BHI, Usandizaga BHI eta Easo Politeknikoa LHII); fatxadak birgaitu dira (Uribe Kosta BHI) eta galdara-gela birgaitu da (Donostiako HEO). Gainera, lurralde-ordezkaritzen unitate teknikoek hanibat lan txiki egin dituzte.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 32.523.648€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, birgaitze-lanen bitartez (pertsonak)** | 397 |

*Oharra: enplegua kuantifikatzeko, lanaldi osoko eta urtebeteko kontratuen baliakideak zenbatetsi dira. Hala ere, baliteke birgaitze-lanetan parte hartu duten langileen zenbatekoa adierazitakoa baino handiagoa izatea.*

| | |
|---|---|
| **EKIMENA** | ***6.3.1 Birgaitze-lanak osasun-zentroetan*** |
| **ARDURADUNA** | ***Osasuna*** |

## OBJETIVO

Programa honen xedea enplegua sortzea da; horretarako, osasun-zentroak birgaitzeko eta berregituratzeko esku-hartze zuzenak egiten dira.
2016. urtean 5 zentrotan egin dira birgaitze-obrak. Urte amaieran, hau zen zentro horien egoera:

−Arabako Unibertsitate Ospitalea (OS10 HUA): birgaitze-obrak bukatu dira.

− Amorebieta OE (OS63 BARRUALDE-GALDAKAO): birgaitze-obrak bukatu dira.

− Amurrio OE (OS63 BARRUALDE-GALDAKAO): birgaitze-obrak gauzatzen ari dira.

−Haurren Psikiatria Unitatea (OS15 AOMS-RSMA): birgaitze-obrak hasi eta geldiarazi egin dira.

− Kanpezu OE(OS05 ARABA): birgaitze-obrak gauzatzen ari dira.

| 2016/12/31n GAUZATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK | |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa** | 12.150.552€ |

| 2016/12/31n ENPLEGUAN EDOTA ENPRESETAN IZAN DUEN BENETAKO ERAGINA | |
|---|---|
| **Enplegua sortzea, birgaitze-lanen bitartez (pertsonak)** | 148 |

*Oharra: enplegua kuantifikatzeko, lanaldi osoko eta urtebeteko kontratuen baliokideak zenbatetsi dira. Hala ere, baliteke birgaitze-lanetan parte hartu duten langileen zenbatekoa adierazitakoa baino handiagoa izatea.*

# 6- ADIERAZLE OROKORRAK

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | 2015eko EGOERA | 2016ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA (2016-2013) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BPGren urteko hazkundea (%) | %-1,2 | %1,2 | %2,9 | %3,1 | Urtetik urterakoak: 2012-2013; 2013-2014; 2014-2015; 2015-2016. Eustat | ▲ |
| Enpresa-establezimenduen saldo garbia (altak - bajak) | -5.186 | -2.406 | -495 | -710 | Urtetik urterakoak: 2012-2013; 2013-2014; 2014-2015; 2015-2016 (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▲ |
| Sortutako enpresa-establezimenduen kopurua | 13.829 | 14.796 | 16.040 | 16.045 | 2013-2014-2015-2016 (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▲ |
| Esportazioen urteko bolumena (milioi€-tan) | 20.242 | 22.244 | 21.955,33 | 21.596 | 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▲ |
| BPGren gaineko I+Gko gastua (%) | %2,06 | %1,99 | %1,93 | %1,84 | 2012-2013-2014-2015. Eustat | ▼ |

▲ *2016-2013 bilakaera, zentzu positiboan*

▼ *2016-2013 bilakaera, zentzu negatiboan*

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | 2015eko EGOERA | 2016ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA (2016-2013) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa (milaka pertsona, BJA) | 1.051,2 | 1.050,3 | 1.049,1 | 1.032,3 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▼ |
| Jarduera-tasa (%, BJA) | %57,4 | %57,5 | %57,3 | %56,4 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▼ |
| Jarduera-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | -2,22 | -2,01 | -2,67 | -2,29 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▼ |
| Jarduera-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | 0,04 | 0,06 | -0,84 | -1,14 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE<br>III. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eurostat | ▼ |
| Landunak (milaka, BAI) | 872,0 | 874,5 | 894,9 | 902,1 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▲ |
| Gizarte Segurantzan izena emandako pertsonak (milaka pertsona, hileko batezbestekoa) | 875,2 | 887,2 | 908,0 | 925,3 | Abendua: 2013-2014-2015-2016 (hileko batezbestekoa). Gizarte Segurantza | ▲ |
| Enplegu-tasa, 16-64 urtekoen artean (%, BJA) | %63,7 | %64,8 | %65,3 | %65,9 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▲ |
| Enplegu-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | 6,91 | 5,80 | 5,71 | 5,71 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▼ |
| Enplegu-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | -1,52 | -2,10 | -0,76 | -0,60 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016.INE<br>III. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eurostat | ▲ |
| Pertsona langabeak (milaka pertsona, BAI) | 173,3 | 174,1 | 132,5 | 126,2 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▲ |
| Langabezia-tasa (%, BAI) | %16,6 | %16,6 | %12,9 | %12,3 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▲ |
| Erregistratutako langabezia (milaka pertsona, Lanbide) | 167,4 | 165,8 | 150,0 | 136,2 | Abendua: 2013-2014-2015-2016. Lanbide | ▲ |

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | 2015eko EGOERA | 2016ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA (2016-2013) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Langabezia-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | -9,15 | -7,10 | -8,01 | -6,36 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE | ▼ |
| Langabezia-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | 5,98 | 6,60 | 2,99 | 4,10 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. INE III. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eurostat | ▲ |
| EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 17.500 | 16.747 | 8.108 | 6.283 | Metatutako urteko datuak: 2013-2014-2015-2016. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | ▲ |
| Hutsaltze EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 1.608 | 1.460 | 860 | 638 | Metatutako urteko datuak: 2013-2014-2015-2016. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | ▲ |
| Baimendutako eta/edo jakinarazitako EEE-en kopurua (guztira) | 1.469 | 1.434 | 695 | 446 | Metatutako urteko datuak: 2013-2014-2015-2016. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila | ▲ |
| Jarduera-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | -11,40 | -10,80 | -11,20 | -9,50 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▲ |
| Langabezia-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | -0,10 | 0,60 | -0,01 | 0,01 | IV. hiruhilekoa: 2013-2014-2015-2016. Eustat | ▼ |
| Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka) | 53,1 | 50,8 | 39,0 | 34,6 | Abendua: 2013-2014-2015-2016. Lanbide | ▲ |
| Iraupen luzeko pertsona langabeak (25 urtetik gorakoak, urtebete baino gehiago langabezian daramatenak, eta 25 urtetik beherakoak, 6 hilabete edo gehiago langabezian daramatenak), Lanbide enplegu-eskatzaileak direnak (milaka) | 122,7 | 125,0 | 124,5 | 122,0 | Abendua: 2013-2014-2015-2016. Lanbide | ▲ |

▲ *2016-2013 bilakaera, zentzu positiboan*

▼ *2016-2013 bilakaera, zentzu negatiboan*

# 1. ERANSKINA: AZTERKETA GENERO-IKUSPEGITIK

- Genero-ikuspegitik aztertuta, ondoriozta daiteke 2016. urteko Enpleguaren Ekintza Planak **antzeko eragina izan duela gizonengan (%54) eta emakumeengan (%46)**. Hala ere, desberdintasun batzuk hauteman dira zenbait esparru edo programatan; esaterako, batzuetan (prestakuntza dualean, adibidez) gizon gehiago egon dira, eta beste batzuetan (lana eta familia uztartzeko laguntzetan, adibidez) emakume gehiago.

- Puntu honetan azpimarratu beharra dago genero-ikuspegian oinarritutako azterketa egiteko zuzenean pertsonei zuzenduriko ekimenak (bekak, kontrataziorako laguntza zuzenak, enplegu babesturako laguntzak, prestakuntza-ekintzak eta ekintzailetzaren arloko esku-hartzeak) baino ez direla aintzat hartu; izan ere, horietan posible izan da sexuaren arabera sailkatutako datuak eskuratzea.

- Ekintzailetzaren esparruan, **emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izan da Ekintzaileei Laguntzeko Programan**. Alabaina, 30 urteko edo gehiagoko emakume ekintzaileen presentzia pixka bat handiagoa izan da enpresa-ideia bat garatzera bideratutako laguntza-ildoetan eta enpresa-jarduera berriak martxan jartzeko ekimenetan, eta orekatua da jarduera berriak sendotzeko programetan. **Gizarte-ekintzailetzaren arloan gizonen parte-hartzea (%69) handiagoa izan da** emakumeena baino.

- **Gazteen enpleguari** dagokionez, programa batzuetan desorekak hauteman dira:

  - **Gazteen ekintzailetza-programetan** (esaterako, Gaztempresa ekimenean edo gizarte-ekonomia hedatzeko eta horri buruzko prestakuntza jasotzeko ikastaroetan) eta **gazte-talentuaren esparrukoetan** (Nazioartekotze bekak edo Global Training bekak) emakumeen eta gizonen parte-hartzea parekoa izan da.

  - Alabaina, **gehiago izan dira heziketa dualean parte hartu duten gizonak (%78)** emakumeak baino. Horrek lotura zuzena izan lezake Lanbide Heziketan gizon gehiago egotearekin eta heziketa dualaren ardatza industria-sektorea izatearekin.

  - Lehenengo lan-esperientziari dagokionez, zenbait programatan, esaterako Lehen Aukeran (%27) eta Errelebo Kontratuan (%29), emakumeen parte-hartzea baxua izan da. Beste batzuetan, berriz, orekatuagoa izan da, hala nola euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan gazteak kontratatzearen kasuan (%60 gizonak eta %40 emakumeak). Gazteei lan-munduan sartzeko arreta eta laguntza ematea helburu zuten **Unibertsitateekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin egindako hitzarmenetan**, adibidez, **parte-hartzaile gehienak emakumeak izan dira (%58).**

- **Orientazio-**programetan, **gizonen parte-hartzea emakumeena baino zertxobait handiagoa izan da** (%55 gizonak eta %45 emakumeak).



- Enplegurako prestakuntzari dagokionez, **langabezian zeuden emakumeek parte-hartze txikiagoa izan dute Enplegurako Prestakuntzaren alorreko ekintzetan (%40)**, gizonen (%60) aldean, oro har. Alabaina, gizon eta emakumeen presentzia orekatua izan da kontratazio-konpromisoko prestakuntza-programan eta bigarren aukerako prestakuntza-ekintzetan. **Landunentzako prestakuntza-ekintzei dagokienez, parte-hartzaileen banaketa orekatua izan da, oro har**.
- **Lana eta familia bateratzeko laguntzetan batez ere emakumeek hartu dute parte (%97)**; horrek islatzen du mantendu egin dela tradiziozko joera, eta neurri horien erabiltzaile nagusiak emakumeak izaten jarraitzen dutela
- **Laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonak gaitzeari eta horiei laguntza eskaintzeari buruzko programetan, gizonen eta emakumeen parte-hartzea orekatua izan da, oro har**. Hala ere, gizon gehiagok hartu dute parte Enplegu Zentro Berezietan (%65) eta desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzeko laguntzetan (%55). Alderantziz, emakumeek presentzia zertxobait handiagoa izan dute enplegatze-agentziekin lankidetzan eginiko laneratzeari laguntzeko osoko jarduеretan (%64), eta presentzia orekatua izan dute laneratze-enpresetan (%52).